

Julian Albistur Aranburu

Dozenaka sortuak

**Bertsopaperak
(1984-2010)**

Auspoa Liburutegia
320

ALBISTUR ARANBURU, Julian (1950-)

Dozenaka sortuak : bertsopaperak (1984-2010) / Julian Albistur Aranburu ; edizioa, Pello Esnal. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2011.

279 or. : argk., mus. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 320)

Aurkibidea

LG SS 0000-2011. - ISBN 978-84-7907-662-7

I. Esnal, Pello (1950-). II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera. III. Izenburua. IV. Saila.

821.361-1"19"

821.361-1"20"

Edizioa: Pello Esnal

© Julian Albistur Aranburu

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

400 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-662-7

Legezko Gordailua: SS.??????????

Fotokonposizioa: Imanol Tapia

Inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Julian Albistur Aranburu

Dozenaka sortuak

**Bertsopaperak
(1984-2010)**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Donostia-San Sebastian, 2011

ESKAINZA

Feli emazteari, eta Aitor eta Aloña seme-alabei, esker onez, lan hau osatu ahal izateko jaso dudan laguntzagaririk. Urte guzti hauean, zuei kendutako ordu asko eskaini dizkiodalako.

ESKERRAK EMANEZ

ARGAZKIAK

Lan hau osatzeko, komenigarria iruditu zait bertso-sortak gaiarekin zerikusia duten argazki batzuen bidez hornitzea. Hemen agertzen dira iturriak:

Astarloza Taldea

Bertsozale Elkartea

Ereintza Elkartea

Lanku

Orereta Ikastola

Taket Bertsolaritza Alkartea (Mungia)

Xenpelar Bertso Eskola

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Wikipedia

DOINUTEGIA

Osagarri bezala, egokia iruditu zait erabilitako doinuek osatzen duten doinutegia ere sartzea, iturri hauetatik jasoa:

Joanito Dorronsoro

Bertsozale Elkartea

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

BERTSO-ESTROFAK IZENDATZEKO IRIZPIDEAK

Bertsozale Elkarteko Iker taldea

BAIMENAK

Saritutako bertso-sortak argitaratzeko baimenak lortu ditut, gauza jakina baita, saria jasoz gero, bertsoak antolatzaileen esku gelditzen direla. Sorta bakoitzaren amaieran jarria dago non saritua izan den eta lortutako saria.

Mila esker guztioi zuen laguntzagatik.

Nire eskerrik beroenak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta bereziki AUSPOA taldeko arduradunei (Joxemari Iriondo, Pello Esnal, Jabier Kalzakorta eta Frantxis Lopez Landatxe), liburu hau argitaratzeko aukera ematezagatik.

Hitzaurrea

Bertsolaritzaren munduan ez naiz oso ezaguna, herri mailan ez bada behintzat. Nire ahalegina urte askotako itzaleko lan isila izan da, baina gehienbat bertsopaperetara mugatua, hori jorratu baitut. Ez naiz bat-batean aritu, ofizialki behintzat. Bertso-jartzailea naiz. Beraz, nire burua aurkeztea dagokit.

Hernanin, Ereñotzu inguruan, Epele auzoko Epele-Borda baserrian jaio nintzen, 1950eko urriaren 28an. Agustin Albistur (hernaniarra) eta Anttoni Aranburu (Leaburun jaioa) senar-emazteen hirugarren semea; araba gazteagoa da.

1956an, frankismoaren garaian, Fagollagako Eskola Publikoan (Ereñotzu inguruan) ikasten hasi nintzen, sei urte betetzear nituen garaian, hamaika urte inguru arte. Ikasle gehientsuenak baserritarrak ginen eta guztiok euskeraz hitz egiten genuen etxean, auzoan eta bailaran. Eskolan, gaztelez (ez genekien hizkuntza); euskera (ama-hizkuntza) debekatua zegoelarik.

Beharrak eraginda, gaztelaniaz azkar ikasi genuen (ikasi beharko!), ez baitzegoen beste aukerarik. Irakaslearen, edo sistemaren metodoa ere, ez zen ama-hizkuntzan oinarritutakoa, makilaren eraginez eta zigorrez egokitua baizik. Hori bai, gela bakarrean, neskak eta mutilak, adin guztietakoak. Guztira 60 ikasle inguru, maistra bakarrarentzat. Beraz, txikitatik eskola mistoa ezagutu genuen, genero-diskriminaziorik gabekoa; garai hartan “aurreratu samarrak” izan ginen. Baina “eskola-porrota”, “pedagogia”, “psikologia”, “metodologia” eta antzeko hitzen esanahiak gerora ulertu genituen; 1956-1961 garai hartan, makila dantzatzea nahikoa izaten baitzuen irakasleak. Salbuepen gisa, dotrina euskeraz ematen zigun don Joan apaizak. Elizan, meza latinez izaten zen.

Fagollagako eskola, beseritik kilometro 1 erdi ingurura zegoen eta, noski, hara oinez joaten ginen bidean jolastuz, uztaiarekin askotan, egungo trafikorik ez baitzen izaten Goizuetara doan errepede horretan.

Bestalde, bertsozalea izan naiz betidanik, umetatik alegia, 1961 aldera zaletu bainintzen, Basarri eta Uztapideri entzunda Ereñotzuko San Antonio jaietan. Garaitsu hartan, Txirritaren bertsopaperak irakurtzen nituen, etxeko liburu zahar batean. Baita Pedro Mari Otañorenak, Xenpelarrenak eta Zapirainenak ere. Ereñotzu inguruan jaio, bizi eta hezi nintzenez, zalea izatea

ez da harritzekoa, bertsozaletasun handia baitzen, eta baita egun ere, “Uru-mea erreka” inguru hartan. Txabolategi, Txirrita, Saiburua, Hernani Txikia... gertu samar jaioak eta arrastoa utzitakoak izaki.

Gero, 11-13 urterekin (1961-1963 aldera), Hernanira (kalera) joaten nintzen, “partikular”, bizikletan, auzotik lau kilometrora zegoelako. Egunean bi ordu inguru, zerbait gehiago ikasteko asmoz. Aurrena, maistrarekin eta gero maisuarekin. Beste orduak, aitari edota anaiei zerbait laguntzen pasatzen nituen baserriko lanetan, astoarekin, gehienetan. Orduan konturatu nintzen gure mundua “kaletar” eta “baserritar” jendez osatua zegoela. Garai hartan baserritar-konplexua sentitu banuen ere, kaletarrek «casheros tontos» deitzen zigutelako baserritarroi, gerora harro sentitu izan naiz.

1963an, orduko EPOn (“Escuela Profesional Obrera”) hasi nintzen ofizio bat ikasteko asmoarekin; egungo Karmelo Labaka institutuan. Hastapeneko gehi hiru ikasturte; guztira lau urte.

1967ko ekainean, “Oficialía” amaitu nuen, delineaatzaile-espezialitatean. Jarraian lanean hasi nintzen (Eyher, Hernani), delineaatzaile moduan, Bulego Teknikoan; bost ordu goizez, astelehenetik larunbatera. Arratsaldez, “Maestría” ikastera beste bi urtez, eskola berean. Beraz, artean 16 urte nituen (17 betetzeke) lanean hasi nintzenean; hala ere, pribilegiatua sentitzen nintzen, senideak gazteago hasiak baitziren. Garai hartan, 14-15 urteko gaztetxoak lanean hastea normala zen. Gauzak asko aldatu dira orduz geroztik.

1969ko uztaillean, “Maestría” amaitu nuen, delineaatzaile espezialitatean eta lehengo empresan jarraitu nuen (Eyher, Andoainera joana zen ordurako). Egun osoz, bederatzi orduko lanaldian (astelehenetik ostiralera) eta larunbat goizean bost ordu. Larunbat arratsaldeak jai (“sábado inglés”). Oso aurreratuak ginen ordurako.

Garaitu hartan, bizikleta utzi eta anaiaren motoan hasi nintzen, gidabaimena 18 urterekin atera ondoren. Futbola ere utzi nuen, Hernani Txikin, jubencil mailan, atezain jokatu ondoren. Kirozalea banintzen ere, ez nuen handik etorkizunik ikusten.

1969ko irailean, Donostiako Amarako eskolan, Ingenieritza Teknikoa ikasten hasi nintzen gauzez (18:30-22:15), egunez bederatzi ordu lan egin eta gero. Nire eguneroko ibilbidea, anaia baten Vespa motoan lehenbizi, eta beste anaiaren Lambrettan geroago: Epele-Andoain-Epele (bazkaldu)-Andoain-Donostia-Epele (afaldu). Gero, ahal banuen, eskolako lanak egin edo ikasi; bestela, ohera (23.30etan, 24:00etan... edo ahal zenean). Hurrengo goizean

06:30ean jeiki eta beste egun berri bati ekiten nion. Horrela egunero; ez nuen aspertzeko betarik izaten; parrandarako ere ez. Hala ere, ez naiz inoiz damutu izan. Geroago konturatu nintzen nire bizitzan zein garrantzitsua izan zen ahalegin hura.

1973ko uztailean ikasketak amaitu (“Ingeniero Técnico Industrial, Especialidad Mecánica”) eta urrian soldaduska bukatu nuen Loiolan, hama-lau hilabete igaro ondoren Ejertzitoan. Azken hilabeteetan, goizez soldadu, etxean bazkaldu, arratsaldez Andoainera lanera joan eta gero Amarako eskolara joaten nintzen ikastera. Handik Loiolako kuartelera lotara, berandu, baimen bereziarekin. Gehienetan afaldu gabe, astirik ez bainuen izaten. Orain baino arinago nengoen eta sasoi betean. Abuztuan, kotxea (Morris 1.100) erosi nuen eta lanera eta kuartelera, azken bi hilabeteetan dotore asko joaten nintzen nire auto berriarekin. Ikasketak gainditu ondoren, neure buruari egindako oparia izan zen, neuk ordainduta; sei urte baneramatzan lanean eta eros nezakeen.

1975eko uztailaren 17an, Felicia Pulido-rekin ezkondu nintzen eta Errenterian bizi gara geroztik. Emaztea, Feli, Cáceres-en jaio zen 1952ko ekainean; 7 urte zituela, gurasoekin hona etorri eta Oiartzunen bizi izan ziren. Ikasketak bertan egin zituen, 15 urterekin lanean hasi zen arte; hilabete batzuk geroago aita hil zitzaion. Umetan, euskeraz ikasi omen zuen Oiartzunen, lanean hasi zenean galtzen joan arren. Geroztik hor dabil, erdizka, euskera ikasten edo ikasi nahian, baina hizkuntza ondo menderatu gabe, saiatu arren. Seme-alabak ditugu: Aitor (1976) eta Aloña (1981). Biloba bakarra: Mara (2009), Aitor eta Eneritzen alaba.

1985eko maiatzean, Andoaingo lantegia utzi nuen, ia 18 urtez lanean aritu ondoren eta Oiartzunen hasi nintzen, Bonak enpresak deituta, bere Bulego Teknikoan. Hemen, 25 urte aurtengo maiatzean bete ditut eta, amaitu zaigun 2010 urte beltz honetan krisialdiaren zurrunbiloak harrapatuta ia ito gaituenean, etorkizuna zalantzan daukat, beste askok bezalaxe. EREN (erregulazioan) nagoenez, beste lanen artean, liburu hau prestatzeko aprobetxatu dut, erretiroa hartzean egiteko asmoa banuen ere. Egoera honetan, lana aurreratutako egin dut. Gero gerokoak.

Atzera joanda, kaletar bihurtutako baserritarra, euskaldun peto-pettoa izanik, 1979an Orereta Ikastolan guraso bezala hasi orduko jabetu nintzen euskeraz, erraz eta ustez ondo hitz egin arren, idazten ez nuela ohiturarik eta behar adinako ezagutzarik; are gutxiago euskara batuan, garai hartako gehie-

nen antzera. Horrek lotsatu egin ninduen eta alfabetatze beharra sentiarazi. Ikasketa akademiko guztiak gazteleraz egin izanaren adierazle garbia zen. Gainera, ez nintzen letretakoa, zientzietakoa baizik; lanbidez ere bulegoan teknika lantzen nuen (makinak diseinatzen, planoen eta zenbakien artean egun osoa), gazteleraz idatziz, hitz egiteko euskera ahal nuen guztia erabili arren. Zerbait gehiago egin behar nuen. Letrak, gainera, gustuko nituen.

Ikastola munduaren eraginez eta nire kasa, autodidakta moduan egin-dako lanari esker, duintasunez idazteko gai sentitu nintzenean, modu apa-lean bederen, ausartu nintzen nire lehen bertso-sorta idaztera. Xabier Amurizaren 1981eko liburu sonatuak, "Hitzaren kirol nazionala" eta "Hitztegi errimatu", behin eta berriz irakurriak nituen ordurako.

Nire lehen bertso-sortak badu bere historia (1983-1984). Garai hartan, Orereta Ikastolako Gida Batzordean nenbilen, beste hainbat guraso bezala, bolondres. Eskualdeko ordezkari bezala, berriz, Gipuzkoako Ikastolen El-kartean (GIE edo "Federazioa") Talde Bateragileko partaidea nintzen (1982-1985). Nire orduko asmoa zen Kilometroak bizi nintzen herrira eramatea, Errenteriarra, eta ez nuen etsi hori lortu arte. Horrela, 1983an ideia landu, Gida Batzordeari proposatu (eta konbentzitu), eskaera egin eta GIEn gure aukera defendatzea egokitu zitzaidan, 1983 eta 1984 urteetan. 1983an, beranduegi genbiltzan; hala ere, lau eskaera zeuden eta bigarren gelditu ginen, Donostiaren atzetik; beraz, 1983an, Donostian egin zen. Baina, 1984 urte-rako bidea egina uzteko balio izan zuen. Horrela, 1984an Orereta Ikastolak antolatzea erabaki zen GIEko Talde Bateragilean. Hura poza! Errenterian, lehenengo aldiz, historiako zortzigarren edizioa zelarik. Gero, lan-taldea osatu zenean, antolakuntza barru-barrutik bizitzeko aukera izan nuen. Ilusio han-diz egindako lan neketsua bezain polita izan zen hura. Zoragarria!

Zaletasun handia, gogoia, antolatzen ari ginen "Kilometroak 84" hari pro-paganda egin nahia eta abar nahikoa izan ziren Xenpelar sarian lehen urra-tsa emateko. Banuen gaia, ondo ezagutzen nuena, gainera; beraz, hamabi bertso-ko sorta, zortziko txikian, ahal nuen modurik onenean egin eta lehia-ketara aurkeztu nuen. 1984ko udaberria zen.

114 bertso-sorta, 77 egilek aurkeztuak, azken lehiaketa bihurtutako Xenpelar Sarian. Xenpelar Etxeak antolatu zuen, Euskaltzaindiaren ardu-rapean. Sarituak, hurrenez hurren: Jesus Mari Mendizabal ("Etsipenarenak" sortarekin), Xabier Amuriza eta Pello Esnal. Beste parte-hartzaileen artean ere, izen ospetsu asko: Andoni Egaña, Rufino Iraola, Xabier Perez "Euzkitze",

Jon Sarasua, Imanol Lazkano, Txomin Garmendia, Joxe Mari Lertxundi, Joxe Mari Aranalde, Joxe Aierbe, Inozentzio Olea, Jesus Lete, Xanti Zabala "Lexo", Ernest Alkhat, Jean Pierre Mendiburu, Arantzazu Loidi... Guzti hauek saririk gabe, ni bezalaxe. Ezjakin bat izateko, ausart jokatu nuen, maila handiko jendeak parte hartu baitzuen.

Hurrengo urtean, 1985ean, liburu batean bilduta (CAP Jakin bilduma), 50 sorta inguru argitaratu zituen Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Priobintziak; erdiak baino gutxiago. Nire sorta kanpoan gelditu zen. Dezepzioa! «Ez ziren bertso onak izango», pentsatu nuen. Bertso onak izanda ere, horrelako mailako jendearekin jai neukan. Horrela ikasten da.

Hala ere, 1984ko udako igande batean, *El Diario Vasco* egunkarian argitaratu zuten nire sorta osoa, zutabe batean. Harrituta gelditu nintzen. Inoiz ez dut jakin nola iritsi ziren bertso haiek egunkarira. Suposatzen dut gaiarengatik izango zela.

Handik gutxira, sorta horretako bertso hautatu batzuekin, lan-taldeko marketing arloko kideen eraginez, "Kilometroak" abestia grabatu zuten, orduan herrian "Josu" denda zeukan Donato Larrañaga musikari ezagunaren laguntzarekin eta Orereta Ikastolako ikasleekin, sortutako musika-doinuari egokitzerakoan bertsoen testua pittin bat ukituta. Hori guztia, nirekin kontatu gabe; ez zidaten esan nahi izan dena bukatu arte. Ez zitzaidan burutik pasa ere egingo, bertso haiekin Kilometroen abestia egin zitekeenik, baina horrela izan zen. Nire lehen sortak, lehiaketan saririk lortu ez bazuen ere, abestiari letra jartzeko balio izatea nahikoa sari bazen niretzat. "Kilometroak 84" hura, aipatutako guztiagatik, oso berezia izan zen niretzat, asebeste ninduen ekintza. Ahaztezina.

Azken urteotako "Kilometroak", bai abesti mailan, nahiz antolakuntza arloan, ahal den neurrian behintzat, modu profesionalagoan egiten dira. XX. mendeko lan xumearen xarma ez baita nahikoa, XXI. mende sofistikatuago honetan arrakasta lortzeko. Marketing kontua da, orain asko zaintzen dena.

Erreterian, ezkonduz geroztik bizi naizen herrian, "I. Zapirain anaiak" bertso-paper-lehiaketa antolatu zuen 1989an, bi urte lehenago sortutako Xenpelar Bertso Eskolak. Lehiaketa honek, gerora, eragin handia izan du nire bertso-jartzaile ibilbidean. Nire lehen sorta 1984koa izanez, bost urte luze igaro arte, ez nuen bigarrena idatzi. Herrian ez nuen aukerarik izan, ez baitzen besterik antolatu, eta beste herrietan parte hartzeko motibazio eta gaitasun-falta sumatzen nituen. Herri mailan, apal-apal eta asmo handirik gabe

hasi nintzen, betelana eginez, baina neure buruari haxe ezarri nion: «Za-pirain anaiak lehiaketan, urtero parte hartu behar diat». Pentsatu eta egin; zintzo jokatzea gustatzen zait, neure buruarekin batez ere. 22 edizio haue-tan, 2010ekoa barne, etenaldirik gabeko parte-hartzaile bakarra izan nai-zela ziurta dezaket. Ez da meritua, erantzukizun kontua baizik. Izan dira bi eta hiru sorta bidalitako urteak ere. Urte batzuetan asko kostata, lanpetu-rik nenbilerako, baina hutsik egin gabe.

Bost urteko etenaldiaren ondoren, 1989an, nire bigarren bertso-sorta-ren gaia aukeratzekoan, ez nuen zailtasun berezirik izan. Laneko bidaiak bat-zuk tarteko, eta turismo apur bat eginga, Europako herrialde batzuetara iritsia nintzen ordurako: Frantzia (Paris...), Italia, Alemania, Holanda, Belgika, Portugal... Bestalde, Espainia eta Portugal garaitu hartan sartu ziren Eu-ropako Ekonomi Elkartean, dozena bat nazio osatuz. Nahikoa zen sorta bat osatzeko.

Aipamen berezia (akzesit) lortzeak, aurrera begira, animatu egin nin-duen. Orduz geroztik, serioago hartuta, etengabe ari naiz bertso-jartzaile moduan. Herrian hasi banintzen ere, eskualdean jarraitu nuen eta aspal-diko urteetan Euskal Herriko bertsopaper-lehiaketa askotara bidali ditut nire sortak eta horiek guztiak liburu honetan kronologikoki ordenatuak daude. Tartean badira sorta gutxi batzuk lehiaketetara bidali gabeak.

2000ko urriaz geroztik, Xenpelar Bertso Eskolako partaide naiz. Hasie-ran, helduen bertso jarrien taldean irakasle-lanetan aritu nintzen, bospasei urtez, bertsopaperei bultzada bat emateko helburuarekin; geroztik antolatzaile, gai-jartzaile, epaile... bezala nabil; batez ere herri mailan, azken urteotako Xen-pelar Sariak barne.

2007ko Gipuzkoako Txapelketan epaile-lanetan aritu nintzen, lehen fa-sean. Geroztik, lau urteotan, taldean jarraitzen dut, Tolosako egoitzan lehen, eta orain Villabonako Mintzolan egiten diren prestakuntza-saioetara joanez, 2011ko Txapelketaren atarian gauden honetan; maiatzean hasiko baita. Go-gotsu sentitzen naiz, gazteagoekin lan-taldean aritzea aberasgarria baita. Hala ere, jakin-minagatik gehiago da, epaitzeko gogoagatik baino. Epaile-lana ez da batere atsegina, astuna eta zaila baita ondo epaitzea. Esker txarreko lana da eta askotan sufritu egiten dut eta, nik behintzat, bertsolaritza goza-zeko ulertzen dut.

Azken hamarkada honetan Aitor, semea, bat-batean bertsotan ibilia da, gehienbat herri mailako ekintzetan, GR-5, GR-8, GR-12... eta "Hamaika ber-

tute”-ko saioetan. Gipuzkoako Txapelketan ere parte hartu zuen 1999an eta 2003an. Orain nahikoa utzia badauka ere, bertso-sortak idazten ditu; emaitza onekin gainera, sariak irabazten ari baita. Aita-semeak izateaz gain, bertsozale amorratuak ere bagara eta, horren eraginez, izugarri gozatu dut urteotan, bertsozaritza gehiago landuz. Gainera, gazteekin lanean aritzeko aukera bikaina izan dut. Gaur egungo bertsozaritza, orain 40-50 urtekoarekin konparatuz gero, beste maila batean dago, altuagoan noski, ordukoari meriturik kendu gabe. Kultura mailaren kontua da, neurri handi batean. Egungo bertsolari gazteek, gehientsuenak behintzat, unibertsitatean karrera ikasitakoak dira. Bertso-eskolen eragina ere nabaria da, teknika ikasita hasten baitira.

Esku artean duzun liburu xume hau, nire bizitzako azken 26 urteotan (1984-2010) sortu ditudan bertso-paperak biltzen dituen bilduma da. Ez du helburu berezirik; lana jasota uztea nahi nuen. Familiakoek eta lagunek irakurtzen badituzte bertsoak, nahikoa. Bertsozale batzuegana iristen bada, ondo. Askorengana iritsiz gero, hobeto. Gozatzeko balio badu, bikain. Kritikak ere onartuko nituzke, lan hau hobetzeko helburuarekin. Hemezortzi doinu desberdin erabilia jarritako 84 bertso-sortaz osatua dago. Eranskin moduan, beste bertso batzuk ere sartu ditut “Bertso Bereziak” atalean. Horien artean badira hiru bertso Txiki, Otaegi eta FRAPeko hiru kideei 1975ean jarriak, diktaduraren agindupean fusilatua izan baitziren, Franco hil baino ia bi hilabete lehenago. Horiek dira lan honetako bertsozik zaharrenak, orduz geroztik jasota neuzkanak.

Guztira 900 bertsoz osatua dago liburu hau. Konturatu gabe, gauzak dozenaka pilatu zaizkit, arrautzak bezala, hain biribilak ez badira ere: 75 dozena bertso, zazpi dozena bertso-sorta, dozena t´erdi doinu, bi dozena urte inguru sortzen, eta dozena pasatxo sari guztiak batuta. Beraz, dozenarekin hainbeste “poto” jarraian egin ondoren, gehiegi pentsatu gabe, izenburua asmatzea erraza da: DOZENAKA SORTUAK.

Errenteriako lehen Kilometroekin 1984an hasi eta “Kilometroak 2010” aurten ospatu dugu, mugak banatzen gaituen Lezon. Kaixo, Boxton! Hona bostekoa! Kilometroekin bukatzeko asmotan nenbilenean, 26 urteko ziklo bat bete ondoren, berri on bat heldu zitzaigun Txileko San Jose meategitik: langileak bizirik atera zituztenez, bertsoak jartzea erabaki nuen. Ondoren, Olan misiolaria, urrezko domina lortutako hernaniarra izanik, ezin utzi sorta eskaini gabe. Azkenik, abenduaren 4an berri triste bat iritsi zitzaigun: Xa-

bier Leteren heriotza. Berari eskaini diot liburu honetako azken bertso-sorta. Esker onez egindako lan xumea da, gehiago merezi bazuen ere, gure kulturaren alde murgildu baitzen abeslari eta poeta oiartzuarra.

Hemendik aurrera ere nire lantxoak egiten jarraitzeko asmoa dut, ez bainaiz aspertu oraindik, 60 urte beteak ditudan honetan.

Bukatzeko, aurrez eskerrak eman nahi dizkizut, irakurle, hona iristeko erakutsi duzun pazientziagatik eta akatsak barkatzen jakingo duzulakoan nago.

Errenteria-Oreretan, 2010eko abenduaren 30ean
Julian Albistur Aranburu, egilea

Sarrera

Hogeita sei bat urtez
bertso-sortak jarriz,
nire ahalegina da
doinuz eta neurriz;
irakurle, bazaude
gaur bertso egarriz
eta gozatuz gero
hauek irakurriz,
beste saio bat egin
nahiko nuke berriz.

Ibilbidean jarriak

Kilometroak 84 (1984)

Doinua: "Maritxu nora zoaz"

1

Xenpelar sarirako
hartu dut aztergai;
ez didate ezarri,
neuk aukeratu nahi;
adierazten ez dakit
izango naizen gai;
dena idatzi arte
ez bainago lasai.

2

Kilometroak zer den
lehen adierazi,
nahiz eta gehienak
lehendik ikusi;
aurten Errenterriak
omen du merezi;
iaz donostiarrek
zuten irabazi.

3

Ibiliai honek
badu bere funtsa:
ikastolak lortzea
behar dun laguntza.
Subentzioa nola
gelditzen den motza,
Kilometroak bidez
ikastola bultza.

4

Hirurogei bat mila
pertsona inguru,
ikastola ta euskara
izanik helburu.
Bide egokia den
ez nago seguru;
bestela nola lortu
behar aina diru?

5

Lehenengo Beasainen,
gero Zubietan;
hirugarren Azpeitin,
laugarren Tolosan.
Arrasaten, Hernanin;
iaz Donostin zan.
Aurten Errenteria
gutxigo ezin izan!

6

Prestatzen hasi dira;
horko eromena:
gestio ugari behar
lortzeko baimena.
Zirkuitua eginez
al den politena,
indarrak probatzeko
ahal den onena!

7

Antolatzaile denak
idei askorekin:
zerbitzuak, salmentak
eta kirolekin.
Non edan izango da
hainbat tabernekin,
bazkaltzeko elkartu
eta berriz ekin.

8

Urriaren zazpian
jo Errenterira,
euskaldun ta euskotar
elkartuko gera.
Hiritik atera ta
Añabitartera;
itzulera erraza:
dena gainbehera.

9

Euskal giroa sortuz
ekintza bikaina,
hori lortu nahiean
doa ahalegina;
horren bidez hobetuz
herri imajina,
Errenterik oraindik
badu jende fina.

10

Kezka sortzen duena
da eguraldia,
arrakasta bere esku
dagolako ia;
Jainkoari egiten
diot eskaria:
beste baterako utzi
mesedez euria.

11

Milioi ugaritara
doa aurrekontua,
gaizki irteten bada
nolako sustua;
eguraldiarekin
aukera estua,
udazkenean hobe
uda antzekua.

12

Urriaren zazpian,
data hau ez ahaztu,
egun zoragarri bat
dezagun ospatu.
Orereta Ikastolak
denok behar gaitu;
inguratzen direnak
eskertuko ditu.

1984ko udako igande batean, *El Diario Vasco* egunkarian argitaratutako sorta.

"Kilometroak" abestia grabatzeko bertso hauek aukeratu zituzten: 3, 5, 8 eta 12.

Hamabi izarrez osaturiko Europako Ekonomi Elkartea (1989)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Hogeita hamahiru urte,
ez nabil noski aparte,
sorreran sei nazio ziren da
gaur dozena bete.
Bake zale bazarete,
hau ongi entzun Elkartea:
Ez dut etsiko Euskal Herria
hor ikusi arte!

2

Frantzia lehen agurtu,
hemen dugulako gertu,
sekula baino indartsuago
baitzaigu agertu.
Bost mila franko elkartu,
sei badira ere hartu.
Paris aldera joanez gero
oso azkar urtu.

3

Joateko Italira,
Marsella aldetik tira,
bide horretan nahiz eta egon
ia mila bira.
Eraman milioi bat lira,
ta gosetxean mahaira:
babarrun faltan espagetiak
ongi sartzen dira!

4

Gustuko dunak zerbeza,
Alemanira jo beza!
Aparte samar egonagatik
nahiko erreza.
Bidean aldapa eza,
horixe da ta babeseta.
Hamaika ordu ez dira behar
hartuz "Mercedes"-a.

5

Izanez gero Holandan,
bisita itzazu Amsterdam,
La Haya, Haarlem, Utrecht, Eindhoven
edota Rotterdam.
Behiak larrean landan,
hegaztiak lasai hegan.
Bizikletan han jende ugari
maldik nola ez dan.

6

Hamar bat milioi pertsona,
Belgika bere izena,
Frantzi ondoan, itsas ertzean
aurkitzen duguna.
Bizitzeko leku ona,
hura da garbitasuna!
Han duten demokrazi apur bat
etor bedi hona!

7

Denetatik txikiena
ta ia aberatsena,
industriari ari da lanean
jende gehiena.
Luxenburgo du izena,
Nafarroaren laurdena,
hain txikia delako mapetan
ikusten ez dena.

8

Honek ere badu marka,
bere izena Danimarka,
Alemanitik gorago dago
Bremendik zeharka.
Ez daki zer den borroka,
han ez dabiltz elkar joka.
Gizarte mailan paregabea
hori ezin uka!

9

Britaniarrei begira,
hain bereziak baitira,
whiskya gustukoa baduzu
haruntz egin jira.
Ahal bada Eskozira,
ikusiz hango janzkera:
gizonezkoak gona jantzita
neskatxen antzera!

10

Oraintxe da honen txanda,
itsas erdian Irlanda.
Gerra zibil zital batengatik
zatitu zuten-da.
Geroztik bonbek eztanda:
gizarajoak etzanda!
Elbarrituak izan direnak
ezinikan senda.

11

Oraingoan dut auzia,
dago kulturaz josia,
badut gogoa, baina oraindik
ez dut ikusia.
Grekoak badu grazia,
ikasteko berezia.
Konturatuko zineten noski
dugula Grezia.

12

Ekonomiaz atzera,
beste gaietan antzera,
jende asko joaten da haruntz
merke erostera.
Gutxi ordainduz jatera,
ongi beteaz platera.
Portugal-etaz ari naizela
konturatu zera.

13

Buruhauste eta mina,
hemen baitugu Espaina.
Euskal Herriko politikoei
aukera bikaina:
Madrilen dantza mingaina,
hitzei hartuaz tamaina.
Herri bezala, nire ustetan
gera haiek aina!

14

Euskal Herriko izarra,
daukagu piztu beharra,
Estrasburgoko politikoei
entzun deiadarra:
Gera nazio bakarra,
Hegoalde ta Iparra.
Txiki, polita, jende jatorra,
gainera bizkorra!

1989ko "I. Zapirain anaiak" bertsopaper-lehiaketan (Erreterria) aipamen berezia (akzesit) lortutako bertsoak.

Euskaldun gazte bat Pertsiar Golkoko gerrara (1990)

Doinua: "Betroiarena"

1

Nahiz aldarrikatu
"intsumisioa",
badu nahi ez zuen
ofizioa.
Marinan zegolako
duen misioa:
Pertsikon Golkoraino
du eskurtsioa.
Mutila iaioa,
Hernanin jaioa,
izanik paioa,
bere "bizioa":
onargaitza duela
soluzioa.

2

Aitaren aholkua
zeharo kabala:
"Seme ez isuri hor
hire odola.
Militarrek berea
eman dezatela,
OTANetik atera
aguro bestela.
Misio ustela,
hori da pastela!
Gatazka dutela?
Guri zer axola!
Guda nahi duanak
jasan dezala".

3

"Emaztegaia haurdun
eta gatazkara,
korbetan sartu eta
Golko aldera.
Ez duk iritsi behar
gizonik hiltzera,
hobe ihes eginda
etorri etxera,
Gabon jaietara,
senide artera,
turroia jatera,
bakez bizitzera;
Jaioko den haur horri
irakastera".

4

"Hogei urte izanik
haiz oso gaztea
ta agertuko diat
neure ustea:
ez dik merezi hortxe
hezurak uztea,
saiatu hadi honuntz
azkar iristea.
Semea haztea,
sortuaz bestea,
hartuz emaztea,
hau duk gizartea,
nahiz sarritan izan
buruhaustea".

5

Oso hunkigarria
izan zen agurra,
anaitxoak galdezka:
“Non dago gerra?”
Aita malkoak eta
amaren negarra,
andregaiak muxuka
estutuz bularra.
Honen irrifarra,
emanez indarra,
zen oso ederra,
baina bai gogorra:
derrigorrez bidaia
egin beharra.

6

Konturatu gaitzen:
zertarako OTAN?
Badirudi oraindik
gaudela lotan,
ez zuten hau aipatu
hauteskundeetan,
ezetz esanik sartu
baigintuzten hortan,
da orain penetan,
une larri hontan;
beldurrez fragatan,
bat hil baita bertan,
emaitza ikusten da
kasu hauetan.

7

Gasolina behar da
petroleo eza,
horretzek sortua du
hor interesa.
Konpontzeko bidea
ez da ez erreza,
alferrikan baitira
erregu ta meza,
alferrik eliza;
Bushek amenaza:
gatazkara USA.
Europa jueza:
Irak Kuwaitetikan
bidali beza!

8

Txikia zera Kuwait
baina aberatsa:
petroleoz beterik
duzu baratza.
Indar ezak ordea
behar du laguntza,
bestela bakarrikan
alferrik zabiltza.
Eskasa defentsa,
etorkizun beltza
eta etsai latza,
baina esperantza.
Kulparik izan gabe
holako saltsa!

9

Lehen Iranen aurka
ta Kuwait segidan,
Irak gerra arloan
beti hor modan,
ez al da amilduko
horrelako maldan?
Galdera hau burura
etortzen zitzaidan;
buru dute Saddam,
beti dabil gudan;
nik gaur ez dut edan
baina nago dudan,
Napoleon berpiztu
egin ote dan.

10

Eguberri hauetan
baditugu lanak,
bakez ezin ospatu
denok Gabonak;
batez ere Pertsiko
aldean daudenak,
sendi arteko eta
beraien lagunak;
denoi: Zorionak!
barrutik irtenak.
Opari onenak
Errege egunak:
ea ekartzen ditun
albiste onak!

Bertso hauek 1990eko azaroan jarriak dira, Golkoko Gerra piztu ondoren.

Lehen Pertsiar Golkoko Gerra 1990-1991 bitartean Irakek, alde batetik, eta Nazio Erakundearen izenean Ameriketako Estatu Batuak buru zituen koalizioak, bestetik, burututako guda izan zen. Irakek Kuwait inbaditu ondoren sortua.

Tourrak errege euskalduna du: Migel Indurain (1991)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Gizon serio, apala,
Migel, ez zara makala;
atleta gorputz bikaina duzu:
altu ta argala.
Zaildua larru-azala,
txirrindulari bezala.
Indartsu zaudela erakutsi
duzu berehala.

2

Iaz zinen "gregario":
zuretzat Tourrak, adio;
Delgado luzitzeko bestek
hainbat kalbario.
Izerdi asko jario
eta mila zorabio:
Delgadoren aurretik Parisen
hiru arerio.

3

Garaipenik ez gaurdaino,
jarririk hainbat enpeino;
euskaldun garaile bakarra zu:
gaindituaz Bugno.
Galdos, Gabika, Loroño,
Lasa, "Peru" ta Otaño
oso txirrindulari trebeak
izan ziren baino.

4

Atarrabiko nafarra,
irabazi duzu Tourra;
geure histori osoan zara
oraingoz bakarra.
Euskal Herriko izarra,
txirrindulari azkarra,
zure azaina paregabea
aipatu beharra.

5

Ez zen, ez, erraza baina
lortua duzu azaina;
harriturikan utzi gaituzu
denok alajaina!
Nahiz izan gorputz liraina,
pisuak ezin engaina:
astuna zara, baina igotzen
zein nota bikaina.

6

Txirrinda gaineko dantza,
kontrolatuaz balantza:
hor ikusten da zuk daukazula
maisua baten antza.
Urtero zoaz gorantza,
jarraiturik aurrerantza:
berriz garaile zu ikusteko
badut esperantza.

7

Bi aldiz ekin bakarka
eta sekulako marka:
erlojupeko garaipen biak
beste denen aurka.
Ezin zenuenez barka,
zu zinelako monarka,
hasierako faboritoei
ongi joaz arpa.

8

Erretiratu zen Breukin,
bere ekipoarekin:
janari txarra ala droga zen
ez zen ziur jakin.
Zuk lanari ongi ekin,
lortuaz hainbat etekin:
ia beti ibili ondoren
onentxoenekin.

9

Lemond eta Fignon utzi,
zurekin zen Chiapucci,
Tourmalet-ean ihes eginik
berarekin jaitsi.
Besteek atzean etsi:
jarraitzea ez zen gutxi.
Pirineoko etapei esker
horiz zinen jantzi.

10

Hurrengoan Alpe d'Huez
mendia zenuen juez:
beste guztiak lur jota zeuden,
Bugno eta zu ez.
Zuk gorantz eginik ihes,
hark ezin jarraitu nekez:
irabaz zezan utzi zenion;
haren poza gauzez!

11

Parisen errege gero:
gu zai geunden egunero.
Tourra hasi aurretik hori ez
genuen espero.
Euskaldun gehienok bero,
ia nafar denak ero;
zaletuak asko gera eta,
saiatu urtero.

12

Indurain animatzera,
txalo beroak jotzera:
uztailean joan behar dugu
Donosti ertzera.
Iazkoaren antzera,
ez dadin geldu atzera:
Paristik horiz jantzirik etor
dadila etxera.

Bertso hauek 1991ko azaroan jarriak dira, Migel Indurainek uztailean bere lehenengo Tourra irabazi eta gero. Hurrengo urtekoa Donostian hasi zen.
Gauza jakina da Indurainek bost Tour jarraian irabazi zituela: 1991tik 1995era.

HIESari ihes

HIES: Hartutako Immuno Eskasiaren Sindromea (1991)

Doinua: "Betroiarena"

1

Urteotan badago
gaitza bat zakarra,
tamalez ari dena
hartzen indarra;
badakigu gaitza hau
ez dela zaharra,
atzerrian sortu zen
ez da ez nafarra.
Jende hil beharra,
emea ta arra,
jator ta makarra,
denak barra-barra;
sendatzeko ez du-ta
txerto bakarra.

2

Esan beharko zer den
HIES edo SIDA;
jendea hitz egiten
asko hasi da,
munduan sortu baitu
kristoren mugida,
sexu-harremanetan
du bere kabida.
Hain gaitz homizida:
drogaren segida,
ezin dute gida,
ez baitu kupida;
behin kutsatuz gero
ia lapida.

3

Agertu zela dira
dozena bat urte,
ez nabil, nere ustez,
oso aparte;
drogek ondorio hau
askotan dakarte,
nahiz ez konturatu
berandutu arte.
Zuzendu, gizarte,
dabilena dorpe,
ez hiltzeko merke,
ta ongi letorke,
xiringa gabe uztea
plaza ta parke.

4

Harrigarria birus
honen eragina,
bere kutsadura ez
da atsegina,
mundu zabal guztian
denentzat berdina,
noraino iritsiko den
ezin imajina.
Gogorra da, baina
sendatu ezina,
bada zer egina;
erronka bikaina:
ikerlariek saia
behar adina.

5

Gaixoturik daudenak
a zer panorama,
lagun iezaiezu,
zeruko Ama!
Gaitz honek oso bide
txarra baitarama:
ez du errespetatzen
diru edo fama,
hilez banan bana,
gizon eta dama;
horixe da zama,
familiko drama.
Txarrena, jaio aurrez
kutsatzen dana.

6

Amaren sabelean
umeak kondena
kulparik izan gabe
hori da pena!
Birus txar hori sartu
delako barrena,
jaio aurrez dauka-ta
mugatua dena:
bere iraupena,
indarra, kemena...
eta itxaropena.
Baduzu baimena:
hor bertan gelditzea
da hoberena.

7

Kutsatu berria da
gure Magic Johnson:
saskibaloia uztea
ona zeritzon,
kirolari artean
bera da juez on.
Lehendik HIESak hil
ditu hainbat gizon:
apaiza, Michael Son;
artistak Rock Hudson,
John Holmes, Charleson...
izanik hainbat son,
birus hau gainditzeko
behar da Sanson.

8

Sexu-harremanak hor
badu arriskua,
birus-transmisioa
du berezkua,
deskuidatuaz gero
nolako zirkua;
probatzekotan neska
gazte ta freskua,
entzun aholkua:
funda gomazkua,
estaliz "kukua",
bestela sustua;
edo pasa liteke
trantze estua.

Geure etxekoaren
antzekorik ezta:
andrearekin goxo
egin siesta.
Kontuz, etxetik kanpo,
nahi bada festa,
egokitzen denean
“txoria” gainezka:
baduzula neska,
nahiz berak eska,
hotel edo “spa”;
zertarako kezka?
HIES latzari ihes:
egizu ospa!

Aupa, Indurain! (1992)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Euskaldun guztion poza,
nafarrek nola ez goza?
hirugarrengo etapan lortuz
zuk maglia arrosa;
zuretzat hain aproposa,
hola hornituz, ponpoxa;
zu izan zara tropel barruan
Giroko larrosa.

2

Italiar denak aurka,
baina ez diezu barka,
paregabea izanik gero
jarri duzun marka;
zu izan zara monarka,
tropelean ta bakarka,
erraz gaudituz guztiak eta
ongi joaz arpa.

3

Ez da, ez, saiatu gutxi
zure aurka Chiappucci;
mendateetan eraso asko
baina ezin utzi;
bizkarrik ez erakutsi,
erritmorik ezin hautsi;
Migelek erraz erantzun eta
magliari eutsi.

4

Chioccioli eta Vona,
bikote hau oso ona,
zerbaitengatik daukate hauek
horrelako sona;
planteamendu sakona,
bat haruntz, bestea hona,
baina indartsu Atarrabian
jaio zen gizona.

5

Hor ziren Fignon, Herrera...
eskasa euren karrera,
lehen postutan igo ezinik
mendi tontorrera;
Indurain beti aurrera,
bikaina bere jarrera;
Donostian guk ezin berari
ukatu harrera.

6

Pordoi eta Campolongo,
igo zenituen ondo,
bagenekien zu hor lotan ez
zinela egongo;
guk entzun genuen bando
ez zeundela oso sendo,
beraz txapeldun ikus zintugun
egin gabe tongo.

7

Bi etapa irabazi,
beste sailkapen bat kasi,
lehen Giroa izateko zu
ongi zara hasi;
igotzen bikain ikasi,
gurpilak mugi arazi,
zu eserita, besteak zutik,
badu hainbat grazi.

8

Laurogei kilo inguru,
gorputz, hanka eta buru,
metro bat eta laurogeita sei,
ez nago seguru;
garaipena zuk helburu,
hainbat eraso kopuru
jasanagatik ez duzu pasa
zuk mila apuru.

9

Karrera guztian saia,
laguntzeko hor anaia,
artaldearen txakurra bera
eta zu artzaia;
itxuraz oso lasaia,
bete duzu gure nahia.
Ekainean guk ospatu dugu
San Ferminen jaia.

10

Magliaren kolorea,
gorputzean dotorea,
zuk hemeretzi egunez jantzi
a zer ohorea,
erakutsiz adorea,
ez da ximurtu lorea
iaz Frantzian lizentziatu,
aurten doktorea.

11

Azken etapan agurra,
hori da hori egurra,
Chiapucciri ez zaio joan
oraindik beldurra;
kopeta zeukan zimurra,
zuretzat baitzen gailurra,
aurten Giroan erregea zu,
prestatuaz Tourra.

12

Nolako abiadura,
izugarria zen hura:
berrogeitamar pasatxoa zen
azken abentura;
etapa ere zakura,
Giroa zeure eskura,
karrera erraz irabaziaz
txapeldun modura.

Marino gure enbaxadorea (1992)

Doinua: "Iparragirre abila dela"

1

Apirilaren hamabia zen,
telebistatik ahotsa,
ta bat-batean jarri zitzaigun
guri gorputza hain hotza;
ia geldi bihotza,
entzutean Zornotza
eta zure erorketa:
istripu latz bat izan arren
osorik duzu kopeta.

2

Igandea zen, eguerdiko
hamabiak inguruan,
Autzaganeko jaitsiera nik
oraindik daukat buruan;
zuk modu seguruan
ustez jaitsi zenduan,
baina erori lurrera;
ezbehar horren ondorioaz
amaitu behar karrera.

3

Jaioterria ezaguna da
baina aipatzen dut berriz:
Bizkaia aldeko herri jator bat
izena duena Berriz;
bizkaitarra sorterriz
eta euskalduna gerriz,
buru, hanka ta bihotzez;
atzerrian zu ez zara ibiltzen
Euskal Herriaren lotzez.

4

Apaltasunez ezin hobea,
txirrindulari bikaina;
harrokeririk ere burura
ez zaizu igo alajaina!
goi mailan zeunden baina
ez gaitezen engaina,
hain zara gizon jatorra;
giza mailan zuk gainditu duzu
Tourmaletaren tontorra.

5

Txirrindulari orekatua,
igotzen oso trebea,
aspaldi hontan ez da Bizkaian
izan beste bat hobea.
Bizitzaren legea,
gogorra da ordea,
sortuz gero istripua;
euskaldun denok tristerik gaude
eta herren ekipua.

6

Hogeitamabost urte beteak
ohe gainean etzanda,
lanbidearen arriskua da:
oraingoan zure txanda.
Plangintza bat martxan da:
egunero Artxanda,
mendira igotzen saia,
karrera gehio irabazteko
iritsiko da garaia.

7

Espainiako itzuli hortan
zure falta nabarmena,
ongi egonik ikusiko zen
zure indar eta kementa;
Rominger hor onena,
zuen zure baimena
karrera irabazteko;
horiz jantzirik bukatu zuen
zu ez gauza-ta janzteko.

8

Gehiegizkoak izan zitezkeen
aurtengo Tour eta Giro,
ongi egonik zurekin aurten
hor ez zen izango giro;
podiora berriro,
Italian zu igo
eta Indurain txapeldun;
ez zen, ez, txantxa izango hori:
elkarrekin bi euskaldun.

9

Leku guztitan hain maitatua
zu, Marino Lejarreta,
zaletu asko erreperidera
eta nolako arreta;
gazte eta zahar eta
jator eta "porreta"
edota baserritarra;
ikusten denez, denok daukagu
idolo baten beharra.

10

Anatomiaz eta izaeraz
euskaldun prototipoa,
gutxi hitz egin, asko eginez,
da horrelako tipoa;
nortasun haundikoa,
ze pena, badijoa!
Agertu du adorea;
bera izan baita urte hauetan
gure enbaxadorea.

Kilometroak gogoratzuz (1992)

Doinua: "Esne saltzailearena"

1

Ideaia xelebrea,
jendearen farra,
jendearen farra;
oinez ibili eta
ordaindu beharra;
haseran esan zuten:
hi, ez jo adarra!,
baina asmatzailea
zen gizon azkarra;
gaizki ateraz gero,
berotu bizkarra!

2

Beasain alde hortan
norbaiti burura,
norbaiti burura,
etorri zitzaion ta
sortu zen mundura;
lehen KILOMETROAK
beraien ardura,
Ikastolaren alde
baitzen diru hura.
Horrelaxe hasi zen
hango abentura.

3

Zubieta ingurun
gero bigarrena,
gero bigarrena;
Azpeiti bikain hortan
izan zen hurrena;
laugarrena genuen
Tolosan barrena;
berebilak matxura,
hori zen txarrena.
A zer umorea nik
gero nekarrena!

4

Bosgarren hura joan
zen Arrasatera,
zen Arrasatera;
egun hortan ez ginen
etxetik atera,
familian bazkalduz
guztiok batera;
ez dakit luzetxo
ote zen irtera
edota huts xamarra
zegoen kartera.

5

Seigarren edizio
hori ezin utzi,
hori ezin utzi;
jaioterria izanik,
nik aitzaki gutxi;
Hernanira joanez
kotxerik ez hautsi
eta gainera behar
nion erakutsi:
hor ez naiz bizi baina
ez zaitut ahantzi.

6

Donostiak bazuen
hainbat kategori,
hainbat kategori;
KILOMETROAK gabe
ezin utzi hori;
Urgull-en izerdi-pats,
nengoenez lodi
eta irristakadaz
lurrera erori;
errosarioa han
bertan San Pedrori.

7

Ordubietan jeiki,
ez nuen gosaldu,
ez nuen gosaldu;
hamaiketako orduan
ez nintzen azaldu;
bostak inguru hortan
eginik bazkaldu,
ez zen Erreterian
nintzelako galdu;
antolatzaile-lanak
sei libra argaldu.

8

Zumarraga, Urretxu,
gainera Legazpi,
gainera Legazpi,
bederatzigarrena
antolatzen aski.
Debako Itziarren
guk hainbat argazki,
egun ederra pasa,
itzulera gaizki;
zirkuitoan bost ordu
ta bidaiari zazpi.

9

Laurogeita zazpian
zoragarri Zarautz!,
zoragarri Zarautz!
Klarisei eskeinuta
dozena bat arrautz.
Hurrera irundarrei
ezin ba egin huts,
motiboik nola eman
agertzeko zaputz;
muga inguruen biziz,
direzako "giputz".

10

Hamahirugarren hura
eman behar bati,
eman behar bati;
ados jarri ziren ta
izan zen Oñati.
Eguraldiz Andoain
zegoen kezkatu,
Usabiagak "ona"
zuen erabaki;
gero ia uholdeak,
berak ongi daki.

11

Batzuk irribarrezka,
besteek algara,
besteek algara;
iazko horretan jo
behar Bergarara;
oiartzuarrek berriz
zeukaten dardara,
galdezka: "Noiz demontre
ote doa hara?
Hogeita bost urteak
ospatzear gara!".

12

Beraz, Oiartzunen da
aurten gure zita,
aurten gure zita;
urriaren lauean
egizu bisita;
jende jator ugari
ta herri polita,
saiatu eramaten
ama eta aita,
seme-alabak ere,
Ikastola baita.

Zorionak, Haurtzaro! (1992)

Doinua: "Betroiarena"

1

Oiartzungo Haurtzaro
Ikastola zera;
herrikoa izan zen
zure sorrera;
geroztik ongi bete
duzenez papera,
urteotan mantendu
helburu berbera:
hezitzeko era,
izanik euskera,
eraman aurrera,
gurdi eta lera;
guraso ta irakasle
denak batera.

2

Zorionez etorri
zinen zu mundura,
Oiartzunek merezi
zuen modura;
herriarekin beti
izanez lotura,
euskeraz hezitzea
betiko ardura.
Une gogor hura
datorkit burura;
jasan diktadura
ta gure kultura
eramaten saiatu
bere lekura.

3

Herrian nabari da
zure eragina,
uka ezin liteken
egi gordina;
Ikastolarik gabe
ezin imajina,
Oiartzun izatea
gaur herri berdina.
Euskera bikaina,
joskera apaina,
betidanik, baina,
ez gaitetz engaina:
zu gabe ez litzake
hain atsegina!

4

Lehen hogeita bostak
bete badituzu,
berrogeita hamarrera
beste bi pausu.
Zorionak, Haurtzaro!,
merezi baituzu;
eskerrik asko zuei,
andereño-maisu,
laguntzaile sutsu,
denetik daukazu,
ez da inor kexu;
denei bina muxu.
Egun zoriontsuan
jaio zinen zu!

5

Ikastolak haserre
ta harro Hezkuntza,
eskasa izanikan
diru-laguntza.
Hau da orain asmatu
duten berrikuntza:
diru gutxiren truke
zabaldu hizkuntza.
Buesaren dantza
zuzendu, Ardantza;
ez goaz gorantza,
baina esperantza,
lorategitik kenduz
gero arantza.

6

Publikoa ez omen
dugu Ikastola,
berotzen zait zeharo
neri odola;
herriak sortu zuen,
badakigu nola:
guztiok murgildurik
ta ez edonola.
Gaur gatazkan hola,
ados ez inola,
hain garbi dagola
hor erdal eskola
horrekin sartu nahi
diguten gola.

7

Ikastolak izan du
hemen arrakasta,
begiratu bestela
hainbat inkesta.
Publikoak erdi-huts,
Hezkuntzaren kezka;
Ikastoletan berriz
ikaslez gainezka,
mutil eta neska
doaz harrapazka;
gurasoek eska,
badira mordoxka;
euskeraz hezitzea,
hor dago kokka!

8

Ikastolak ez al du
merezi babesa?
Irakurtzen dugunez
ez da erreza.
Hezkuntza Sailburuak
duen interesa:
euskera baztertu ta
ikasi ingelesa.
Bide aldrebesa,
gaitasunik eza;
gainera jueza,
Fernando Buesa.
Bihar baino hobe gaur
Saila utz beza!

Aurten Kilometroak
Oiartzun aldera,
urriaren lauean
goaz horrera;
hogeita bost urteak
ospatzeko era,
Euskal Herri osoa
elkartuz batera.
Autopista bera,
zirkuito ertzera,
ez geldi atzera,
kotxez goiz atera;
garrantzitsua da-ta
hartu kartera!

San Simon eguneko amesgaiztoa (1992)

Doinua: "Maitasuna da bizi izateko"

1

Ez naiz askotan joaten baina
Alemanira bidaiia;
taxi hartu ta Biarritzera,
bidean utziz Hendaia;
Airbus batean Pariseraino,
oso hegaldi lasaia.
Gero Fokker-en garaia,
ta berak eman dit gaia: (bis)
hegazkineko gertakizuna
esplikatzan nahi dut saia.
Urtebetetze-eguna nuen,
baina ez oso alaia. (bis)

2

Parisetikan Hannoverera,
hor hasi zen abentura;
bi helizeko hegazkin horrek
sei mila metro altura;
egia esan, nik ez nekien
nola zeukan egitura...
Agian falta ohitura,
ta kezka ugari burura; (bis)
nire ustetan, asko mugitzen
zen hegazkin txiki hura:
bi ordukoa zen bidaiia ta
gainera neukan logura... (bis)

3

*Handik gutxira, hego bakarrez,
hor zihoan egazkina;
bestea galdu, ez dakit nola
ta pilotatu ezina,
alfer-alferrik bihurturikan
motor baten eragina.
Beldurrak kendu zotina,
ta ezin da imajina, (bis)
zein azkar egin nuen nik behintzat
kontzientzi etsamina;
errezatzeko gogoia eta
ia ahaztua dotrina... (bis)*

4

*Pekaturikan ez dut gogoan,
agian bai mila akats;
bakezale naiz, ez dut inor hil,
lanean aritu naiz latz;
familia nik jarria baitut
nire bizitzaren ardatz.
Ni askotan nabil narrats,
sendia agertzeko aratz. (bis)
Bi hamarkada t' erdi lanean,
diruz ez nago aberats;
kale gorrian bizi naiz eta
ez baserri ta ez baratz... (bis)*

5

Senar bezala konpromezurik
oraindik ez dut hautsi;
sexua dohain dabilenean,
ez du, ez, balio gutxi.
Nire lilura ta amets guztiak
orain zergatikan suntsi?
Hegazkin txar honi eutsi,
Jauna, honela ez jautsi. (bis)
Seme-alabei gauza ugari
behar diet erakutsi.
Berrogeita bi urte gaur ditut,
mesedez, hiltzen ez utzi! (bis)

6

Oso momentu hunkigarriak,
negarra eta garrasi;
abioi hura beherantz zihoan...
esperantzarik ez kasi;
zer sentitzen den une horretan
ezin da adierazi.
Minutuk kontatzen hasi;
gogoeta denak nahasi; (bis)
ezin ukatu gauza berri bat
egin nuela ikasi:
heriotzarik ezin onartu,
nahiz ta zerua irabazi. (bis)

7

Hodei zuriak pasa ondoren,
oso gertu nuen lurra;
ezin esplikatu momentu hartan
sentitzen nuen beldurra.
Familiari idatzi nahirik,
trantzean azken agurra;
epea nuen laburra,
ta ez zen gauza samurra; (bis)
ezker eskuan zerbait idatzi,
malkoz bustia sudurra...
Emaztea ta seme-alabak,
a zer nolako egurra! (bis)

8

Justu-justu hau idatzi nuen:
emaztearen izena;
hiru silaba ditu ta ezin,
amaiturik abizena;
seme-alabak aipatu nahi ta,
nik sentitzen nuen pena.
Falta zitzaidan kemena,
galduta ikusirik dena. (bis)
Oraindik nire beharra eta
zein gertu nuen azkena!
Hain gutxi falta niri hiltzeko...
gehienez ordu-laurdena. (bis)

9

Hegazkin horrek lur jo zuen ta
izugarrizko zarata;
lehertu ondoren... esnatu nintzen,
amets txar bat zen hura-ta.
Niri begira jende guztia
ta irrifarrez azafata:
alaia bait zen mulata.
Falta zitzaidan zapata, (bis)
larrialdian galdu zuena,
hanketikan aterata.
Izerditan blai eta eskerrak
ez nuen jantzi gorbata. (bis)

10

Iritsi ginen aireportura,
amaitu baitzen siesta;
Fokker-a bikain lurreratu zen
eta nik ezin protesta.
Hark bi hegoak osorik zeuzkan,
begiraturik sahieska.
Desagertuz nire kezka,
pozez nengoen gainezka. (bis)
Ene Jainkoa, esna nago ta
hauxe behar dizut eska:
San Simonetan ez errepika
niri horrelako festa. (bis)

11

Orain hobeto pentsatuz ia
mila pekatu inguru;
larrialdian ezin gogora,
paseaz hainbat apuru;
zaila izaten da holakoetan
jakitea buruz buru.
Entzunez hainbat aburu,
eta ez naiz txoriburu; (bis)
zer den pekatu, egia esan,
gaur ni ez nago seguru...
Berriz dotrina ikasi behar,
erosiaz bi liburu. (bis)

Gurasoen urrezko ezteiak (1993)

Doinua: "Maitasuna da bizi izateko"

1

Gizarte honek ezkonduentzat
bete beharrak baditu:
seme-alabak sortu ta hezi,
familia ugaritu...
Aita ta ama urte askotan
horretan dira aritu.
Eginaz hainbat meritu,
biok nola ez saritu! (bis)
Urrezko eztei hauek dizkie
gaur Jainkoak oparitu.
Sendia pozez dagoela gaur
ez al duzue aditu? (bis)

2

Zuen maitasun fruituak hemen:
hiru seme ta alaba;
beraz, famili jarraitzaileak
laurok izango gara, ba.
Hasi gaitezen orain ematen
urte hauei begirada;
benetan gaurko parada
nire ustez egokia da. (bis)
Azkar baitoa, uste gabean,
bizitzaren abiada
ta gurasoen bizitzaz gaude
konturatu gabe jada! (bis)

3

Ama maitea, zure kasua
izan da txit berezia:
Leaburuko herrian jaio,
gero Hernanin hezia.
Jaio ta laister umezurtz zeunden:
hura zure aulezia!
Guraso gabe hazia,
bada nahiko desgrazia. (bis)
Jaso ez arren erein zenuen
maitasunaren hazia.
Zuregandik guk oraindik, ama,
badugu zer ikasia. (bis)

4

Aita, zu ere goraiatzeko
badut motibo garbia,
zeren apalki garraiatuaz
famiariaren gurdia,
gizalegeak bete dituzu
isuriaz izerdia.
Gaur gaueko ilargia,
zuretaz ipurtargia. (bis)
Glaukomak itsu bihurtu arren
galdu gabe ausardia:
ilun bizirik nola daukazu
zuk hain adimen argia? (bis)



Gurasoei opariak banatzen



Gurasoak dantzariekin

5

Gerra ondoren ezkondu eta
etxe-jabetza helburu;
maizter-bizitza orduan ere
ez zegoen hain seguru.
Baserri zaharra eta lur sailak
hamar mila duro inguru.
Hainbeste diru kopuru
elkartzen nahiko apuru. (bis)
Barregarria sortzen du baina
pentsa besterik ez dugu:
gaur bostehun pezta ta orduko bat
parekatzen baditugu. (bis)

6

Alde batetik fabrika eta
bestetikan baserria,
berdintsu ziren zuentzat beti
hilbete ta hilberria;
sega ta lera edo aitzurra
ongi astinduz gerria;
batzuetan luberria
edo beste sail berria. (bis)
Behi denak jetzi, artoa erein
edo hil behar txerria...
Ostegunetan ferira pozez
bisitatuaz herria. (bis)

7

Zuen bizitza gogorra izan da,
baina ez zaitezte lotsa;
hasieratik gose urteak...
ta diktadura zorrotza;
eta agintzen, oro har behintzat,
zeharo jende arrotza.
Jasan behar negu hotza,
ia leherturik bihotza. (bis)
Berandu, baina iritsi zaigu
demokraziaren hotsa.
Iraunkorra izan dedila behintzat
nahiz ta ez izan pagotxa. (bis)

8

Berrogeita hamar urte asko da
jarriaz gero begira;
ezkontza asko joaten dira
lehenago amildegira;
bizpahiru urte, kasu askotan,
gaur egun nahikoak dira.
Bester batzuek erdira,
iritsi ezin sikira. (bis)
Sexu-praktikak eginez gero
gaur gazteentzat aski da;
balio gutxi dauka, ordea,
hondatzen bada segida. (bis)

Mila zorion, eskerrik asko
orain, aita eta ama;
izugarria iruditzen zait
zuek egindako lana.
Ta orain lasai bizi zaitezte,
arindu zaizue zama.
San Antoniorengana,
mezu bat dut eramana. (bis)
Urte askotan zuek zaintzea
da eskatu diodana,
eta bihotzez har ezazue
orain besarkada bana! (bis)

Bertso hauek 1993ko ekainean jarriak dira, gurasoen urrezko ezteiak zirela-eta, 1943an ezkondu baitziren, gerra ondorengo gosetean.

1993a oso urte gogorra (1993)

Doinua: "Maitasuna da bizi izateko"

1

Oso gogorra izango dela
hasi berri den urtea;
hau da tamalez sarritan guri
eman diguten partea.
Iaz Expo ta Olinpiadak;
aurten, berriz, lehortea.
Non duzu estandartea,
Europako Elkartea? (bis)
Zure babesaren espero eta
hauxe da gure zortea:
langabeziak ia ito du
orain gure gizartea. (bis)

2

Arrantzaleek darabilkite
horrenbeste iskanbila;
arauak bete behar dituzte,
arazoak dira mila:
beti badute pisu kontua
sare edo itsas milla.
Joanik soldata bila,
itsas ertzeko mutila; (bis)
gaur itsasoak aurkezten dio
Europaren maratila;
lur jota utziz moralki eta
izpirituz berriz hila. (bis)

3

Baserritarrek beren lanean
jarriz hainbat borondate,
azken boladan, egia esan,
martxa txarra daramate,
eta oraintxe Europa honek
eman die erremate.
Lanean ariz jo ta ke,
gero hainbeste atake; (bis)
esne gehiegi dago ta merke
saldu beharra daukate;
jende guztia yogurt janez ta
hau nork ulertu lezake? (bis)

4

Industri mailan, zer esanik ez,
hauxe da egi gordina;
izugarrizko krisialdia,
hamarkadako haundina;
fabriken keak ez du estaltzen
egungo zeru urdina.
Altzairu edo burdina,
paper-fabrikan berdina; (bis)
eta haundia nola izaten den
hemen hauen eragina:
tailer ttikiak lur jota daude;
falta zaie zeregina! (bis)

5

Tabernan eta harategian
edota arropa-dendan,
ongi dakite hil bukaera
gaur zein luze egiten dan:
patrikak diruz arinago ta
zordun gahiago zerrendan.
Kulpa ez dakit norengan
nik bota beharko dedan. (bis)
Denok nahi dugu ongi janztea,
onetik jan eta edan...
Baina komerik izaten dira,
soldata baitoa hegan. (bis)

6

Langabezia nagusitu da,
asko gizendurik INEM;
martxa honetan gauza on asko
ez dugu, noski, izanen;
gainbehera doa Eukal Herria;
zer gertatu zaigu hemen?
Estatuko buru ginen,
izanik hainbat aipamen. (bis)
Altxa dezagun azkar burua,
badugu-ta hainbat kemen...
Hamabost urte beharko dira,
berriro jartzeko lehenen. (bis)

7

Aduanako jendeak ere
langabezia ugari;ta;
muga kentzeak, ikusten denez,
gauza txar bat oparitu;
Irun aldeko jende askotxo
hortxe lanean aritu...
“Gordo”-k ez ditu saritu,
nahiz ta lan faltak zauritu. (bis)
Euskadirentzat muga hau tranpa
beti zaigu iruditu:
zeren hemen lau herrialde ta
haruntz beste hiru ditu. (bis)

8

Entzun, Udala, Foru Aldundi
eta Eusko Jaurlaritza:
politikari kaxkar gehiegi
ta falta da gidaritza.
Eta PSOEn Gobernu hori
euskaldunon zorigaitza.
Iritsi zaigu ekaitza,
astinduz gure bizitza. (bis)
Zergak igo ta berriak sortu
eta hauxe da emaitza:
politikoek aberastea
da gaurko solidaritza. (bis)

9

Funtzionari gehiegi dago,
esaten dut aurpegira;
harrigarria iruditzen zait
jarriaz gero begira:
maisua ta maistra berdintsu eta
haur kopurua erdira.
Ertzainak mordo bat dira;
hobe erdiak balira. (bis)
Martxa honetan joango gara
gu erraz amildegira:
lantegi asko desagertu ta
zergak berriz ilargira. (bis)

10

Enpresariak ere badute
hemen zeresan ugari
ta kulpak ezin zaizkio bota
desagertu den mugari.
Krisialdia gainditzekotan
gogor beharko da ari;
beldurrik gabe dudari.
Bihur ditzagun gidari: (bis)
lanpostu gehio sortu ditzaten
beharra dago nabari;
urte gutxitan lortu dezagun
dirudiena mirari. (bis)

11

Sindikatuak ere oraintxe
egin behar deiadarra;
egoera hau larria izanik,
dukagu esan beharra.
Noizbehinka maila zerbait jaistea
ez da izaten hain txarra.
Ez erabili indarra,
aukera baita bakarra: (bis)
lantoki denak mantentzen saia;
sortu da nahiko negarra...
langabeziko mamu horretzek
aski jo du ta adarra. (bis)

1992an, Bartzelonako Joko Olinpiko sonatuak jokatu eta Sevillako Erakusketa Unibertsalaren ondoren, krisialdi latza sortu zen, eta 1994 arte edo iraun zuen. Bertso-sorta hau 1993ko martxoan jarria da eta orduko egoera deskribatzen du.

Ez nago ados, Udala (1993)

Doinua: "Maitasuna da bizi izateko"

1

Maiatzan zuten epea eta
hain zuzen hogeita bosta,
Ikastolentzat luzaezina
nahiz ibili ozta-ozta.
"Publiko" hori saldu nahiean
Hezkuntza kosta ahala kosta.
Batzuek zeuden ados ta
besteekin ezin josta. (bis)
Ikastola asko itota zeuden,
lasaxeago mordoska.
Publiko edo pribatu izan...
horretan zegoen koska. (bis)

2

Murriztu zuten aukeraketa
hiru Sareetatik bira,
Ikastolak lehen zeuden Sarea
bidaliz amildegira;
erabakia latza genuen
jarriaz gero begira.
Legeak aldatzen dira
ezker edo eskubira. (bis)
Sortu zenetik hogeita hamar
urte askotxo baitira...
Arrisku gutxi duen Sarera
Oreretak zuen tira. (bis)

3

Aukera ona egin genuen,
denbora dugu lekuko,
baina Ikastola diruaren truk
ez dugu erraz salduko.
Geroztik egin dio Udalak
lehengo laguntzari uko...
Ez ote da ohartuko?
Ez du kontuan hartuko (bis)
euskarak galtzen duela eta
ez dugula onartuko?
Alkate jaunak nonbait euskaraz
ez du ongi ulertuko. (bis)

4

Ez naiz harritzen PSOErekin;
lotsagarri EAJ.
EUE ta EA: antzeko zerbait
beharko dizuet bota.
Azken hirurok euren botoez
ni utzi naute lur jota.
Estrategia edota
Oreretaren porrota? (bis)
Esaidazue zer nahi duzuen
kezka betetik nago-ta,
abertzaleak Ikastolarik
ezin du-eta gorrota. (bis)

5

Abertzaleoi botu eske ta
gero makurtu beharra.
Pribatuaren aitzaki hori
ez al da merke samarra?
Entzute hutsak nire barnean
sortarazten du negarra.
Egin genuen batzarra...
eta emaitza bakarra: (bis)
Pribatu gisa jarraitzea da
txit erabaki azkarra,
Buesak zuen egitasmoa
iruditurik kaskarra. (bis)

6

Hirurogeita hiru ilun hartan
sortu zinduten mundura.
Ene Ikastola, une latz haiek
datozkit berriz burura:
mila oztopo gainditu behar...
izugarritzko ardura.
Lehen jasan diktadura,
orain beste abentura: (bis)
sigla gehiegik hautsi baitute
garai hartako lotura.
Hala ere nik ez dut onartzen
gure Udalaren postura. (bis)

7

Gaur egun ere mila ta laurehun
ikasle inguru ditu,
ta hogeita hamar urte hauetan
fin da lanean aritu.
Alkate jauna, zinegotziak,
mesedez, ongi aditu:
nahiz zuei ez iruditu,
badu nahikoa meritu. (bis)
Beraz, laguntza hori ez kendu,
ezta ere ere erdibitu,
euskaraz berdin hezitzen baitu
nahiz ta pribatu gelditu. (bis)

8

Alkate jauna, erabakiak
izan du hainbat oihartzun.
Oreretaren beharrei diruz
ez diezu nahi erantzun.
Gaurtik aurrera jakin nahi nuke
ze borondate dakartzun.
Nola inguruan dituzun,
Pasaia eta Oiartzun: (bis)
Lizeon galde laguntzik duten
ta Haurtzarok zer diotsun.
Biok pribatu gelditu dira,
nahi baldin baduzu entzun. (bis)

Batetik kendu lehengo laguntza
 ta bestetik igo zerga:
 gurasook gaur badaramagu
 bizkarrean nahiko karga.
 Oraindik ere ez dut ulertzen
 eta jakin nahi dut: zer da?
 Agintarien juerga
 edo indarraren berba? (bis)
 Izugarritzko krisialdian
 horrelako lan eskerga.
 Hauteskundeetan ez dizuet nik
 behintzat emanago kuerda. (bis)

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak (Fernando Buesa jauna Sailburu zen garaian), legedia aldatu ondoren, 3. Sarea (Ikastolena) kendu eta "Publikoan" edo "Pribatuan" sartzeko aukera eskaini zien Ikastolei.

Ikastolen sare propioa desagertzeak istilu gogorrek sortu zituen zenbait Ikastolatan. Orereta Ikastolak "Pribatuan" gelditzea erabaki zuen eta, ondorioz, Errenteriako Udalaren jarrera, nire ustez, oso gogorra eta desegokia izan zen, diru-laguntza kendu baitzion.

1993an jarritako sorta honetan, hori deskribatzen da. Hainbeste urte pasa eta gero, pentsa liteke bertso gogorrek direla Udalarekiko, bereziki alderdi abertzaleei egindako kritika, baina uste dut ondo merezitakoa izan zela. Oso mindua sentitu bainintzen.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (1994)

Doinua: "Betroiarena"

1

Aurten ere egin dut
nire Aitorpena,
Pertsona Fisikoen
Errentarena.
Hau da udaberriko
gauzarik txarrena:
derrigorrez urtero
egin behar dena.
Mantenduz ordena,
aitorpen gardena;
errenta laurdena
kendu didatena...
Nonbait gutxi da eta
kendu nahi dena!

2

Betetzen hasi eta
lehenengo galdera,
zeren aukeratzeko
daude bi era:
banaka egin edo
bestela batera?
Aurretik behar dira
gutxi gorabehera
kontuak atera:
ez da zerga bera!
Ni nire aukera
noa esatera:
«Hobeto irten dena
nire aldera!»

3

Inprimakiarekin
lehenengo sustuak;
etekinak: osoak
ta murriztuak...
Motzak gelditzen dira
aukeran gastuak:
urtean zehar galdu
edota ahaztuak;
paperak nahastuak
eta erraustuak.
Dardarka eskuak,
zein trantze estuak!
Zergatik izan behar
dugu justuak?

4

Gastu kengarri eta
etekin garbia;
ez dakit hau dagoen
oso argia!
Haundiagoa balitz
nire ausardia,
hemen jarriko nuke
errenta erdia.
Tantaka izerdia,
falta pikardia;
dirudit ardia,
hain naiz kobardia!
Arriskutsua baita
takikardia.

5

Kalkulatu beharra
kuota osoa;
eskerrak hori neukan
hain erosoia:
iazko taula ongi
bainuen jasoia;
zerbait ikasi dut ja,
ez naiz inozoa.
Lehenengo pausoa
eta arazoa:
gertu dut plazoa.
Gero erasoia:
«Haziendak sortzen du
enbarazoa!».

6

Beste orrialdean
hainbeste kenkari,
seme-alabenak hor
daude nabari.
Amagiarrebarena
aztertzen naiz ari:
alargun-pentsioa
galdetuz berari.
Aukerak ugari,
egon behar adi.
Seme, joan hadi,
esan optika-ri:
«Faktura bat mesedez
egin, Mirari».

7

Etxebizitzarena
ere hor dago ta...
baina jakin behar da
mailegu mota.
Eskerrak ez nituen
paper denak bota
eta gordea neukan
hor iazko nota.
Behar da axota...
algebra edota...
uzten du lur jota,
edozein pasota.
Mingotsa da zenbaki
hauen konpota!

8

Oraingo kuota hau
dugu likidoa;
hurrengo emaitza da
negatiboa.
Pozik egon ninteke,
badut motiboa:
kontrol denak pasata
Aldundira doa.
Sartu dut zangoa,
dirudit mandoa.
Aholku sendoa,
ez da lehenengoa:
zuzen bete dezadan
nik hurrengoa.

San Joan bezpera da,
nabil ozta-ozta,
nahiz justu ibiltzea
niri ez gusta.
Udan sartu orduko
iritsi zait uzta:
itzultzen dizkidate
ehun mila pezta!
Gauza txarra ezta
ospatzeko festa,
amaiturik kezka.
Andre, mutil, neska...
«Haziendan kontura
aurten langosta!».

Nazka ematen du! (1994)

Doinua: "Maitasuna da bizi izateko"

1

Penagarriak izaten dira
egunkari-albisteak:
ezkorrak ia beti, tamalez,
bai batek ala besteak.
Normalki ez du merezi ere
goizean goiz erosteak:
kenduaz gero txisteak,
beste gehienak tristeak. (bis)
Ez du gogorik ere ematen
ia irakurtzen hasteak.
Horixe pentsa arazten baitu
lehen orria ikusteak. (bis)

2

Europa aldean gaur bizi dugu
egoera berezia:
krisialdiak zigortu gaitu
haundituz langabezia.
Bosnian berriz gatazka latza:
hau da bere desgrazia.
Nazismoaren hasia,
berriz indartzen hasia... (bis)
Errusiako giroa ere
dago zeharo nahasia:
berez gogorra izaten baita
gosezko demokrazia. (bis)

3

Eta Afrika beldurgarrian
beltza dute panorama;
betidanik han gogorra izanik,
gaur bide latza darama:
somialarrak goseak hiltzen,
falta baitzaie zer jana.
Gero Ruandako drama,
etsenplutzat Gitarama: (bis)
hildako hutu ta tutsi hoiek
igoitzu zerura, Ama:
euren pekatu haundiena da
larruazal beltzarana. (bis)

4

Hegoafrikak ezagutu du
demokraziaren hotsa.
Egia esan, hori lortzeko
ez du egin bidai motza:
hirurehun urte baino gehiago
agintzen jende arrotza.
Mandelak bere ahotsa:
zuzena bezain zorrotza; (bis)
berandu baina entzun ondoren
beltzak ezin dira lotsa.
"Apartheid" horrek lehertzen baitzien
orain artean bihotza. (bis)

5

Ez dago ongi banatua, ez,
mundu hontako pastela,
beti harreman politikoa
izan delako ustela.
Desoreka hau nola demontre
sortu daiteke bestela?
Iparraldean okela,
bete ondoren sakela. (bis)
Hegoaldean jaio denari
tokatu zaio epela:
miseri latza jasan beharra
iritsi arte eskela. (bis)

6

Oraintsu hemen sentitua dut
amorruzko sentipena;
jakina baitut Legebiltzarrak
Haziendei zor diena,
egin arazten digutenean
Errentaren Aitorpena.
Nik, derrigorrez, zuzena,
atxikia baitut dena. (bis)
Parlamentari jaun hauek, berriz,
dietekin nahi dutena...
Iruditzen zait aurtengo hauxe
niretzat dela azkena. (bis)

7

Estatu mailan hasten bagara
arazoak dira mila:
korrupzioak zikindu baitu
horrelako jende pila.
Politikari, agintariak...
militar eta zibila:
badago jende abila,
lapurretan diru bila. (bis)
Rubiok, Condek eta Roldanek
merezi dute makila.
Dukearentzat, Lorena hobe:
erdibitzeko zakila. (bis)

8

Bahiketa ta sexu gordina,
bortxakeri, erailketa...
Xenofobia ere indartzen
eta ez da berriketa.
Ohizko dira egun, tamalez,
hainbat delitu moeta.
Irunen berriz maleta,
gorpu batekin beteta... (bis)
Jokaera hau ez da normala;
merezi du azterketa.
Diru-krisia baino gehiago
baloreena da-eta. (bis)

Zatiketak (1994)

Doinua: "Maitasuna da bizi izateko"

1

Orain hogeita bost bat urteko
gauzak datozkit burura,
garai hartako euskaldunontzat
zorigaitza baitzen hura.
Frankismoaren azken urteak:
amaitzear diktadura.
Erreakzio modura,
sortzen zitzaigun lilura. (bis)
Amesturiko demokraziak
ekarri digun "kultura":
desagertu da Francoren aurka
izan genuen lotura. (bis)

2

Errepresio-garai haietan
askatasuna amestu;
gazte ginenak sistema hura
ezin genuen babestu.
Herria izanik gure ardatza,
Euskal Herrian sinestu;
nahiz bizi larri ta estu,
gora Euskadi! abestu. (bis)
Belaunaldi bat pasa ondoren
haxe ezin dut mirestu,
ametsak egi bihurtu gabe,
egon arren gure esku. (bis)

3

Osatzen dugun herri txikia
egin zaigu mila zati;
alderdi asko, sigla gehiegi,
burua nahasteko bati;
noiznahi berri bat sortzeko ere
badira mila aitzaki.
Nonbait gu, euskal gizaki,
arraro samarra izaki. (bis)
Esna gaitzen guztiok azkar,
etsaiak ongi baitaki:
gu lozorroan gauden artean,
berak nahi du erabaki. (bis)

4

Elkarren aurka galtzen ditugu
geure indarrak, tamalez,
normalki ezin gainera neurtu
gauzak juizio kabalez.
Itsutu gara ta nola ikusi
guk ikuspegi zabalez?
Mukizu borroka, kalez...
eta morroi ta eskalez, (bis)
hornitu dute Parlamentua;
bikain dabilta jornamez!
Gure arazo geu gara hemen,
ez da Felipe Gonzalez. (bis)

5

Beste batzuek armen kiratsez
pozoindu dute airea;
nire ustetan, oker dabilta,
galdurik norabidea;
ukaezina baita bizitza;
lehenengo eskubidea.
Lagun eta senidea,
defenda leike idea: (bis)
baina odolik isuri gabe
jorratu beste bidea.
Izan daiteke abertzale ta
demokraten partaidea. (bis)

6

Zerbaitek lotu badu herri hau
hori izan da Ikastola;
nola ez zuen bada lotuko,
izanik geure eskola
ideologi desberdineko
euskaltzaleon etxola?
Sartu nahi ziguten gola,
gainera ez edonola: (bis)
“publiko” edo “pribatu” izan
ez omen zion axola;
baina ez dira berdinak Euskal
Eskola ta espainola. (bis)

7

Hogeita hamar urte ondoren,
iritsi zenean uzta...
fruitu arbola ebaki eta
egin ziguten bi puska.
Gure lkastolak zatitze hutsak
arrisku gehiegi dauzka.
Eta ematen du nazka:
gure mutil eta neska; (bis)
politikari kaxkarren esku...
sortuko ez du ba kezka?
Hainbeste urteko lanaren ordain
ez dira nahiko bi pezta! (bis)

8

Sortuz geroztik bloke bat zena
bihurtu dute herrena;
ekonomiak erabaki du
eta hori da txarrena.
Kontu justua eta zuzena
da matematikarena:
bat zati hiru, herena;
bat zati lau da laurdena. (bis)
Eta emaitza txikitzen doa...
nik ez dut esango dena.
Bakarrik hauxe adierazi:
nire bihotzeko pena! (bis)

Nire alaba bezala maite zintudan

Garazi (1995)

Doinua: "Maitasuna da bizi izateko"

1

Negu hotz baten amaiera zen
martxoaren hamazazpi;
bi hamarkada igaro arren
gogoan dut ongi aski:
metro erdiko elurra eta
zuriak hainbat sagasti;
motelak mila hegazti;
ta auzoan Miren gaizki. (bis)
Haurtxo berri bat sortzear eta
ez genuen hainbat asti:
sendagileak «joan ezina»
erantzun zuen zehazki. (bis)

2

Egia esan, larrialdian
ardurik ez nuen gura,
baina Mirenek nonbait presaka
zekarren haurra mundura;
medikurik ez, senarra urrun...
neuk hartu behar ardura.
Sortu zuen harridura,
xelebrea baitzen hura! (bis)
Gure ikuiluan lortu nuen nik
ginekologi "kultura";
atzeko azken jaio zen haurra,
huraxe zen abentura! (bis)

3

Lehendik bost mutil jarraian eta
oraingoan, berriz, neska;
Mirenek nonbait horixe zion
goiko Jainkoari eska.
Adinez gora zihoan eta
etxeko lanez gainezka;
desagertuz bere kezka,
pozez eragin sehaska. (bis)
Gerora lanak ongi ta azkar,
ez gaur bezala lardaska;
bazuen zeinek oheak egin
eta garbitu arraska. (bis)

4

Beste etxean pozaren pozez,
aita, ama ta amona;
mutilak, berriz, harro zebiltzan
arriba zelako ona;
noiznahi opari-eguna zuten:
zapatak, soineku, gona...
Noizbehinka nire txanpona
eta harreman sakona. (bis)
Neska lanean azkar hasi zen;
hura zen ezin egona!
Eskolan ere oso bizkorra,
ikasle onaren sona. (bis)

5

Hamasei urte bete orduko,
etorkizunaren bila;
baserria utziz, neskametzara,
horretan baitzen abila.
Ama gaixoak, jakin orduko,
egin zuen negar pila;
aitak, astinduz makila:
«Zintzoa izan zedila». (bis)
Zorrotz agindu zizkion hori
ta antzeko beste mila.
Burua makur, negar-malkotan
agurtu zen neskatila. (bis)

6

Donostiako etxe batean
lanean zitzaian hasi;
famili ona topatu eta
soldata bat irabazi;
lehen baserrian ohitua eta
han lan gutxiegi, kasi:
ez baratza ta ez sasi,
pozik zebilen Garazi! (bis)
Ordu libreak aprobetxatuz,
zerbait nahi zuen ikasi,
etorkizuna hobetu nahiak
jakinmina sortarazi. (bis)

7

Hiru edo lau urte pasata,
Donostiara irtera;
aspaldi hartan etxetik ia
ni ez bainintzen atera;
zinemarako txartela hartuz,
ireki nuen kartera;
eta ia bat-batera,
atzetik entzun galdera. (bis)
Jira orduko, zein izango ta,
hantxe Garazi berbera;
ahotsa zerbait aldatu arren,
betidaniko euskera. (bis)

8

Senargaia zen han berarekin
agurtu nuen gaztea:
tipo arraro, oso argala
ta begirada tristea;
harrigarria halako neska
berarekin ikustea;
gauza bat edo bestea,
nahi bai lanean hastea. (bis)
Ez karrera ta ez ofizio,
nahikoa buruhaustea;
hain etorkizun ilunarekin,
nola hartu emaztea? (bis)

9

Neska gaixoa haurdun zegoen,
hori jakin nuen gero;
epe batean kezka ugari,
izango zuen hilero;
mutila, berriz, soldaduskara,
ta biak, noski, soltero.
Aita, haserre ta ero;
amak ez zuen espero, (bis)
baina alaba ongi ulertuz,
babesa eskaini bero:
«Gaur egun hori ez da pekatu,
elkar maitatu ezker». (bis)

10

Lau hilabete igaro gabe
oso albiste zorrotza:
bere mutilak SIDA zuela,
neskarengana ahotsa;
jakin orduko hor gelditu zen
burruntzi bat bezain hotza.
Bere aitak zuen lotsa;
amari lehertu bihotza. (bis)
Drogarengatik kutsatu eta
HIES horrek heriotza:
bizitzarekin ordaindu behar
drogarekiko morrontza. (bis)

11

Neska gaixoa hor gelditu da
haurdun bikoterik gabe;
une gogorrek pasez egin da
egoera horren jabe;
bera ere hor, kutsaturikan,
aurkitzen omen da grabe,
lagun zuenaren pare...
Ta gazte honen mirabe: (bis)
sendagilerik ospetsuenak
alfer-alferrik dirade.
HIES gaiztoak sortu dizkio
hainbeste kalamidade! (bis)

12

Zure bizitzaz kezkatutikan
sendagile denak dudan,
baina maitasun fruitua izanik
alaba jaiotzen da udan;
jaiotzen zu hil, alabatxoa
eskerrak sano sortu dan!
Goian, zeruko alturan,
konfidantza izan gudan: (bis)
«Osaba-izebak jaioberria
heziko dugu, ez gudan;
nire alaba bat bezalaxe,
Garazi, maite zintudan!». (bis)

Pedagogia zaharra (1995)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Lau hamarkadatik gora...
azkar baitoa denbora!
Ume garaiko oroitzapenak
datozkit gogora:
galtzak eta alkandora
petatxuz betez sorora...
Sei urte arte etxetik irten
gabea inora.

2

Goizez eta arratsean,
beti euskeraz etxean;
ama-hizkuntza galerazia
eskolaratzean.
Han gaztelera hutsean:
espainola zen, funtsean...
Gure mundua desberdina zen
gelara sartzean.

3

"Impuesto" guretzat zerga;
ulertezina zen berba:
gure soroko belarra berriz
gaztelera "hierba";
sokaren izena "cuerta";
berdinak kaka ta "mierda"...
Ama-hizkuntzan ez hezitzea
kulturalki zer da?

4


«En el río, una barca...»
pentsatuz zela abarka.
Leku askotan gertatu al da
horrelako marka?
Hura ere ezin barka...
maistra alua, ausarta;
gaur ikusita ezingo nuke
kalean besarka.

5

Diktaketan: «Si ves la res...»
idatzi nuen "belarrez".
Zaila zitzaidan bereiztea ta
nengoen negarrez.
Noizbehinka, halabeharrez,
zerbait ulertzean farrez:
«Cabo de Gata en Almería...»
ganbara katarrez.

6

Nota onekin, zigorra:
oporretan artajorra;
belarra ondu ta ikuilutik
atera simaurra.
Eskola bezain gogorra,
jaiez gurdi iniztorra¹.
Jolastu gabe leher egina
mutiko bizkorra.



Maixabel, arreba, eta Julian, egilea 1959an

7

“Jesusenean” zen zita;
behi susarekin bisita:
sexua zer zen ohartu nintzen
zezena ikusita.
Eskemak guztiz hautsita!
Baina pentsatzen hasita...
«Gu bi hankeko zezenak gaituk...
galtzak erantzita».

8

Oso argi neukan “gauza”:
ernaldu baitzen behi susa.
Bederatzi bat hilabetera:
txahal bat, urruxa.
Gero konparatze hutsa
nik burutik ezin uxa:
«Halabeharrez ez duk gizendu
auzoko Jexuxa».

9

San Martin aldera hotza;
hil behar txerri ordotza:
lepotik sartu gakoa, gero
labana zorrotza.
Hango garrasien hotsa,
amaituz bizitza motza.
Oso gogorra zen lau hankeko
zerri-heriotza.

10

Txerria erretzen bero;
kanalez ireki gero:
anatomia han ikasterik
ez nuen espero.
Bihotza, gibela edo...
beste hainbeste jenero.
Gero odolki, urdai, lukainka,
ia egunero.

OHARRA:

¹ Hernani, Urnieta, Astigarraga eta inguruetakoko herrietan “iniztorra” garoari edo iratzeari deitzen zaio.

Hiroshima eta Nagasaki 1945

Mururoa 1995 (1995)

Doinua: "Maitasuna da bizi izateko"

1

Mussolini ta Hitler gaindituz,
aliatuen etsaia,
Japonia zen amerikarrei
lehen emana jipoia:
Pearl Harbour-ko eraso hartan
agertuz bere sasoia.
Baina mendeku garaia
zen abuztuaren seia; (bis)
berrogeita bosgarren urteko
udak, nuklear usaia;
bost hamarkada pasa ondoren
esplikatzan nahi dut saia. (bis)

2

Fisikariek, urte askotan
ikertuz buru-belarri,
nuklear bonba asmatu eta
militarren esku jarri;
nahiz eta jakin ez zezakeela
gauza onikan ekarri.
Baina gerta ohi da sarri
izorratzea elkarri. (bis)
Arma berriak berez ezin du
inoiz bakerik ezarri,
justizia hor ez baldin bada
bakearen ezaugarri. (bis)

3

Lau mila kilo pisuko bonba
"Enola Gay"-ra igota,
hegazkinetik hiri erdira,
lehergailu hura bota;
hamar bat mila metro beherago
leherturik lurra jota.
Nuklearra zen errota:
Hiroshimaren porrota. (bis)
Amerikarrek japoniarrei
bonba atomikoa opa,
horrek amaituz Bigarren Mundu
Gerratearen borroka. (bis)

4

Zortziak eta laurden aldera,
goizean goiz hango zita;
bonbaketari amerikarrak
puntu-puntu bita;
airean azkar ihes eginik,
bonba erortzen utzita...
Gero, hiria hautsita;
hil ez zirenak, etsita...(bis)
milaka gorpu errauts eginik;
elbarrituak, antsika.
Truman jaunaren erabakia;
gaia: nuklear fisika. (bis)

5

Hiroshimako bonba gaiztoa,
nonbait gutxitxo izaki;
abuztuaren bederatzian
erasotu Nagasaki;
plutoniozko bonbak eztanda,
gera zutela aitzaki.
Giza arnasak ebaki,
Japoniak ongi daki! (bis)
Uranio ta plutonioak
gera zuten erabaki;
sei urte luzez agintariek
ez zutena hitzebaki. (bis)

6

Bonben emaitza beldurgarria:
berrehun mila persona hil;
bereizi gabe aiton-amonak,
zahar-gazte, neska-mutil.
Bizirik irten ziren askotxok
heriotza zuten hurbil:
minbiziak jota, zurbil.
Imajinatu Txernobil! (bis)
Isotopoen eraginez gaur
jendea gaizki badabil...
Berrogeita hamar urte igaro
eta ezin bizi trankil! (bis)

7

Oraintsu, berriz, Pazifikoan
hondatu dute giroa;
nuklear saio frantziarrek
jendea dabil beroa.
Presidentea, Chirac jaun hori,
ez ote da saltseroa?
Baldin badago eroa:
psikiatren bezeroa. (bis)
Eskubiderik ez du inori
baldintzatzeko geroa
eta nuklear kutsurik gabe
utzi beza Mururoa!!! (bis)

8

Erradioaktibo materiala
ezin da ia kontrola;
fisikak bere legeak ditu,
aldaezinak inola,
zeren berdintsu jarraitzen baitu,
iharduera edonola;
ezin da eta isola,
nahiz ta ezarri kaiola. (bis)
Gaur agintari kaskar batzuei
ez zaie asko axola;
ahaztua nonbait japoniarrek
isuri zuten odola. (bis)

Krisiaren amaiera (1996)

Doinua: "Iparragirre abila dela"

1

Krisialdia joan da eta
ez bedi itzuli hona,
urte hauetan probatu dugu,
izan delako sakona;
ez pentsa denik broma,
ez baita izan ona:
langile asko kalera;
familietan arazo latzak
eta denontzat galera.

2

Enpresa ugari lan gutxirekin,
beste asko desagertu;
langabezia jende gehiegi,
edo hortik oso gertu;
ekonomia lehertu
eta ezin ulertu,
ustez ondo zijoanez,
politikoez hitz asko baina
urri zebiltzan kemenez.

3

Ehuneko hoge ta bost inguru
langile langabezian,
eskualdean ia horrera
iritsi ziren krisian;
dirua eskasian,
hain krisi berezian,
zorrak ordaintzeko lanak;
pikutaraino joaten dira
horrelakoetan planak.

4

Eskerrak aurre egin zitzaion
bi urte pasa ta gero,
albiste txarrak izaten ziren
hemen ia egunero;
sortuz hainbat endredo,
ez genuen espero
iazkoan gainditzea;
amaitu dela esaten dute;
ez nuke nahi itzultzea.

5

Krisialdiak erakusten du,
beraz badakit gaur egun,
ez dela inoiz komenigarri
bera izatea lagun;
hobe lanean jardun
eta esan dezagun:
«Ez krisi berririk opa;
horretarako ez genuen nahi
batzen gaituen Europa».

6

Ekonomia gorantz hasi da,
beraz krisiari aio,
bizpahiru urte pasa ondoren
agur esan behar zaio;
industria, garraio...
beste aro bat jaio:
joan dadila hobera,
latzak pasata heldu da hona
krisiaren amaiera.

Bertso-sorta hau 1996ko urtarrilekoa da.

Motelgailuz josiak (1996)

Doinua: "Betroiarena"

1

Kotxea utzi behar
dugu gaur etxean,
bestela jartzen gara
mala letxean;
asmatu dute eta
hor Udaletxean,
autoa astintzeko
aurre ta atzean,
astindu latzean,
goizez ta arratsean:
gurpilak baltsean.
Sistema funtsean
RESALTO diskoa da
bide ertzean.

2

Galtzaraborda, Beraun;
berdintsu Pontika...
Agustinetan ere
nahiko kritika.
Nazional batean
gero errepika!
Herria zatiturik;
bideak zatika.
Gaurko politika,
txarra den botika;
sortuz ika-mika,
galduta etika.
Herri zerbitzariak
guri harrika!

3

Edonor jartzen dute
gaur ingeniero;
teknikaz eskas baina
sakela bero.
Horrela gauza onik
ezin da espero
eta autoz ibili
behar egunero...
Tailerren bezero
izan behar gero
gurpilen bat edo...
puskatu ezkerro.
Herri-agintariak
dauzkagu ero.

4

Saltoka ibiltzeko
leku aproposa,
egin daiteke eta
hor moto-krosa;
umeez patinekin
dezakete goza;
gidarion zigorra,
gaztetxoan poza.
Horrelako losa,
galipotaz osa;
kosta hainbat sosa...
Herri baten lotsa:
gure diruarekin
sortu kaosa.

5

Alkate jauna, entzun:
«Ponga usted orden»;
jasan behar al dugu
hainbat desorden?
Jakingo duzu eta
erantzule nor den:
garunetik ez dauka
gramo baten laurden.
Azaltzeko lerdan,
joka behar garden,
noizbehinka bederen.
Gaur non bizi garen?
Errenteria orain
da Baden-Baden.

6

Aipatu didate nor
den arduraduna:
gizon txiki ta itsusi,
biboteduna.
Zinegotzia baina
ez gizon kuttuna;
ez da euskaltzalea,
ez da euskalduna;
beraz, erdalduna.
Baina ezaguna:
alkate laguna,
mingaina leguna...
Salatu beharko dut
bere jarduna.

7

Amortiguadoreak
hondatzen badira,
Udaletxera egin
beharko bira
eta agintariei
deskargatu hira:
motelgailurik gabe
motelduko dira.
Zentzudun balira,
zertxobait sikira,
hilabete bira
baietz erretira.
Hobeto bada epe
horren erdira.

8

Edo bestela ez dut
zerga ordainduko;
zerga garesti horri
eginez uko.
Eta herri osoa
jartzen dut lekuko:
motelgailu hauekin
ez naiz motelduko;
ez naiz isilduko,
ez naiz umilduko,
ez naiz amilduko
ta ez naiz salduko,
baina ordainduko dut
kendu orduko.

Euskeraz bizi eta gaztelera hezi. Tortura hura ez genuen merezi (1997)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Argazki zahar baten bila,
igaro dut otsaila;
armairu eta kajoi miatzen
naiz oso abila.
Bizitzaren maratila
eta oritzapen pila,
argazki hortan jasoak daude
ta ager dadila!

2

Kartazalean itxia,
hain dokumentu bitxia;
auskalo noiztik zegoen hantxe
gordeta utzia.
Badu zer erakutsia,
ez baitzegoen hautsia;
gaur ikusita, egia esan,
dirudi kurtsia.

3

Berrogei urtetik gora...
azkar pasa da denbora!
Garai hartako gauza ugari
datorkit gogora.
Petatxuzko alkandora,
anaiaren kazadora...
Gauzak aldatu dira ordutik
gaurko haurtzarora!

4

Gure lehenengo eskola,
ez zen izan ikastola;
garai haietan ez zutelako
onartzen inola.
Heziketa espainola,
eta esango dut nola:
kanta araziz "Cara al sol", ez
"Gernikako Arbola".

5

Kanpoaldean bandera,
gorri-horia gainera;
gela barruan argazki zaharra:
zen Franco berbera.
Mintzatzeko gaztelera,
bakarra gure aukera.
Ama-hizkuntza kontutan hartuz,
heziak ez gera.

6

Gogo onez ezin ekin,
orduan sei urterekin:
han kastilanoz hitz egin behar
nahiz ezer ez jakin!
Hizkuntza arrotzarekin,
lortzeko nahiko etekin,
"A" ereduan hezi gintuzten,
makil motzarekin.



Fagollagako Eskola Publikoa
1956-1957 ikasturtea



1956-1957 ikasturtea
Jeremias, anaia (9 urte), eta Julian, egilea (6 urte)

7

Hizkuntzaren eraginez,
sarritan buruko minez;
dotrinan ongi moldatzen ginen
euskeraz eginez.
Errosoaioa latinez,
hitzak ulertu ezinez.
Hiru hizkuntza erabili ta
bat ongi jakin ez!

8

Eskolak gela bakarra;
ikasleak barra-barra:
batek mukia zintzilik eta
besteak puzkarra...
Maistra genuen zakarra:
matrailean atzaparra;
diktaduraren pedagogia:
umeen negarra.

9

Berrogeita hemeretzi;
ia ezin da sinetsi;
hogeita hamaika mutilak eta
neskak ho(ge)ita zortzi.
Nola zitekeen onetsi?
Pedagogoen ez etsi,
irakaskuntza hobetzekotan
bihar edo etzi.

10

Ereñotzu eta Latxe;
Fagollagakoak hantxe;
Lastaola ta Epeletarrak
gogoan oraintxe.
Ikasteko "a", "b", "c", "ch",
"d", "e", "f", "g" ta "h",
zailtasun asko genituen guk,
mekaguen la letxe!

11

Argazkia da lekuko
eta nik ez dut salduko;
ttikitan jasan genuenari
ezin egin uko.
Epele-Ereñotzuko,
denek dute sinestuko:
hor galerazi zuten hizkuntza
ez dugu ahaztuko.

12

Herri zahar honen kultura,
hizkuntza eta ohitura,
galtzeko aina indartsu ez zen
izan diktadura.
Genozidio-saio hura
berriaz nik ez nuke gura,
eta ez bedi inoiz itzuli
gure ingurura!

1997ko "VI. Joxe Legarreta" bertso-paper-lehiaketan (Ereñotzu, Hernani)
2. saria lortutako bertsoak.

Bizitzak aurrera darrai (1997)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Berrogeita zazpi urte
ez ditut oso aparte,
eta urteek sasoi honetan
kezka badakarte.
Egia esan gaur arte
izan dut nahikoa zorte,
eta berdintsu jarraitu nahi dut:
osasunez fuerte.

2

Goizean goiz bulegora;
han erakutsi ganora;
eguerdian azkar bazkalduz:
justua denbora.
Arratsaldeko saiora,
teknikarien ondora...
Zurrunbiloak narama baina
jakin gabe nora.

3

Lanetik etxera heldu
eta jarraian afaldu;
urte askotan ezin izan dut
ohitura hau galdu.
Lanak egin nau zapaldu;
eskubiderik ba al du?
Diruaren truk neure bizitza
ez nuke nahi saldu.

4

Ile zuritze azkarra,
berdintsu dago bizarra,
eta okertzen hasia daukat
gainera bizkarra.
Miopia oso zaharra:
betaurrekoen beharra.
Apetitua, beti bezala,
daukadan bakarra.

5

Urte hauetako plana:
familia eta lana;
bi ardatz hauek marraztu dute
nire iragana.
Astuna izan da zama,
bizkarrean eramana.
Lana zertxobait mugatzea da
orain nahi dudana.

6

Donostiako partean,
eta hain zuzen Pakean,
emakumezko sendagilea,
nire ezustean.
Dena ukitzen hastean,
batean eta bestean...
txekeo ona egin zidan bai,
joan den astean.

7

Altu dabil tentsioa,
beraz, dut dibertsioa;
lan-dinamikak handitzen baitit
odol-presioa.
Horregatik sesioa:
utzi behar bizioa.
Bestela oso zail kobratzeko
gero pentsioa.

8

Ez dago gaizki glukosa
eta ematen du poza;
azido uriko, behar bezala;
zertarako lotsa?
Bizitza nahi nuke goza;
adina dut aproposa.
Badaezpada zaindu beharko
dut nire bihotza.

9

Sendagilearen seta,
erraz esaten da eta:
«Kafea utzi, gatzik gabe jan,
txarra da aseka...».
Ez badut jartzen arreta,
emazteak errieta.
Zigarrorik ez dut erretzen nik;
neu nago erreta.

10

«Edateko, berriz, ura».
Nik niretzat ez dut gura;
ardoa baitut otordueta,
edaten gustura.
Betidaniko ohitura
bihurtzen zaigu kultura,
eta gehiago desio dugu,
kentzen duten hura.

11

Beharraren eraginez,
asteburueta oinez;
hogeita hamar bat kilometro,
normalki eginez.
Berdinean, gogo finez;
aldapa gora, ezinez
eta beheraka, sarri askotan,
belauneko minez.

12

Bizitzak aurrera darrai,
berarekin nik ere bai.
Batzutan oso estresatua,
besteetan lasai.
Oraindik lanerako gai,
baina ez aste eta jai.
Nire motorra erretzerikan
ez dut oraindik nahi.

Agur, aita! (1997)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Jarri behar dut arreta
egiteko gogoeta;
azken agurra bihurtu baita
nire azterketa.
Hauxe ez da berriketa,
une gogorra da eta:
uztailaren hemezortzian
negarrez aseta.

2

Bihotz-taupadak etenda,
hilkutxan zaude etzanda;
laurogei eta hamabi urte...
erraz esaten da!
Ahalegin denak eginda,
zahardaderik ezin senda,
iritsi zaizu gaur, aita, azken
bidaiaren txanda.

3

Baserri batean jαιο;
bertako lanetan iaio:
gurdiarekin egin ondoren
hainbeste garraio.
Jo eta ke, saioz saio...
Orain betirako aio!
Goiko deiari nahitaez kasu
egin behar zaio.

4

Bizitzaren maratila
izan zen gerra zibila:
anaia batek ihes Frantzira
askatasun bila;
gazteena zen mutila,
Teruelen gudan hila.
Hori jasanda ezin zenuen
maitatu fusila.

5

Gerra ostean ezkondu;
gero elkarri lagundu...
ta berrogeita hamalau urtez
horrela iraun du.
Baina orain aita zendu:
amari ondotik kendu.
Zeruan behar zutela hobe
ulertu bagendu!

6

Sasoi oneko pertsona,
famiako gizona:
begietatik itsutze hura
ez zen izan ona.
Gaitza gaiztoa glaukoma:
"beti ilun" ez da broma;
hogeita hamar urtez mugatuz
bere zoriona.

7

Zure bizitza osoa
ez zen izan erosoia;
baina konpontzen saiatzen zinen
azkar arazoa.
Jasan arren erasoia,
izaeraz hain gozoa!
Maitatuz beti ama, sendia,
herri ta auzoa.

8

Zure lehenengo baldintza:
bete emandako hitza;
kultura hortan oinarritua
zenuen bizitza.
Filosofi horren giltza
orain galduta gabiltza.
Nahiago nuke zure garaian
bezala balitza.

9

Ahal zen guztia eginez,
beti intentzio finez;
laguntzen gogoz saiatu eta
kalterik egin ez.
Gutxi jasorik ordainez...
baina, aita, diot zinez:
Mundua zerbait hobetu zaigu
zure eraginez.

10

Umila eta apala,
ez zara izan makala;
nonahi ta beti agertzen zinen
euskaldun bezala.
Prestua bezain leiala,
ikusten zen berehala
gizon batean hainbeste dohain
ez zela normala.

11

Eztabaida segurua:
gizon edo aingerua?
Saiatzen zinen beti alaitzen
zure ingurua.
Gainera ez zen dirua
inoiz zure helburua.
Ez uste arren idatzi duzu
gidaliburua.

12

Hiru seme ta alaba:
zure ondorengo gara,
bizitzarako bide zuzena
herentzian laga.
Zailtasunik badu jada;
gogorra bihurtzen bada:
gure eredu, aita maitea,
zu izango zara.

Afrikako nesken tortura lotsagarria

(1997)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Afrika, Senegal, Dakar...
gaur egunkariak dakar,
nola tratatzen dituzten neskek:
nire ustez zakar.
Jaio eta oso azkar,
neska eder edo kaxkar,
klitori gabe uzteak sortu
du hainbeste liskar.

2

Klitori-ablazioa
denez mutilazioa;
sexu-gozamen dena ukatzen
duen akzioa.
Normala da sesioa,
ez baita soluzioa;
onartu behar delako horrek
duen funtzioa.

3

Orain argitzera noa:
klitori ez da granoa,
baizik emeen bulba barruko
sexu-organoa.
Horren bidez orgasmoa
lortzea, gauza sanoa;
baina moztuta desberdin dela
da nire susmoa.

4

Berez da leku minbera;
adin horretan gainera...
neska gaixoen sufrimendua;
kontuak atera!
Dieynaba, zuk aukera
ez duzu izango ostera...
Duintasunari eutsiz, zu ikur
bihurtuko zera!

5

Beltza daukazu azala,
zuk panorama bezala:
zure alua bihur zitekeen
gaztaina hutsala.
Beti defenda zaitzala
amak nola edo hala,
zeren bestela mutilaturik
zaude berehala.

6

Entzun zazu, Mariama,
neska txiki horren ama:
merezi duzu izendatzea
Afrikako dama.
Eskertzekoa da lana:
freskotasuna darama.
Askatasuna dago jokoan;
ez diru ta fama.

7

Burua ta bi belarri
bezala badute jarri,
organo hori ez pentsa denik
nesken apaingarri.
Sexuaren ezaugarri...
ezin da utzi elbarri;
beraz, ohitura indargabetu
eta ez ezarri.

8

Tribu eta erakunde
atzeratu haien mende,
gaur egun nola egon liteke
horrenbeste jende?
Defendatzen hainbat mendre
saia zaitetz, Emakunde!
Han ez dezaten horrela jarrai
beste hogeai mende.

9

Desegokia ohitura,
bihurtzen baita tortura;
europarrantzat lotsagarria
beraien kultura.
Menpekotasun-lotura,
nahiz askatasuna gura.
Afrikar denak hurbil zaitetzte
aske den mundura!

10

Haurrak sortzeko fabrika,
gozamenari harrika;
ezin al dute emakumeek
ezer aldarrika?
Lanean bai aztarrika
ta gozatzeko irrika...
Aldatzen joan beharko duzu
nahitaez, Afrika!

Ablazioari buruz irakurritako artikulu batean oinarritutako bertsoak, Afrikako nesken tortura lotsagarria salatzen asmoarekin jarriak.

Lehen hobeto bizi nintzen (1997)

Doinua: "Betroiarena"

1

Sendagileak dio:
«Aldatu ohitura;
haragia baztertu
ta jan berdura.
Ardoa kaltegarri;
hobe edan ura.
Gatza izpirik gabe
zure elikadura.
Hau al da itxura?
Begira pisura;
lehen zenuen hura
zuk baduzu gura,
orain aldatu behar
duzu kultura».

2

Aspaldi hontan altu
daukat tentsioa
eta horrekin orain
dut sesioa;
zerbaitek igotzen dit
odol-presioa
ta medikuak azkar
akusazioa:
«Utzi bizioa
ta dibertsioa...».
Nire bertsioa:
«Motibazioa
nola eduki jakin
gabe zioa?»

3

Nik orain, berrogeita
zazpi urterekin,
nola diezaioket
lan horri ekin?
«Ahalegintxo bat, noski,
beharko dut egin;
zerbait argalduko naiz,
egiten dizut zin!
Ez nago oso fin
itxura honekin:
ehun kilo zikin,
nahi baduzu jakin!
Baina plazer galtzeak
ematen du min».

4

Nire sendagileak
izango du seta,
baina ez dut onartzen
nik errezeta.
Jarri beharko luke
nirekin arreta,
gauzak debekatzea
erraza da eta.
Legatza, txuleta...
parrilan erreta,
eta probaketa
sagardoz aseta.
Ohitura nahiko nuke
nik errespeta!

5

Goizean goiz jeikita
kotxez bulegora,
semaforo hoietan
galduz denbora.
Gero bazkalostean
bigarren saiora;
nik eguna daramat
etxetik kanpora.
Lanean ganora;
tentsioa gora...
jakin gabe nora.
Ezin naiz aztora:
estresatuta nola
bizi gustora?

6

Benetako ohitura
nahi nuke azaldu:
lanetik iritsita
azkar afaldu;
diruaren truk baitut
nik bizitza saldu
eta lanak oraintxe
ia nau zapaldu.
Ezer ez gosaldu;
eguerdian heldu,
presaka bazkaldu
ta ezin argaldu:
kiloak irabazi
ta ezin galdu!

7

Burusoil bihurtzea
prozesu azkarra,
zuritut lau ileak
eta bizarra.
Aspaldi hasia dut
okertzen bizkarra;
gizon heldu batentzat
zein planta kaxkarra.
Miopia zaharra:
kristalen beharra.
Zergatik negarra?
Dena ez da txarra:
apetitoa ongi
dudan bakarra!

8

Horrelakoxea da
nire bizi-plana,
binomioa hemen:
sendia-lana.
Hauek marraztu dute
nire iragana,
borondatez bainuen
nik hitza emana.
Astuna da zama,
zuzen eramana,
baina ez da drama;
ez dut behar fama.
Bizitza gozatzea
da nahi dudana.

Sendagilea, jarrai
ezazu ohitura:
«Haragia niretzat;
zuk jan berdura.
Niri ardoa utzi
ta zuk edan ura;
gatza barik probatu
zuk elikadura.
Begira pisura
ta nire itxura,
zuk baduzu gura
aldatu kultura:
“Sancho Panza” bihurtuz
“Quijote” hura».

Gure astoa gogoratuz (1998)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Berrogei urte badira
eta goazen harira:
ni txunditurik nago argazki
zaharrari begira.
Haurtzaroko ikusmira
gaur ezin dut erretira:
oroitzapenak narama jai
nintzen baserrira.

2

Marroi-gorri kolorea,
ez zen oso dotorea;
gaur lotsatzeko modukoa da
haren koilarea.
Nahiz-ta izan adorea,
mantso igotzen hobea:
zaldi laurdena eskasa baitzen
bere "motorea".

3

Garraiatzaile argia
(azkarrago da erbia):
artaberdea, erremolatxa,
belarra, arbia...
Karrua edo gurdia,
lana eta izerdia:
asto jai
ta asto-lanean
bizitza erdia.

4

Iristean apirila
lan berri bat: arba bila,
zeren babarrun lekak behar du
heltzeko makila.
Gure astotxo umila,
ez izan arren abila...
Bidai askoren joan-etorritz
lortzen zuen pila.

5

Neguan nahiz egin hotza,
sagastiraino gorotza;
asto-saskiak ongi beteta...
taupadaz bihotza.
Euria edo izotza
berdin garraia pagotxa.
Asto gaixoa, zure bizitza
izan zen zorrotza.

6

Orga zelai zabalera
eta malkarrean lera:
gure astoak izaten zuen
lanabes aukera.
Lanerako ze jarrera:
ezin da ere, aurrera!
Gero ikuiluan gaizki ordaindu:
erdi-huts majera.

7

Agian, pentsu beharra
eta jateko belarra;
ez da onena edukitzko
kemena ta indarra.

Behiak, pentsuz barra-barra;
astoarentzat, kondarra.
Bi adarreko abereek jo
zioten adarra.

8

Desagertu da astoa,
galdu bere arrastoa;
baserritarren langile zintzo
ta fidel askoa.
Ez dirudi bidezkoa
lehengo abere-hauspoa
gaur bihurtzea, gasoil traktorez,
orru ta ziztoa.

1998an jarriak izan arren, 1999an Urretxu eta Zumarragako XV. bertso-paper lehia-
ketan 1. saria lortutako bertsoak dira.

Bertso-sortan aipatzen dudan astoak argazkiko honen antz handia zuen, Tenerifekoa
bada ere gure ezkontzaren ondorengo bidaian topatu genuena. Ez dut baserriko as-
toaren argazkirik aurkitu, bera protagonista nagusia izan arren.



Egilea, Feli emaztearekin 1975ean, Tenerifen asto batekin

Agur, don Joan! (1999)

Doinua: "Maitasuna da bizi izateko"

1

Iaz oporrak amaitu eta
hain zuzen lehen astean,
albiste txar bat heldu zitzaigun
hor irailaren bostean:
"Ereñotzuko apaiza hil da,
herritik at, erbestean..."
Jaioterria uztean,
heriotza ezustean. (bis)
Beste gauzarik ez zen entzuten
batean eta bestean,
bere auzoko kideak utziz
hain egoera tristean. (bis)

2

Hernanin jaio ta apaiz egin,
Arabian lehen urratsak;
Barron, herriska galdu horretan,
gaztearen esperantzak:
sermoi guztiak erderaz baina
eginkizunak zehatzak.
Sarritan pasata latzak
edota une garratzak. (bis)
Apaiz-lanean izaten dira
esperientzi aberatsak.
Gero, hizkuntza arloan behintzat,
aldatau ziren baldintzak. (bis)

3

Zorioneko egun batean
gure txokora hurbildu;
baserritarron auzo-giroak
ez zuen asko kikildu
eta bertako ekimenetan
azkar egin zen murgildu.
Hango artaldea bildu,
inor ez zedin amildu. (bis)
Berrogeita lau urteko lana
ezin ordea isildu;
hirurogeita hamaseirekin
bihotz nekatuak hil du! (bis)

4

Auzo horretan izana baitzen
apaiz eta erretoare;
erlijioako irakasle ta
kulturgintzaren motore;
teologian lizentziatua
ta auzogintzan doktore.
Bazuen hainbat adore,
behar adina ohore. (bis)
Predikatu ta kanpoan egin...
eta gainera dotore.
Apaiza eta gizon bezala
zaila da izaten hobe. (bis)

5

Gure irakasle ere izan zen:
erlijioko maisua.
Esaten zigun zer zen zerua
eta infernuko sua;
zeruak poza sentiaraziz
eta infernuak izua.
Jaso arren abisua,
gaur ez naiz kristau sutsua. (bis)
Beraz, don Joan, erantzun goitik
bidaltzen dudan mezua:
“Zuk esan bezain ederra al da
zeruko paradisia?”. (bis)

6

Dena ez baina gogoan daukat
hark emandako dotrina
ta diktadura-garai haietan
egin zuen ahalegina.
Eskolan maistra, beti erderaz;
don Joan zen desberdina:
han euskeraz nahi adina,
eta elizan latina. (bis)
Hizkuntz arrotzek murriztu zuten
euskeraren eragina;
hobe eskolan ama-hizkuntzan
heziak izan bagina! (bis)

7

Laguntzeko prest zegoen beti
zabalduz bere besoak:
maiz bisitatuz ospitalean
aurkitzen ziren gaixoak
ta espetxean kondenaturik
zeuden auzoko presoak.
Bere hizkera gozoak,
kontsolatuz gurasoak. (bis)
Jarrera, berriz, baikorra beti
konpontzeko arazoak;
don Joan ez du erraz ahaztuko
sortu ninduen auzoak. (bis)

8

San Ildefonso, Apalategi;
guretzat beti “don Joan”,
bokaziozko apaiza zinen,
fidela zure arloan;
zuk berrogeita hamaika urte
jardunez ofizioan...
Nahiz zu betirako joan,
izango zaitut gogoan. (bis)
Zeruko Aitak dei egin eta
azkar ondora eroan;
nik espero dut hor izatea
gure aitaren ondoan! (bis)

Ereñotzuko San Antonio parroikiko erretorea, don Joan, 1998an hil zen, eta bertsoak 1999ko otsailean jarritakoak dira. Don Joaneke Fagollagako eskolan dotrina euskeraz ematen zigun 1956-1960 frankismoko urte latz haietan. Esker onez jarritako sorta da.

Agur, Basarri (1999)

Doinua: "Ai hori begi ederra"

1

Azaroaren bostean
"Diario" erostean
berri txar bat ezustean:
«Atzo Eizmendi, Basarri hil zen
goizeko seiak ostean».
Argazkia ikustean
ta irakurtzen hastean
bihotza bertso eskean.

2

Atsegina zuen hitza
txit egokia aditza
lanbide kazetaritza.
Herri-kirolak landuz gainera
osatu zuen bizitza.
Atzo eraso bortitza
gaur lutuz bertsolaritza.
Hobe zen hil ez balitza.

3

Idazten zen hain trebea
hizketan berriz hobea
bertsotan paregabea.
Bertsozaleak garenontzako
hori da atsekabea!
Hark zuen gizalegea
sinismena ta fedea:
zerura doan bidea.

4

Jaiotetxea Granada
hau baserri izena da
ta Azkenportun parada.
Gero Zarautzen bertsotan hasi
hori jakina da jada
ta egindakoa hara:
tabernatik abiada
eta aretoan laga.

5

Gizon handi serioa
bertsotan oso iaioa
nolako hitz-jarioa!
Berari esker gora igo zen
arrote-ofizioa
ta bere irratsaioa
euskarazko lezioa
zen nire afizioa.

6

Bat-bateko ta jarriak
beti bertso izugarriak
gozatu zezan herriak.
Irratiz berriz sega, aizkora,
pilota, idi, harriak...
Polipaso ta Arriak...
Apustu eta berriak
asetzeko egarriak.

7

Bertsotan bazterrik bazter
Hernani, Oion, Izpazter...
beti euskararen maizter.
Hark erakartzen zuen jendea
bere hizkerari esker
eskuindar edota ezker
zaleak hurbilduz laister
euskaldunik ezin asper.

8

Euskara eta bertsoa
zen bere unibertsoa
haren bizitza osoa.
Gerra ondoren "Trabajadores"
batailoian erasoia:
frankismoaren presoa
haientzat deser osoa
izanik gizon gozoa.

9

Basarrik zuen itzala
bertsolaria bezala
jendeak jakin dezala;
eta pertsona bezala berriz
ikusten zen berehala
zela zintzo ta leiala
gainera eskuzabala.
Ez da izan gizon makala.

10

Orok pentsa zezakeena
iragarpen errazena:
gaztea baietz azkena;
hogeita hamabostgarren urtean
txapelketan hoberena
ta bertsoarako sena:
hark Eizmendi abizena
ta "Basarri" ezizena.

11

Donostian zuten zita
lehian Zepai ta Txirrita...
bere ondoan jarrita;
hark hogeita bat urte izanik
lehenen txapela jantzita
denak atzean utzita
diotenez merezita
marka guztiak hautsita.

12

Txapelduna zen mutila
hurrena ez zen joan bila
beldurtia ez, umila.
Nonbait nahi zuen Txirrita zaharra
txapeldun izan zedila.
Iragarpen biribila
ta Txirrita txit abila
txapeldun bezala hila.

13

Gerrateak dakarrena...
hirurogeian hurrena
berriz Basarri aurrena;
bi txapelketa eta bi txapel!
ez zen gelditu herrena
bera baitzen azkarrena
Uztapide bigarrena:
bikoterik ederrena.

14

Azken urteotan zurbil
orain ospitalean hil
baina Zarautz ta Errezil
Iñaki Eizmendi hil zaigun arren
Basarri bizirik dabil.
Hamaika bertso biribil
Urbia gainetik hurbil
entzungo ditugu trankil.

2000ko "XVI. Basarri" bertsopaper-lehiaketan (Zarautz) 1. saria lortutako bertso hauek
1999ko azaroan jarriak dira, Iñaki Eizmendi "Basarri" hil ondoren.

Felix eta Albertoren 12 gailurrak Himalaian (2000)

Doinua: "Maitasuna da bizi izateko"

1990ean Pumori (7170 m) igo zuten eta 1991n hasi ziren zortzi mila metro baino gehiago dituzten mendiak igotzen ("zortzimilakoak"). Hamarkada honetan, Felix eta Albertok, Inurrategi anaiak, 12 gailur jo dituzte.

1. MAKALU, 8465 m (91/09/30)

Hor laurogeita hamaikagarren urtea izan zen gogorra, Makalu baitzen zuen lehenengo zortzimilako tontorra; eta ia bostehun metro gehiago... ezin zen izan samurra. Ordaindu behar zen zorra eta gertatua horra: (bis) hatzak izoztu, aurpegia erre, larruazala lehorra; baina halere ez zen ihartu bi adarreko enborra. (bis)

2. EVEREST, 8848 m (92/09/25)

Hurrengo urtean bigarrena zen, ta gainera erraldoia, Everest mendi altuenari zapaldu zioten goia; oxigenorik gabe gainera, hori da hori sasoia! Pasa ondoren montzoia, zeharkatuz espoloia... (bis) Hor goitik ongi ulertuko da Hillary-ren arrazoia. Eskerrak behintzat ez zela gose Himalaiako lehoia. (bis)

3. K-2, 8611 m (94/06/24)

"K-2" a deitzen diote honi, hotza den arren kabia. Txina aldetik hau gainditzea, gertatu zen zailegia; arazo asko, elurjauziak, ta txarra eguraldia. Hurren bigarren aldia, Pakistandik, alegia; (bis) Cessen bidea deitzen diote, esatekotan egia. San Joan egunez lortu zenuten aipaturiko "K-2" a. (bis)

4. CHO OYU, 8201 m (95/09/11)

Hurrengo urtean beste bisita altxor berri baten bila; atxabaldarrak osatzen dute oso bikote abila; Alberto gazte serioa da; Felix, alai ta umila. Arazoak dira mila, baina esperientzi pila... (bis) Gailur zorrotza duen Cho Oyung dago orain maratila. Igo ondoren euren herrian dantzatu dute ezkila. (bis)

5. LHOTSE, 8516 m
(95/09/27)

Cho Oyu jaitsi eta jarraian
neurtu daiteke indarra;
lehengoa baino handiagoa
oraingoan Lhotse zaharra;
zortzi mila ta bostehun metrora
hain igoera azkarra.

Galdera da zail samarra:
Non dago mugaren marra? (bis)
Ezezaguna da zuen muga,
dago aitortu beharra.
Felix ta Alberto paregabeak,
zarete kasu bakarra! (bis)

6. KANGCHENJUNGA, 8586 m
(96/05/06)

Hau laurogeita hamaseian zen:
Kangchenjunga du izena;
zortzi mila ta seihun bat metro,
munduko hirugarrena;
hau ere oso mendi zaila da
eta eskatzen du dena:
horman behar da kemena...
bestela, dator kondena. (bis)
Felix, Alberto, Juanito, Kike;
laukoterik ederrena.
Kikek gailurrik ez zuen jo ta
aurki izango du pena. (bis)

7. SHISHA PANGMA, 8046 m
(96/10/11)

Urte berean, Shisha Pangma-ra
eta han une garratzak:
"Zulu" irentsia; Juanito, larri;
pasa zenituzten latzak.
Himalaiaren legea da ta,
erakutsi ditu hortzak.
Igo ala ez? Zalantzak...
«Gora» agindu, balantzak. (bis)
Hil zen laguna omendu nahian
gailurrerantz esperantzak.
Hor urriaren hamaikan goia
zapalduz kendu arantzak. (bis)

8. BROAD PEAK, 8047 m
(97/07/13)

Mendia Broad Peak, ta urtea
laurogeita hamazazpi;
bi gazte hauek, ikusten denez,
oraindik ez dute aski.
Euren habitat da Himalaia;
frogatzeko, mila argazki:
Horko elur ta eguzki,
izotz, ekaitz eta guzti. (bis)
«Zortzimilako hau ez da zaila»;
gero pasa zuten gaizki.
Gailur-eguna hamahirua zen,
esatekotan zehazki. (bis)

9. DHAULAGIRI, 8167 m (98/05/22)

Dhaulagiri da orain datorren,
beste zortzimilakoa.
Mendi honetxek ere sortzen du
gainditzeko lan nahikoa;
bide berririk urratu gabe,
erabiliaz ohikoa.
Arina da ekipoa;
aurrera pauso tinkoa... (bis)
Goia jo dute ta ez da txantxa,
hauek hor eginikoa,
ta Murrukixun, berriro festa:
hango salto ta brinkoa! (bis)

10. NANGA PARBAT, 8125 m
(99/07/29)

Oraingo hau da hamargarrena,
ia ezin da sinetsi;
urtero gailur berriak lortzen,
hauek ezin dute etsi;
beti jo ta ke hortxe dabilta
orain igo, gero jaitsi.
Markak nahi dituzte hautsi,
gai direla erakutsi. (bis)
Arrisku handiz inguraturik,
nahiz ta arriskatu gutxi.
Nanga Parbat hau igota ere
aterik ez dute itxi. (bis)

11. MANASLU, 8163 m (00/04/25)

Eta hasi da bi milagarren
urteko lehen abentura;
zortzi mila ta ehunetik gora
Manaslu honen altura.
Udaberrian igo zineten
amesturiko lekura.
Hura gozamena, hura!
Herrian, "Bilboko ura". (bis)
Hamaikagarren hori lortuta,
beste hirurak aurten gura;
hamalau gailur hauentzat zuek
jarritako epemuga. (bis)

GASHERBRUM-II, 8035 m
(00/07/28)

Gasherbrum (G-II) hori igota,
zeinen momentu alai;
paregabeko lekua baita
Karakorum-go talaia.
Hamabigarren gailurreraino
zaila izan da bidaia.
Gero, jaisteko garaia...
Herio dute etsaia! (bis)
Ustekabean, Felix badoa...
agurtu gabe anaia.
Zure altzoa aukeratu du
betirako, Himalaia! (bis)

Orain, 2000an, zoritzarreko istripu bat medio, Felix bere Himalaian gelditu da betirako, Alberto, bere anaia, bakarrik utzita. Bi gailur bakarrik falta zitzaizkien munduko 14 zortzimilakoak burutzeko: Annapurna (8091 m.) eta Gasherbrum-I edo Hidden Peak (8068 m.). Goian bego!

2000an Urretxu eta Zumarragako XVI. bertso-paper-lehiaketan I. saria lortutako bertsoak.

Felix gogoratuz (2000)

Doinua: "Ai hori begi ederra"

1

Telebistan albistea,
gogorra bezain tristea:
«Lortu dute iristea...
G-II igota, beherantz, Felix hil;
Albertok lortu jaistea...».
Lur jota anai gaztea;
gogorra da ikustea
ta betirako uztea.

2

Zortzimilako dozena:
Gasherbrum G-II, azkena;
sartu diozu eztena.
Oporraldia gaur hasi eta
apurtu nire eskema.
Alberto anai gazteena
eta lagunik onena,
gogorra izan da eszena.

3

Izozturiko harkaitza
gainditzea ulergaitza,
baina hor dago emaitza:
zortzimilako hamabi gailur;
gehiago, hil ez balitza.
Natura zen bere hitza;
mendia haren bizitza
ta hark eraso bortitza.

4

Hemen jaiotako hazia,
munduan zehar hezia;
ahoskera berezia.
Maila handiko mendizalea,
fama ongi merezia;
kostata irabazia.
Izan arren hain bizia,
heldu zaio desgrazia.

5

Umila bezain jatorra
eta irrifar iraunkorra;
ordaindu du bere zorra.
Horrexegatik, Felix galtzea
egin zaigu hain gogorra.
Gasherbrum, azken tontorra,
latza da zure zigorra.
Zergatik joan zen horra?

6

Haren joan-etorriak
ez dira gauza berriak;
ongi dakizki herriak.
Bere bizitzan egin zituen
balentria izugarriak;
pasa momentu larriak,
latz eta negargarriak...
Felixen ezaugarriak.

7

Mendia zen zure gaia,
helburua eta nahia;
betiko lagun, anaia.
Maite zenuen mendikatea
bihurtu zaizu etsaia:
gaiztoa da Himalaia!
Karakorum-go talaia...
Felixen azken bidaia.

8

Orain Albertok, bakarrik,
ez du izango indarrik;
bazuen zure beharrik.
Zuk egin eta hemen ikusi
dugu argazki ederrik,
guk lortu gabe gailurrik.
Nahiz ta ez jaso eskerrik,
lana ez da izan alferrik.

9

Etsipenean ez etsi
eta sasoiari eutsi;
hori ere ez da gutxi.
Alberto, zure esperientzia
alferrik galtzen ez utzi;
berdin du gaur, bihar, etzi...
gai zarela erakutsi;
baina hezurrik ez hautsi.

10

Zeru aldean ugari,
begiratu distirari;
baina bat dago nabari:
hor izar berri bat sortu baita,
laguntzeko anaiari
ta egin bezaio argi;
Albertorentzat gidari
Felix baitzen zuzendari.

Badator 166,386 pezetako euroa (2000)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Sartu digute porrua
txanpon berrien orrua:
xentimoekin berriro ere
a ze amorrua!
Berotuko da barrua;
ez baita gure errua.
Aiton-amonek esango dute:
euro deabrua.

2

Sortua dute moneta
ta jar dezagun arreta;
nahaste-borraste honekin gaude
bestela erreta.
Desagertzeko pezeta,
egongo da trukaketa;
gero euroa jaun eta jabe
izango da eta.

3

Laister salneurri berriak
euro honek ezarriak;
sortuko dira zenbait lekutan
arazo larriak.
Informazio-iturriak
ez izan arren urriak,
"bi mila ta bi" gertu daukagu
ta hartu neurriak.

4

Eskudoa eta lira;
gehiago ere badira:
pezeta, drakma, marko, libera...
behar erretira.
Nahiz eta jarri argira,
galduko dute distira
ta horiekin ezingo gara
joan urrutira.

5

Gertatuko da askotan,
gure herriko azokan
edo tabernan sartuta zerbait
jateko asmotan.
Osatzen dugun Europan,
salerosketak eurotan.
Orain txanponak ikas ditzagun,
egon gabe lotan.

6

Buruan utzi gordea,
zail samarra da ordea:
"bat-sei-sei-koma-hiru-zortzi-sei",
da gure klabea.
Hau ez da pasodoblea
edo Kutxako kodea.
Pezeta hauek edo euro bat,
zer dugu hobea?

7

Ez da behar zientzia,
baduzu pazientzia;
ez baita zaila, ezaguturik
erreferentzia.
Matematika ahantzia?
Buruz bazaude jantzia:
mila pezeta edo sei euro,
ze diferentzia?

8

Basoerdi berezi bat,
euro bat; hau garbi daukat.
Kalkulatzeko era aldatu
behar da erabat.
Bat koma bi, "kaña"-rentzat;
bermutak, bat eta... zenbat?
"Kubata"-rena asmatu nahian,
denbora daramat.

9

Hogeita hamar eurokin,
afari on bati ekin:
zopa, legatza eta txuleta,
kafe-koparekin.
Lortzeko hainbat etekin,
kontuak egiten jakin:
afari hori gaur egiten da
mila duroekin.

10

Etxe batek berrehun mila
ta hori da diru pila!
Euroarekin berdin jo behar
maileguen bila.
Banketxeko leihatila,
hortxe dago maratila:
ordaintzerako aitonduko da
oraingo mutila.

11

Oraingo hau da jokoa
eta badauka gakoa:
hilaren azken egunez beti
zifra magikoa:
mila ta bostehunekoa,
ez bada izaten nahikoa...
etxe askotan komeri latzak,
ene Jaungoikoa!

12

Eguneroko beharra
eta litro bat bakarra,
euro batekin eros daiteke;
kalkulu azkarra.
Gasolina ez da txarra,
baina garesti samarra;
euroa baino indartsuago
baitago dolarra.

13

Ongi etorri beroa
orain zuretzat, euroa;
izan ezazu bizitza luze
eta oparoa.
Badator beste aroa
eta zu zara geroa.
Bi milagarren efektuaz gaur
zabiltza eroa.

2000ko "XII. Zاپirain anaiak" bertso-paper-lehiaketan (Errenteria) 2. saria lortutako bertsoak.

Bizmodua aldatzen ari da (2000)

Doinua: "Ikusten duzu goizean"

1

Gipuzkoako partean,
jaio baserri batean,
nekazarien artean.
Goian ganbara ta ukuiluan,
lau behi ta astoa katean;
sagardoa estalpean,
leihatila bat atean...
Gogoratuz idaztean.

2

Euskaldun guztion funtsa,
baserri-tarron hizkuntza:
etxean euskara hutsa.
Sei urterekin eskolan hasi;
han ez zuten hori bultza,
edo eskaini laguntza;
baizik jipoitu gorputza
ta ezarri berrikuntza.

3

Gaztelera hain arrotza
eta maistra zen zorrotza;
bere arma makil motza.
Hori astintzen trebatua zen;
falta zitzaion bihotza.
Bizkarra edo kokotsa...
Berotzen zen gorputz hotza
eta hasi negar-hotsa.

4

Erdararen eraginez,
eskolan buruko minez;
elizkizunak latinez.
Hiru hizkuntza irakatsi nahi;
bakar bat ondo jakin ez.
Beti intentzio finez:
hitzak ulertu ezinez,
ahal genuena eaginez.

5

Jasandako diktadura:
Francisco Francoren hura,
inorentzat ez dut gura.
Debekaturik askatasuna
eta herrien ohitura,
hizkuntza eta kultura;
hori ez al da tortura?
Ez zen joango zerura.

6

Betiko galtza urdinak,
amak etxean eginak;
senide denak berdinak.
Oinetan berriz abarkak lotu;
orduak geunden arinak:
noiznahi arropa zikinak,
edo busti zipiritinak.
Ziren une atseginak!

7

Etxe ondoko errekan,
udako ilunabarretan,
berdin aste ta igandeetan.
Presa azpia gure piszina;
bainu-jantziak, dendetan...
Gu larru gorrik uretan,
tragoak eginez bertan.
Ez dut ahaztuko urtetan!

8

Eguerdian mahaian jarri
eta irratitik Basarri
entzuten genuen sarri.
Bere saioa guri gustatzen
baitzitzaignun izugarri;
euskaldunontzat ongarri
ta hizkuntzaren euskarri;
kalterik ez du ekarri.

9

Egia esan, lagunak,
aldatu dira egunak
eta orduko jardunak.
Ordenadore ta web orria,
ez baitziren ezagunak;
eskuz idatzi gutunak,
traketsak bezain astunak;
gazteleraz euskaldunak.

10

Ia dena zen pekatu;
ezin dugu ezkutatu
eta zergatik ukatu?
Diktadura hark eta elizak
askatasuna mugatu;
hori ezin da barkatu:
gaur elizara bi katu;
ez zirenak enteratu.

11

Nahi zutena irakatsi,
baina ez genuen etsi;
baizik hizkuntzan sinetsi.
Gure euskara ondare bat da,
nahiz ohartu jende gutxi.
Egin behar zaio eutsi
ta desagertzen ez utzi.
Sustrairik ezin da hautsi.

Santo Tomas eguna Asturiasen (2001)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Negua heldu da jada:
Santo Tomas eguna da.
Urtea ia bukatu zaigu,
hau da abiada!
Nahiz urte hau laister laga,
eskaintzen digu parada:
gure ohiturei eman beharko
orain begirada.

2

Etzetik urrun nago-ta,
ez naiz hasiko saltoka;
gogoan baitut gure herrian
dagoen azoka:
txistorra, barazki sorta,
kapoiak, gazta, konpota...
Euskal Herriko produktu hauek
gaur zaizkit inporta.

3

Gogoratzen dut hainbeste
eta nabil txistor eske;
taloarekin bizpahiru puska
jango baintuzke.
Dagoenik ez dut uste:
"Bibiana"¹ dabil aske;
gainera, hemen zerri batzuek...
bi hanka dituzte.

4

Han gaur urteroko zita:
bertsolarien bisita;
eta nik honuntz etorri behar,
saioa utzita.
Nire ohitura hautsita,
baina ez nago etsita;
bertso kantari ari naiz hemen,
nik neuk idatzita.

5

Amorrazio galanta:
honi zerbait zaio falta;
han bat-bateko bertso-giroa
desberdina da-ta.
Neure buruari lata;
hau da bertsolari-planta:
galtzontzilotan ohe gainean
kanta eta kanta!

6

Gaur San Pedro hotolean,
nago sasoi motelean;
lana bainuen Langrean goizez
ta arratsaldean.
Afaldu dugu taldean,
girorik eza kalean;
bertsook jartzen gaeuz ari naiz,
gela epelean.

7

Eguraldia bikaina...
Asturiasen, alajaina!
Kantabriako itsas ertzean
aurkitzen da baina.
Haragia ta arraina,
hemen jateko nahi aina;
baina etxera itzuli nahi dut,
ezin da engaina.

8

Gaur nola izanak geran
Langreon eta Felguerán,
Asturiasko sagardo hori
guk nola ez edan!
Jarriaz gero aukeran,
nahiago dut gure eran:
upel batzuei txotxa kenduta,
larunbat bezperan.

9

Buru gainetik botila,
basoak hanka hurbila;
goitik jaurtita txorrota doa
edalonzi bila.
Ez daukan arren kanila,
neska izan nahiz mutila:
ia tantarik ez dute galtzen;
ze jende abila!

10

Abenduak hogeita bi,
goizeko bostetan adi;
hirurehun eta hirua izan dut
bi gauotan kabi.
Orduak kenduz gauari,
bertsook bukatzen ari;
gero etxerantz joango naiz ni,
kotxean kantari.

11

Agur, Asturias maitea,
irekia utzi atea;
beste batean egingo dugu
fabada jatea.
Upela daukat betea,
etxean zai emaztea;
orain nahi dudán bakarra hau da:
azkar iristea.

¹ "Bibiana": Donostian, Santo Tomas eguneko txerriari jarritako izena.

Urte zahar eguneko gogoeta (2001)

Doinua: "Ikusten duzu goizean"

1

Bart arratseko ezkilak
ez dira izan isilak;
agur urte borobilak!
Parrandarako prest jarri dira
neska gazte ta mutilak,
horretarako abilak,
dantzatzuz txanpain botilak;
utzi baikaitu bi milak!

2

Gero kanpai-hotsak ahitu
eta ia denak anaitu:
zoriontsu egin gaitu!
Instant batean urte, mende ta
milurteko hau amaitu.
Denak musuka alaitu,
gau batez behintzat lasaitu;
nahiz eta bihar etsaitu.

3

Ondoren festa-giroa,
nonahi suziri-tiroa;
jendea erdi eroa.
Gero tabernak jendez gainezka:
alkohola da jeneroa.
Hastear beste aroa;
ez badator oparoa,
barrua behar beroa!

4

Eta orain datorrena,
bi mila ta bat garrena;
ez bedi izan herrena!
Mundu txar honen desoreka hau
konpontzea ederrena.
Kezkaz beterik barrena;
nahiz eta izan txarrena,
hartu behar dakarrena.

5

Hegoa eta iparra
zazitzen dituen marra
daukagu kendu beharra.
Ameriketari yankiak jabe;
Hegoan miseri txarra.
Nahasia Europa zaharra;
Afrikan gose-negarra...
Hauxe da mundu kaskarra!

6

Dirua jaun eta jabe;
ezereza hori gabe;
ez al da nahikoa grabe?
Bi mila urte pasa ta gero,
ez da hainbat nobedade:
milioika goseak daude,
lanean ia debalde...
Zer dago beraien alde?

7

Bagenekien lehenago,
gaizki banatua dago;
baina egun okerrago:
pobreak beti pobre izan arren,
orain agian gehiago;
aske ez, baizik esklabo.
Enbidoari hordago
edo bestela akabo!

8

Zertarako zientzia
edo teknikan jantzia
eta esperientzia?
Gaur duintasuna desagertu da
edo daukagu ahantzia:
diru askoren antsia...
Pobrezia herentzia;
galdu da kontzientzia.

9

Txit egoera larrian,
asko miseri gorrian:
guztia falta herrian.
Adibideak Paris-Dakar-ko
rally adierazgarrian:
jauntxoen moda berrian,
desertuaren erdian...
Zuriak hor pikardian.

10

Hasi den aro berria
ez bedi izan bihurria;
baizik justizi-iturria.
Gaur miserian bizi direnak
merezi dute irria
eta ongietorria
jartzen bada oinarria,
justiziak ezarria.

Suitza (2001)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

1

Zoragarria tokia,
bizitzeko egokia;
baina neguan jantzi beharko
dute berokia.
Hau da nazio txikia,
ta dauka ia guztia.
Euskal Herria izan liteke...
anaia bikia.

2

Horra suitzarren eskaintza,
gaur horretaz nahi dut mintza:
ofizialki lau hizkuntza ta
kultura anitza.
Elkar joka ez dabilta;
baketsua da bizitza,
eta ona da bisitatzea;
ematen dut hitza.

3

Hainbeste jende tranbian
nik, hirigune erdian,
nire bizitza osoan ez dut
ikus, agian.
Azkarrak teknologian,
maisua ekologian:
kutsatu gabe hobeto bizi
baitira hirian.

4

Araurik ezin da hautsi,
gizalegea erakutsi:
zebrabidean oinezkoari
lehentasuna utzi.
Hirietan auto gutxi
eta tranbiari eutsi.
Kultura hori helduko zaigu,
bihar edo etzi.

5

Naturan bizilekuak:
mendiak eta lakuak,
hiriguneko osagai dira,
berdez hornituak.
Etxeak isolatuak;
mendiakateak altuak:
hiriburutik ikusten dira
gailur elurtuak.

6

Ez naiz aspertzen esaten,
guztiok jakin dezaten:
dion bezala "laku artean"
dago Interlaken.
Nik ezagutu dut aurten
eta txunditurik irten;
egia esan ez dakit gehien
zerk eragin diten.

7

Trenez joan-etorria:
mendian dago herria;
etxe guztiak lorez beterik,
da ikusgarria.
Zermatt-en ezaugarria:
gozatzeko ezarria;
natura bizi ta ase leike
eski-egarria.

8

O! Matterhorn erraldoia,
zuria daukazu goia;
lau mila eta bostehun metrora
daukazu listoia.
Banintz mendizale ohia!
Ez banu galdu sasoi!
Igo nahi nuke, baina ezin dut:
hau da arrazoia.

9

Grindelwald aldetik gora,
ia jakin gabe nora;
mendiko trena heltzen da Jungfrau
erraldi ondora.
Gidariaren ganora:
behiak ez dira aztora;
gu berriz pozik hiru mila ta
bostehun bat metrora.

10

Kremleraz doa trena,
mendikatean barrena;
aldapaotan ibiltzeko da,
nonbait, ederrena.
Aitaren egin aurrena,
kabinan sartu hurrena;
goiko kablea etenez gero,
istripu txarrena.

11

Zurich-en banketxe ugari,
badu hainbat kategori;
ni milioiekin ez nintzen joan,
hau dago nabari.
Nahiz eta lanean ari,
soldata baitut lan-sari;
eta han sartzen uzten diote...
asko daukanari.

12

Berna da hiriburua;
oso leku segurua:
Leman lakuak dotoretzen du
Geneva ingurua.
Zurich-en dago dirua
eta dirudi zerua.
Suitza ikusiz ikastea da
nire aburua.

Euroarekin jolasean (2001)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

TXANPONAK

0,02 EURO (3,33 PTA.)

1

Beharko diogu ekin,
lortzeko nahiko etekin;
euro berri hau nolakoa den
nahi badugu jakin.
Kalkulagailuarekin
ariketak ongi egin;
bestela, oso erraz galduko
gara euroekin.

3

Ezin zaio egin uko,
Europa baita lekuko;
poltsikotik hau galtzen duena
ez da ez galduko.
Elizan maiz da sartuko;
zergatia agertuko;
eskale bati emanda ere
ez baitu hartuko.

0,01 EURO (1,66 PTA.)

0,05 EURO (8,32 PTA.)

2

Lurrean badago aio,
ostikoz jo ez bazaio;
makurtzerik ez baitu merezi
honek, ze arraio!
Ni ez banago hain iaio,
zertarako hainbat saio?
Hutsala dela gaur antzematen
ari bainatzaio.

4

Jarri dezagun arreta,
egungo zortzi pezeta:
diru itxura pixka bat hartzen
hasi zaigu eta.
Baina ez da berriketa,
honelako erreketeta:
txikle alu bat emango dute:
a ze erosketa!

0,10 EURO (16,64 PTA.)

5

Aurrekontu egokia,
erosteko gozokia;
leku denetan izaten baita
haurren biltokia.
Zintzilik badu mukia,
ez da nahiko aitzakia;
sosak dituen umea ez da
inoiz lotsatia.

EURO 1 (166,39 PTA.)

8

Euro bat daukagunean,
bere osotasunean,
egunkaria eros liteke,
aste-egunean.
Garestitzen zaigunean,
ez da edozein unean:
larunbat eta igandeetan,
estuasunean.

0,20 EURO (33,28 PTA.)

6

Negua izan nahiz uda,
gure aukera heldu da:
litro erdiko botilan (dendan),
edateko ura.
Nik niretzat ez dut gura,
falta zait eta ohitura;
nahiago baitut mahats beltzarekin
egiten den hura.

2 EURO (332,77 PTA.)

9

Handiena txanponetan,
motz gelditu da benetan;
nahiz ta hamabi izar agertu,
berriro monetan.
Ni honekin nabil setan
eta ez dakit gaur bertan
berdel kilo bat erosiko den
arrandegietan.

0,50 EURO (83,19 PTA.)

7

Oraingo hau da erreza:
nahi badugu Gurelesa,
litro bat esne, koipe gabea;
bestela, frantsesa.
Bakoitzaren interesa,
nork berak defenda beza;
aukera behintzat, egia esan,
ez da aldrebesa.

BILETEAK

10

Bilete hauek ikasi,
bestela mila desgrazi;
hilabeteak falta dira ta,
entrenatzen hasi.
Zalantzak adierazi,
ta pezetekin ez nahasi;
edo ezin da aldaketaren
gerra irabazi.

5 EURO (831,93 PTA.)

11

Badatorkigu papera,
bilettea baita bera;
txanponak kendu, hauekin bete
ahal bada kartera.
Kontuak ongi atera:
zinemarako sarrera,
nire ustez hau kostako baita
gutxi gorabehera.

10 EURO (1.663,86 PTA.)

12

Ez da txantxa, ez da broma;
azterketa da sakona;
hor ibiliko dela uste dut
butano bonbona.
Euro erdiko txanpona
itzuliz gero, amona;
propina uztea ez da izango
hain ohitura ona.

20 EURO (3.327,72 PTA.)

13

Badut nahiko komeria,
gaur galdu gabe haria;
sagardotegi batean egin
nik neuk afaria.
Errifa baten saria,
lagun baten oparia...
Behi eroena bada txuleta,
horra loteria!

50 EURO (8.319,30 PTA.)

14

Ohitura onak ez galdu
eta ahal bada zabaldu;
bikote batek erretegian
itxuraz bazkaldu.
Gero nahiko da argaldu,
baina nire ustez igoal du;
hain garestiak diran kiloak
merke ezin saldu.

100 EURO (16.638,60 PTA.)

15

Karteran eramatea
honelako bilettea
eguneroko gauza badugu,
nolako zortea!
Ene bilette maitea...
nik badut borondatea,
gonbidatzeko seme-alabak
eta emaztea.

200 EURO (33.277,20 PTA.)

16

Ez bazaitut ikusiko,
amesten ez naiz hasiko;
edo, agian, zu ikusi gabe
nik ez dut etsiko.
Zai badauzkat bi poltsiko,
ez al zara itsatsiko?
Maitemindurik naukazu eta
ez zaitut utziko.

500 EURO (83.193 PTA.)

17

A ze bilete bikaina!
Badakizue nik aina;
baina urriak izango dira
hauek alajaina!
Ez dut nahi inor engaina...
gehiago nahi nuke baina,
sorta txikian izango dugu
lanaren ordaina.

18

Laister txanpon arraroak,
bilete ederragoak;
aldaketa hau inposatu du
heldu den aroak.
Ongi etorri beroak,
merezi ditu euroak;
mende berriko urteak izan
bitez oparoak.

Dorre bikien amaiera (2001)

Doinua: "Ai hori begi ederra"

1

Aurten irailak hamaika:
data hau behar dut aipa
mingarria izan baita.
Manhattango irlan dorre pareta
erasotu dute nahita.
Amerika ezin maita
ta ari dira irainka:
nor da ekintzaren aita?

2

Hiri handi ta askean
gertatu zen ezustean
guretzat bazkalostean.
New Yorken ia bederatzia
hilketa hori hastean...
Denak laguntza eskean,
batean eta bestean,
hain egoera tristean.

3

Zuzenean tragedia
telebistan alegia,
lekuko Hudson badia:
dorre bat sutan, bestea jo ta
hor bigarren sualdia.
Garbia zen irudia:
ezin sinetsi egia,
zirudien gehiegia.

4

Izenez "Dorre Bikiak"
eraikuntza egokiak,
ez ziren obra txikiak:
lau mila metro planta bakoitzak,
azpian tren-geltokiak...
Neke askoz eraikiak
hautsi ditu gizakiak.
Indargabe aitzakiak.

5

Nahiz altuak izan denak
hor inguruan zeudenak
ziren harrigarrienak:
laurehun metrotik gora zituzten
zutabe lauki zuzenak.
Dotore bezain lerdinak,
paregabeko barrenak:
New Yorkeko ederrenak.

6

Horra txikizio mota:
bi hegazkinekin jota
dorreak dituzte bota.
Sasi-gidari kamikazeek
hor dute azken borroka:
lortuz dorreen porrota
hiltzeak ez du inportatzen
Alaren esku dago-ta.

7

Hegazkin forma misilak,
bere barruan zibilak
eta suizida abilak.
Dorrea jota leher arazi,
denak gertaturik hilak:
errauts bihurtuz matrailak,
bihotzak eta kostilak...
Erraza izan da, mutilak!

8

Amerikanoei burla
arraro egin zaigula
ezin dugu disimula.
Pelikuletan fikzio zena,
benetako pelikula.
Horren eraso mardula
gaurdaino, guk dakigula,
ez dute jasan sekula.

9

Zeinen ekintza txepela,
gaiztoa bezain ustela.
Sartu diete epela!
Amerikarren harrotasuna
bihurtu dute eskela.
Denok dakigun bezela
ez da amaitzen horrela,
Bushii begira bestela.

10

Dorre puska goitik behera
dena txikituz gainera
hor oin batetik bestera.
Ehun eta hamar solairuetan
gertatu da gauza bera,
beste dorrean, antzera.
Azkarra da jaitsiera:
erraldioen amaiera.

11

Hausnarketa da sakona:
ekintza hau ez da ona,
ez da txantxa, ez da broma.
Hor zapalduta hil omen dira
hiru bat mila pertsona:
gainean milaka tona
hilerri bihurtuz zona.
Erotu al da gizona?

12

Errespetu eta guzi
esango nioke Bushi,
sentitzen baita nagusi:
«Bin Laden bada, harrapatu ta
bere hezur denak hautsi,
besteak bakean utzi.
Bonba gehiago ez jausi,
ez dute sufritu gutxi!»

XIII. bertsolari-txapelketa nagusia 2001 (2002)

Doinua: "Betroiarena"

1

Bertso josiak eta
hizkera bikaina,
neurri eta doinuei
hartuz tamaina;
emaitza lortu duzu
dantzatzuz mingaina:
Hirugarren txapela,
Uztapidek haina.
Hori da azaina!
Zure buru gaina
soil daukazu baina,
horra hor ordaina:
txapelaren babesa
duzu, Egaña.

2

Neska txapeldunorde,
hori ez da drama;
paregabea izan
da zure lana.
Aita pozik zeruan;
zoriontsu ama,
zure saio bikainak
arindurik zama.
Bikoitza zen arma:
Maialenek xarma,
Lujanbiok fama;
oraina-iragana...
Txirrita berpiztu da
bihurtuz dama.

3

Hirugarren postuan
hor andoaindarra,
Aitorrentzat uste dut
ez dela txarra,
jokoan baitzegoen
txapel bat bakarra;
irabazteko izan
behar da izarra:
Moldatzen azkarra,
bertsotan indarra,
sua eta garra,
hor denen beharra.
Mendiluzek ez beza
egin negarra.

4

Jon Maiaren kasuan
ez daude ugari;
sarritan heltzen dio
habanerari.
Guraso erdaldunak,
bera bertsolari;
erdaraz hitz eginez
aita ta amari.
Ekinez lanari,
ari eta ari...
emaitza nabari;
dirudi mirari.
Ez ote du merezi
hainbeste sari?

5

Sustrai sendoak ditu,
ez da ezustea
guk bostgarren Colina
hor ikustea.
Bere lanari esker
lortu du ospea;
bertsotarako orain
badauka eskea:
jai eta astea;
urruñar gaztea,
ez dago tristea.
Zaila da iristea
eta ez genuke nahi
gero jaistea.

6

Seigarrena badator;
ibil zaitez kontuz!
Arriskutsua baita
Unai momentuz.
Hain ilaje bitxia
dauka ornamentuz;
gainera Sustrairekin
sexua jorratuz:
“postura aldatuz”
“coitus interruptuz”
esan zuten kantuz;
gainera talentuz.
Iturriagak badaki
hau eskarmentuz.

7

Belodromoan giro,
kanpoan izotza;
artaldean zanpatu
zuten oholtza;
beti bezain argala
durangar bildotsa;
beteranoa baina
halere arrotza.
Bertsotan zorrotza,
berbaldian motza;
galdu arren lotsa,
taupadaz bihotza...
Zazpigarren izan zen
Igor Elortza.

8

Jexux Mari Irazu,
larrauldar sanoa;
“Kronikak” jan ote du
nire susmoa?
Ereñotzun prestatuz
ia minimoa,
agian ez du bete
hark bere asmoa.
Da beteranoa,
badu animoa...
Esatera noa:
Zuk esku-frenoa
gabe proba ezazu
belodromoa.

9

Berriz ere Andonik
jarri du nibela,
ezustea izango
baitzen bestela.
Nahiz Maialenek eman
ia-ia epela,
Egañak erakutsi
du onena dela.
Hain saio itzela:
handian nobela,
txikian pintzela,
puntuka, kartzela...
Bikain defendatu du
bere txapela.

2002ko "II Okelar" bertsopaper-lehiaketan (Mutriku) 2. saria lortutako bertsoak.

Lapur alua (2002)

Doinua: "Iparragirre abila dela"

1

Hamabi urtez autoa izan dut
nire zerbitzari fina
eta une hau helduko zenik
ezin nuen imajina.
Baina gauez lapurrak,
gaizto eta maltzurak,
egin zuen ahalegina:
kotxea ostu eta hondatu;
zeinen ekintza zikina!

2

Urte hauetan milaka ordu
pasa ondoren zurekin,
esan dezaket lanari oso
gogor zeniola ekin;
nahiz askotxo zanpatu
edo gaizki tratatu,
beti hainbeste etekin;
agindu gabe ere askotan
bazenekien zer egin.

3

Ekainak zazpi, ostiral goiza,
ni zazpiak inguruan;
ustez autora nindoan lasai,
lanak sailkatuz buruan.
Nahiz hasi bere bila,
falta zen berebila!
Gero nire apuruan,
"mekauen" hotsez jarri nituen
santuak dantzan zeruan.

4

Udaltzaingora deitu orduko
entzun nuen albistea:
«Lapurte eta lortu omen du
Arabara iristea...».
Zerrikeri hutsa da!
Galdu nuen patxada,
jasoz hain berri tristea;
ez da normala ostiralean
ni hain goibel ikustea.

5

Bi ordu edo igaro behar
gure herriko Ertzaintzan;
gero Gasteizko Herrizaingoa
entzunak jarri zalantzan:
«Bidean baztertuta,
dago matxuratuta;
ezin dute jarri martxan...».
Mila galdera, txostenak bete;
telefono asko dantzan...

6

Kamioi-gruan kotxea jarri
han ordubiak aldera;
ehun eta hogeit bat kilometro
gure hiri zabalera.
Ostirala izanik,
azkar konpondu nahi nik,
baina niretzat galera:
«Asteartean iritsiko da...»
Hobe astoa ta lera!

7

Eta lau egun beranduago,
berebila tailerrear;
egia esan, ez zen aurkitzen
oso modu ederrear;
hauxe izan zen broma:
hautsia Fiat Croma;
zulo on bat karterrear...
Zer kristo egin ote zioten
gelditzeko bazterrear?

8

Autoa ongi zebilen eta
txatarrera ezin bota;
karrozeria itxuraz ongi,
ez behintzat herdoilak jota.
Leial bezain zintzoa,
izan gabe mantsoa;
matrikulak ez du inporta,
zahar samarra gelditu arren
mila zazpiehun... AJ.

9

Desguazean erosi eta
jarri beste motorea;
egia esan nire autoa
gelditu da dotorea.
Orain entzun, lapurra,
gaizto eta maltzurra:
aldatu zait umorea;
lapurtzekotan beste bat ostu,
ez granate kolorea.

10

Zein aseguru handi-manditan,
urte askotan bezero;
horrelakoak probatzen dira
zerbait gertatu ezkeru.
Nahiz polizan babesa,
jarrera aldrebesa
ta hitz-borrokari astero:
«Erabateko hondamen» kaskar
hori ez nuen espero.

11

Nire errua ez izan arren,
ez daukat arazo gutxi;
garajeraino autoa sartzen
ez zidatelako utzi.
Agindurik herriak,
espaloiak berriak;
ondoko kaleak hautsi...
Orain faktura Alkateari
behar diot erakutsi.

Txapela (2002)

Doinua: "Iparragirre abila dela"

1

Askorentzat da apaingarri bat,
besteentzat berokia
eta aitonen buruan berriz
hain da gauza egokia;
beltza ta biribila,
askotan bere bila
saiatzea, utopia;
merezi duen buru gainean
baitu berezko tokia.

2

Baserritarrek izaten zuten
erabiltzeko joera,
esango nuke kentzen zutela
gauzez sartzean ohera
eta jartzean mahaiari,
otorduko garaian...
Aldatu da egoera:
behar eta ez janzteak dakar
burusoilen joera.

3

Hori jantzita aritzen ziren
Uztapide ta Basarri,
gazte nintzela euren saioak
entzuten nituen sarri;
serio ta umorez,
bertsokera dotorez,
fin erantzunez elkarri;
gaurko gazteek nahiago dute
belarritakoa jarri.

4

Ez jantzi arren, bertsolariak
beti doaz horren bila;
egia esan berdin gainera
neska izan nahiz mutila;
txapeldunaren gaina,
horren zain dago baina,
Egaña hain da abila:
bat behar eta hiru baditu,
hortxe dago maratila.

5

Pelotarien kasuan berdin,
hori baitute helburu;
berdintsu zaie lau t'erdikoan,
binaka ta buruz buru.
Nahiz eduki gehiegi,
saiatzen zen Retegi:
ezker-eskubiz seguru;
denak batuta dituen arren
hark hogeita bi inguru.

6

Zuloa gora jarri ezker,
bildu ohi dira txanponak;
hau aspaldiko ohitura dela
esaten digu aitonak;
orain euroarekin
behar dionak ekin:
bileteak dira onak
eta biltzeko ahal bada hobe
handiak eta sakonak.

7

Neurriz handiak izanda ere,
kaskoa ezin kabitu;
Euskal Herriak leku askotan
burutzar onak baditu:
egin ezazu bira;
joan Kortezubira
eta Markori aditu...
Berari ere oso txikia
ezin zaio oparitu.

8

Lehen ugariak izaten ziren,
gaur, zorionez, bakanak;
bere burua ez dauka ongi
hori ahaztuta daukanak;
normalki bikotea,
gainera bibotea;
uniforme berdez danak...
Badira hemen txapelokerrek
kartzelara eramanak!

9

«Alde hemendik» eskatu eta
gero ase egarriak;
joan ziren bai txapelokerrak
eta azaldu berriak;
lehengo haien ordainak
orain daude ertzainak:
herrizain txapelgorriak...
Ea euskaraz ikasten duten,
eskertuko du herriak.

10

Urtero zita berdina dute
San Martzial inguruan,
jantzi dotorez hornitu eta
txapel gorria buruan;
bakoitzak bere arma;
non dago horren xarma?
Armadakoen moduan;
zer nahi dute hor emakumeek
“militar” hauen munduan?

11

Militar hitza aipatuz gero
kontuz ibili laguna,
sarraskirako duten joera
dugulako ezaguna.
Bush eta Hussein, entzun,
tiroka ez erantzun:
baztertu liskar-eguna,
gerra bat armaz irabazita
ezin da izan txapelduna.

12

Berrehun bat mila ia urtero
ez du ematen gehiegi;
munduan dauden burusoil denak
estaltzea da zilegi;
mende bat eta erdi,
horrenbeste izerdi!
Halere lanean segi,
mundu guztiak ezagutzeko
Tolosa ta Elosegi.

El Diario Vasco egunkarian, 2002an, Tolosako “Boinas Elosegui” ezagunari eskaini-
tako artikulua irakurri ondoren jarritako sorta.

Lazkao Txiki gogoratzuz (2003)

Doinua: "Itsaso hori dago zatarra"

1

Ikusi gabe nik aspaldian;
urte pare bat, hiru agian;
Barrena Kultur Etxean han zen
Lazkao Txiki Sarian. (bis)
Bertsopaperak abian,
lehenengo ekitaldian,
eta Iztueta adi han;
bertso-munduko jende ugari
Argi-Berriren argian;
hau irailaren seian izan zen,
laurogeita hamabian. (bis)

2

Hil zela hamar urtetik gora;
orain hain azkar doa denbora!
Lazkao Txiki, zure bertsoak
niri datozkit gogora. (bis)
Izan zenuen ganora
eta murgilduz bertsoa
sentitzen zinen gustora.
Nahiz azkarregi joan zinen zu
Uztapideren ondora,
zure irrifar iraunkor hura
beti hemen izango da. (bis)

3

Mendian jaio, gutxi hazia;
Lazkaomendi hortan hezia;
Lazkao eta Goierrik ere
fama dute merezia. (bis)
Zen pertsona berezia,
berezko zuen grazia;
nolako abilezia!
Gorputz txikiko gizon handitik
badugu zer ikasia;
hark Abalinen erein baitzuen
ironiaren hazia. (bis)

4

Txikia baina hain atsegina,
zorrotza eta gainera fina;
lagunartea maitatzen zuen,
hori da gauza jakina. (bis)
Hitz jokoetan makina,
adarra joz, nahi adina;
milaka txiste egina...
Zurikerian ez zen ibiltzen,
nahiago egi gordina;
Lazkao Txiki, bertsolaritza
zu gabe ez da berdina. (bis)

5

Umorezkoa edo sakona,
bertsoa ia beti zen ona;
bertsotan gizon aparta eta
paregabeko pertsona. (bis)
Beti hara eta hona,
txistea edota gona,
xelebrekeri ta broma...
Pasadizoak mila zituen,
ongi merezia sona;
erakutsirik metroarekin
ez dela neurtzen gizona. (bis)

6

Neurriz genduen txiki samarra,
gozoa beti ta ez zakarra;
gaztea zela eskola utzia;
halere gizon azkarra; (bis)
aurpegian irrifarra,
adarra jotzen bakarra;
ez zuen maite liskarra.
Joxe Migel hain sentibera zen,
dago aitortu beharra;
denak barrezka jarrita berak
barruan gorde negarra. (bis)

7

Gizon jatorra eta umila,
bat-batekoan oso abila;
Euskal Herrian bertso-saiokak
egin zenituen mila. (bis)
Martxoa nahiz apirila,
udan berriz denak bila;
horrelako bertso pila,
ziria sartuz edo bestela
ateraldi biribila...
Zure irudiak bizirik dirau,
ez zaude erabat hila! (bis)

8

Maite zenuen gure euskera
eta herria, asko gainera;
Euskal Herriak maite zintuen,
azalduz gauza berbera. (bis)
Begiratuta atzera,
ondorioz dut atera
eta noa esatera;
Joxe Migel hil zitzigun baina
hauxe da nire galdera:
Lazkao Txiki txiki-handia
sekula hilko ote da? (bis)

9

Orain bertsotan zeruan sarri,
temako gaiak jarriz elkarri;
Xalbador, Mattin, Enbeita, Zepai...
Uztapide ta Basarri. (bis)
Hor euskeraren euskarri,
kantuan hainbat eztarri;
mila bertso zoragarri!
Baina ETBk saio horien
berririk ez du ekarri;
nik dakidala behintzat "Hitzetik
hortzera"n ez dute jarri. (bis)

Prestige (2003)

Doinua: "Itsaso hori dago zatarra"

1

Azaroan zen, kosta inguruan,
petroliontzi bat apuruan;
ordurarte han "Prestige" zebilen
ustez modu seguruan. (bis)
Istripua hamahiruan:
pitzadura altzairuan;
kezka ugari buruan...
Eskarmentua duen kapitain
Mangouras zuten buru han,
baina halere gutxigatik gaur
ez daude denak zeruan! (bis)

2

Asmatu zuen bete-betea,
kapitain horrek hau esatean:
«Itsas barruan puskatuko da,
olatu hauen artean...» (bis)
Gero euren atakean,
jardun zuten jo ta kean,
"Prestige" harturik menpean;
hor ontzia bi puska eginda,
zatiturik instantean,
desagertu zen itsas gainetik
ia-ia bat-batean. (bis)

3

Gauza tristeia izan zen hori,
itsas azpira baitzen erori
eta salbatzen ahalegintzea
nonbait ez otu inori. (bis)
Fuela zegoen lodi;
gero kaltea denori,
entzunez mila histori.
Nik aukeratu beharko banu,
egurra hainbat astori:
poltrona eta soldata kenduz
politikari askori. (bis)

4

Ontzi barrutik gero txorrota,
itsas azpitik zikina bota;
hiru mila ta bostehun bat metro
edo gehiago igota: (bis)
ur gainean galipota,
hain beltza den fuel mota;
zikin utzirrik arroka...
itsaslabarrak eta hondartzak;
turismoaren porrota.
Legeak bete arazi edo
alferrik zaude, Europa! (bis)

5

Kapitain hura saiatu baina
kartzela jaso zuen ordaina;
agintarien aginduak hark
zintzo betez alajaina! (bis)
Ez zuen inor engaina
eta isilik mingaina,
nahiz bera zen kapitaina.
Hor politiko potolo batzuk
kulpa badute hark haina;
erabakiak oker hartuta
ere soldata bikaina! (bis)

6

O! Corrubedo eta Muxia...
Corme, Arousa... kosta guzia;
buruz badakit, telebista maiz
dudalako ikusia. (bis)
Ontzi bat hortxe hautsia
eta hondora jausia;
horrek sortu du auzia:
Arrantzaleak langabezian;
zein eremu itsusia!
Agintarien nagikeriaz
dago erabat utzia. (bis)

7

Gertakizun hau hain da larria
eta gainera harrigarria;
Galiziatik Bordeleraino,
tartean Euskal Herria... (bis)
Gero miseri gorria,
handik hona etorria;
kutsadurak ezarria.
Bada izen bat isuriari
kazetariak jarria:
“txapapotea”, zikina zara,
benetan nazkagarria. (bis)

8

Hainbeste bidai Galiziara,
jende arruntak auto-ilada;
laguntzarik ez eskaintzeak hor,
sortuko luke ikara. (bis)
Negua edo udara,
beste plan ugari laga,
bolondres joanda hara:
Garai bateko auzolanean
bezala aritu gara;
gipuzkoarrok gailegoekin
anaituak gaude jada. (bis)

9

Urruti hasi, heldu da hona;
ezin da esan hau denik ona;
kutsatu dira bazter guztiak,
arazoa da sakona. (bis)
Ez da txantxa, ez da broma,
garbitzen hainbat pertsona;
aita, semeak, aitona...
Euskal Herrian bildu dituzte
hogeita bost mila tona.
Badago lana ez aspertzeko
langabezian dagona. (bis)

10

Hainbat arazo eta ezuste,
galipot beltza, besteak beste;
emakumeak belztu nahiean,
hondartzan jai eta aste. (bis)
Adineko eta gazte,
eguzki-printzaren eske;
hankak zikindu litezke...
Titimuturrak bistan utzita
nahiz eta sentitu aske,
“top-less” zaleak itsas ertzean,
kontuz ibili zaitzte! (bis)

Xabier Oleagari ongietorria (2003)

Doinua: "Itsaso hori dago zatarra"

1

Otsailak hogei, egun tristea:
Xabier hartu, gero bestea...
Epailearen erabakia:
atxilotuta uztea. (bis)
Gogorra zen albiste;
horrelako ezustea
zu kartzelan ikustea!
Izorratzeko ez zen nahikoa
"Egunkaria" ixtea...
Demokrazian gogorra baita
diktadura iriste! (bis)

2

Salto del Real, Navalcarnero;
espetxeotan gero bezero;
sendia eta lagunak utziz,
sorturik mila endredo. (bis)
Bizkarra agian bero
eta mehatxuak edo...
kartzeletan sartuz gero.
"Demokrazian" bizi gara,
ari dira egunero;
ondorioak ikusi eta
ezin da asko espero! (bis)

3

Beti lanean, ari ta ari,
hori guretzat dago nabari;
zu euskalgintzan murgildu zinen,
hor eginez lan ugari: (bis)
ogibidez kazetari,
ikastolan lehendakari;
gogoz ekinez lanari.
Eta kartzela izan da gero
ordaina edo lansari;
baina, Xabier, segi lagutzen
Orereta Ikastolari! (bis)

4

Askatasuna zure jomuga,
maitatzen baita galtzen den hura!
Herri honetan euskaltzaleok
horixe genuen gura. (bis)
Itzuli zure kargura,
berriz jarririk ardura,
herriaren zerbitzura.
Euskalgintzatik baztertu arren,
ubidera doa ura;
lehengo ildotik jarrai ezazu,
naiz bihurtu abentura! (bis)

5

Euskaldun eta zintzoa zara;
izateari zergatik laga?
Gaur euskaltzale sentitze hutsa
delitu bihurtu bada; (bis)
pentsatzeko dut parada
eta esango dut hara:
sasi-demokrazia da!
Diktaduraren mozorroa da
eta sortzen du ikara;
bere hatzetan harrapatuta
gelditu zen Oleaga. (bis)

6

«Egunkarian dagola ETA»,
aitzakiren bat behar da-eta;
euskal kultura desegitea,
helburu dute gordeta. (bis)
Agintarien kasketa,
ez dute nahi bereizketa;
Auzitegian nahasketa...
Frankismoari jarri diote
demokrataren kareta;
politikari kaskarren erruz
baztertuz elkarriketa. (bis)

7

Errurik gabe hori egina,
disimulatu ezin den grina;
ze demokrazi mota dugun hau
konturatuko bagina! (bis)
Orain sendatzeko mina,
egin behintzat ahalegina,
gure euskaltzale fina.
Gauzak horrela gertatu dira;
hori da aldaezina...
Baina, Xabier, jarrai izaten
beti izan zaren berdina. (bis)

8

Gauzak hobetzen badugu lanik;
egin dutenak ez du izenik;
juztiziaren injustizia
aipatu nahi dut jadanik: (bis)
Gizon jatorra izanik,
hain trago txarra jasanik,
ez al dago zer esanik?
Akusazio zehatzik gabe
espetxera eramanik...
Demokrazian ezin sinetsi;
badut arazo latza nik. (bis)

9

Hitz polita da "demokrazia";
hala da guri irakatsia...
Belaunaldi bat pasata gero
horra gure desgrazia: (bis)
Diktaduraren hazia,
berriz indartzen hasia,
hau egoera nahasia!
Baina sakonki aztertuz gero,
badugu zer ikasia:
herri bezala zergatik dugu
horrelako ahulezia? (bis)

10

Begiratuta gaur urrutira,
iluntasunak gorde distira;
Franco hil zela hogeita zortzi
urte orain bete dira. (bis)
Garai latz haiei begira
zabaltzen da ikusmira:
gogorra izan arren, tira...
Etsaien aurka elkartzen ginen,
indarrak batuz sikira;
gaur denok etsai gara indarrak
murriztuz laurden-erdira. (bis)

11

Ikastolari berretsi hitza;
Xabier, landu kazetaritza;
hau baita zure ogibidea
ta hura zure bizitza. (bis)
Beti bezain argi mintza
eta zaindu euskalgintza,
indartuz zure eskaintza;
ez etsi eta goiari eutsi,
hau da lehenengo baldintza;
geroa ilun daukagu baina
ildo onetik zabiltza. (bis)

2003ko "XV. Zاپirain anaiak" bertsopaper-lehiaketan (Errenteria) 2. saria lortutako bertsoak.

Xamalbide (2003)

Doinua: "Ai hori begi ederra"

1

Abuztuaren batean,
etxe-aurreko atean,
Errioxako partean;
oporraldia gozaten hasi
gabea nintzen artean.
Mezu txarra bat-batean,
lagun batek esatean:
«Xamalbide hil da bakean».

2

Nonbait minbiziak jota,
mundu honetatik bota,
etenda bertsoen soka.
Egia esan, bere omenez
idatzi dut bertso sorta;
lan xumea, ez du inporta;
bere bertsokera mota
ia galdua dago-ta.



Joxe Usabiaga Arbelaiz "Xamalbide"

3

Nahiz fraide izan edo apaiz,
ez ditu hartuko etsaiz
zeru aldean, ziur naiz.
Hirurogeita hamabost urte;
zaharragoak hil dira maiz.
Heriok eraman garaiz,
betiko aurpegi alaiz,
Joxe Usabiaga Arbelaz.

4

San Fermin egunez jaio,
gaztetan bertsotan iaio;
neurri/doinuen garraio.
Gipuzkoako Txapelketetan
parte hartuz, zer arraio!
Orain hainbat bertso-saio
utzita esan du aio.
Errespetua zor zaio!

5

Zamalbideko magala
konturatu da hil dala;
hortxe jaiota, normala.
Bertan kantari aritua zen,
hango txoriak bezala;
bizitzan gizon leiala,
orain utzi du itzala.
Jaunak saritu dezala.

6

Haren ahozkotasuna
hemen hain zen ezaguna;
benetako eusakalduna.
Bere inguruan euskal giroa,
beti euskaraz jarduna.
Iritsiko da eguna,
aintzat hartuko duguna,
orain joan den laguna.

7

Bertsozale/bertsolari,
bada zalantza ugari,
begiratzuz hil denari;
Xamalbide hain berezia zen,
beti ari zen kantari.
Zaletasuna nabari,
nahiz ez lortu mila sari,
bertsolaritzan zaindari.

8

Auskalo noiz zen hasia,
bere kabuz ikasia;
agian zerbait nahasia.
Baina bereizten ongi zekien
otea eta sasia,
sagar geza ta gazia;
eta ezohiko grazia;
hark erein zuen hazia.

9

Hankaluze/hankamotza,
neurrian ez hain zorrotza
ta berezia ahotsa.
Lagunartean, tabernan edo
berdin zapalduz oholtza;
beroa edota hotza,
aspaldi galduta lotsa,
bertsotarako bihotza.

10

Ez zen puntakoen pare,
goi mailara heldu gabe;
baina herrian zutabe.
Bertsozaleen omena nahi ta,
ez zen egin horren jabe;
Bertso Eskolak halare,
omendurik bare-bare,
bihurtu zuen ondare.

11

Gero "Bertatik Bertara";
ospetsu, joanda hara:
«Dei-tu zen-ba-ki hon-ta-ra...».
Joxe ETBn agertzen zenez
guk entzun bere euskara;
nahiz ta ikusi kamara,
sentitu gabe ikara;
gaur egiten dit zirrara.

12

Zerura hainbeste bide,
bidezidor, errepide;
gaur han mila adiskide.
Elektrikari, argia jartzen;
hori zenuen lanbide.
Itzali zen Uztapide...
baita Lazkao Txiki´re.
Piztu itzazu, Xamalbide!

2003ko "XV. Zapirain anaiak" bertsopaper-lehiaketan (Errenteria) aipamen berezia (akzesit) lortutako bertsoak.

2004ko *Oarso* aldizkarian argitaratuak.

Gipuzkoako bertsolari-txapelketa 2003 (2004)

Doinua: "Ikusten duzu goizean"

0

Irunen zen bertso-festa
ta Artaleku gainezka;
ongi ikusi zen, ezta?
Gipuzkoako txapelketari
ezin zaio gehio eska:
sei mutil eta bi neska;
urduritasuna, kezka...
nahiz finala ongi presta.

1

Hernaniarra, jakina,
kartzelakoan makina;
handi-txikian berdina.
Printzearekin ezkondu gabe
bihurtu da erregina;
Maialen da atsegina
eta bertsolari fina;
bertsotarako egina.

2

Txapeldunorde Jon Martin
hogeita bi urterekin;
ez dago giro honekin!
Oiartzuar hau jantzia dago,
lehendik ere bagenekin;
bertsotan dabil oso fin,
beti ekin eta ekin,
lorturik hainbat etekin.

3

Mendiluze hirugarren,
saio ona egin arren;
puntuazioan herren.
Gipuzkoako txapeldun ohiak
intentzioa zekarren
irabazteko ziurren,
baina ez zen izan aurren;
nahiz ta iruditu pozarren.

4

Laugarren izan zen Maia,
podiumean ia-ia,
zumaiar mutil alaia.
Txapelketa hau irabazteko
ez zaio heldu garaia;
nahiz hori den bere nahia
eta hain gogotsu saia,
hirukotea etsaia.

5

Gurrutxaga da gaztea
ta bosgarren ikustea
askorentzat ezustea.
Bere atzean handi bat utziz,
bikote ona bestea;
erraza da amestea,
zaila ongi abestea
eta lortzea ospea.

6

Hain jatorra den mutila,
sanoa eta umila,
bertsotan oso abila.
Hau Jexux Mari Irazu dugu;
nahiz joan garaipen bila,
mantso errimen gurpila
eta arazoak mila;
hortxe dago maratila.

7

Ekaitz da beasaindarra,
serio bezain azkarra;
orain galdu du indarra.
Idatzietan goi mailan dabil,
dugu egungo izarra,
baina bat-bateko marra
dauka gainditu beharra;
oraindik gazte samarra.

8

Neska bat dugu aurrena
eta bestea azkena;
Amaia bere izena.
Villabonako emakumeak
badu bertsolari-sena,
gaitasuna nahiz kemena;
ez izan arren onena,
erakutsi du sormena.

9

Txapelketa honen akta
historiarako da-ta,
jarriko diogu data:
Abenduaren hamalaua da,
finalean dute kanta.
Maialenek lehengo planta,
orain txapela galanta;
hau da hau neska xarmanta!

Sorta honetako zenbakiak finaleko zortzi bertsolarien sailkapen-ordena adierazten dute, salbuespen hauekin: 0 (sarrera) eta 9 (amaiera).

Marco Pantani gogoratzuz (2004)

Doinua: "Itsaso hori dago zatarra"

1

Italiako Cesenatico
negar malkoez egin da ito
horko herritar Marco Pantanik
ihes eginda betiko. (bis)
Berriz erasotzen tinko
beraz ez dugu ikusiko.
Joan zaigu eta kito!
Tourrean ere maillot horirik
ez du gehiago jantziko.
Agurrik esan gabe joan da
baina ez dugu ahantziko. (bis)

2

Rimini-n hotel batean hila
gelan zegoen gorpu isila.
Otsail hotzaren hamalau horrek
sortu zuen iskanbila. (bis)
Bertsioak ziren mila
zebiltzan drogaren bila
hor zegoen maratila!
Hogeita hamalau urte baino ez
ustez sasoiko mutila
txirrindulari aparta baina
gelditu zaio gurpila! (bis)

3

Urte berean Giro ta Tourra
besteentzako utziz papurra
hark laurogeita hemezortzian
jo zuen bere gailurra. (bis)
Aldapa gora egurra
arerioek beldurra
zein egoera makurra!
Bortitz eraso eta uste zuen
pelotoiaren muturra.
Ikuskizuna goi mailakoa
baina izan da laburra. (bis)

4

Izugarrizko abilezia
igotzen baitzen hain berezia
bere garaiko onena izanik
fama ongi merezia. (bis)
Erritmo bizi-bizia
erasotzen ikasia
igotzaile nagusia.
Maldak gainditzen jaun eta jabe
baina hau da itsusia:
bulegoetan indartsuago
UCI eta Justizia. (bis)

5

Pedal biekin hasten zen dantza
ezker-eskubi neurtuz balantza
beste guztiak segi ezinik
galtzen zuten esperantza. (bis)
Eserlekutikan altxa
tropeletik azkar martxa
jarririk erritmo latza.
Ez zinen gizon handia, Marco,
baina bazeneukan gatza.
Zu bezain zuzen ibili al da
Justiziaren balantza? (bis)

6

Zerura igo eta infernura
jaitsi zen gero jainko zen hura.
Hematokrito-tasa altua:
zerbait pasatxoia muga. (bis)
Dopajearen ardura
horrek sortu zuen duda
hor hasi zen abentura...
Beste Giroa irabazteko
gertu izanik helmuga
lider zen baina kanpora bota
eta piztu zuten guda. (bis)

7

Lur jota utzi zuten gizona
zalantzan jarri fama ta sona
horrek Marcori eragin zion
sortuz arazo sakona. (bis)
Hauxe da UCIk ziona:
«EPO edota hormona...».
Gaiztoa izan zen broma:
penak uxatu nahian drogatuta
lehendik garbi zegona
eta kokaina gaindosiak hil
hain txirrindulari ona. (bis)

8

Drogatu zela edo ez zela
ustea sarri hain ustela.
Hematokrito-portzentai hori
hartuz oinarri bezela (bis)
erabakia krudela
emaitza ikusi bestela:
jarri diote eskela.
Justiziaren injustizia
garbi aitor dezatela
drogarik gabe jakina baita
tasa igo daitekeela. (bis)

9

Hematokrito hori zen giltza
altua zela baitziren mintza
Girotik bota eta zigortu
hondatuz bere bizitza. (bis)
UCI horrek zuen hitza
eta txirrindularitza
garbitzeko haize printza...
Baina ehuneko bi pasatzea
ez da nahikoa baldintza
drogarik gabe mila pertsona
hortik gora badabiltza. (bis)

10

Italiako Cesenatico
negar-malkoez ez zaitez ito
horko herritar Marco Pantanik
nahiz ihes egin betiko. (bis)
Orain bihurtu da mito
eta ez al da hasiko
goitik erasotzen tinko...
Igotzailerik onena bera
zela esan eta kito!
Marco Pantani "Pirata" hura
ez dugu inoiz ahantziko. (bis)

Hamaika sufritzeko jaioa (2004)

Doinua: "Itziarren semea" (aldaera)

1

Mila bederatziehun
eta hamazazpi,
uztailaren zazpian
izan zen zehazki.
Jaio zinen unetik
bizitza hain gaizki,
San Ferminen laguntza
ez zen izan aski.
Bizitza hain gaizki;
ez zen izan aski.
Laguntzeko ez zuen
nonbait hainbat asti.

2

Jaio eta ama hil,
hori da grabea;
jaio aurretik aita,
hila zen ordea.
Umezurtz gelditzea,
ze bakardadea!
Bizitzak hori zeukan
zurretat gordea.
Ze bakardadea!
Zurretat gordea.
Mereziko zenuen
haurtzaro hobea.

3

Egoera krudela,
ez zen aitzakia:
gurasoak hil eta
anaia txikia;
haurtxoarentzat hori
zen desegokia;
amatxoren magala
baitzen berokia.
Zen desegokia;
baitzen berokia.
Maitasunaren soka
azkar ebakia.

4

Bizirik jarraitzea
soilik zen helburu;
gurasorik ezean,
galduta seguru;
gero senitartean
hainbeste apuru,
jaioterria utziz:
agur, Leaburu!
Hainbeste apuru;
agur, Leaburu!
Bizi-leku bihurtuz
hainbeste inguru.

5

Ibilbidean gero
Hernani aldera,
Sarobe izeneko
baserri batera;
osaba ta izebak
eginik harrera,
aurrera egiteko
zenuen aukera.
Eginik harrera;
zenuen aukera.
Eskola motzekoa
bihurtuz karrera.

6

Gazterik ikasita
lan-mota ugari,
baserriko lanetan
neskatxa nabari;
ukorik egin gabe
lanaren zamari;
orduana ere lana
langile zenari.
Lanaren zamari;
langile zenari.
Osaba ta izeba
bertan agintari.

7

«Hau garbitu, Anttoni,
zaintzeko itxura.
Iturritik ekarri
pitxerkada ura.
Artoa jorratzeko
garaia heldu da...»
Lanean aztarrika
negu eta uda.
Garaia heldu da...
Negu eta uda.
Neskame jarraitzea
zen zure helmuga.

8

Aginduak betetzen
eginkizun mila;
eskerrak langilea
zela neskatila;
bizkorra, trebatua,
gainera umila;
nola ez zen joango
inor bere bila?
Gainera umila;
inor bere bila?
Sortu ez balitz piztu
zen gerra zibila.

9

Guda jasan ondoren,
ezkondu ezkeru,
bizitza hobegoa
agian espero.
Baina lana ugari
ezkondu ta gero:
ganadua, umeak...
zaintzen egunero.
Ezkondu ta gero,
zaintzen egunero.
Baserrian sortzen zen
hainbeste endredo!

10

Baserrira ezkondu,
hasieran maizter;
baina gero erosi,
pentsatu ta laister;
mailegua ordaintzen
ez zineten asper,
senar-emaztearen
gogoari esker.
Ez zineten asper,
gogoari esker.
Izerdiaz bustita
horrenbeste bazter.

11

Zikoinak lau alditan
jo zuen aldaba:
hiru seme jarraian,
laugarren alaba;
hiru urtetik hirura
etorriak gara;
ni hirugarrena naiz,
esateko jada.
Etorriak gara;
esateko jada.
Nor maitatu amarik
maitatzen ez bada?

12

Mutil koxkor nintzela,
aitaren glaukoma,
familiar sorturik
arazo sakona:
pixkanaka itsutzen
joan zen gizona;
duela zazpi urte
hildako pertsona.
Joan zen gizona;
hildako pertsona.
Ihes joan zen, ama,
zure zoriona.

13

Bi mila eta bata,
zer urte ankerra!
Gangrenak jota moztu
zizuten izterra;
zutik jarri ezinik,
kenduta ezkerra;
bizitza bihurtu zen
erabat okerra.
Kenduta ezkerra;
erabat okerra.
Oinazeak nagusi,
akabo plazerra!

14

Nahiz gaztetatik bide
zuzenari ekin
eta zailtasunari
beti aurre egin,
ama, krudela izan da
bizitza zurekin;
halere lortu duzu
hainbeste etekin.
Bizitza zurekin;
hainbeste etekin.
Nahiz gehiago merezi
zenuela jakin.

15

Laurogeita zazpi urte,
ahuldua bihotza
ta irailaren bian
heldu heriotza.
Ohean ikusita
zure gorpu hotza,
malkoei ezin eutsiz
eten zait ahotsa.
Zure gorpu hotza;
eten zait ahotsa.
Seme batentzat baita
benetan mingotsa.

16

Zailtasun guztiekin,
ez zenuen etsi;
horregatik zintudan
hainbeste miretsi.
Oraindik hil zarenik
ezin dut sinetsi;
konturatu ninteke
bihar edo etzi.
Ezin dut sinetsi;
bihar edo etzi.
Malkoen itsasoak
ez banau irentsi!

17

Haurtzaroan zuk eman
zenidan bularra;
elikagai bikaina,
gainera azkarra;
eta zure altzoan
sarritan negarra
eginda izan nuen
laztanen beharra.
Eginda negarra;
laztanen beharra.
Ama, zu izan zara
niretzat bakarra.

18

Atsekabea heldu
denez niregana,
minak etsipenera
ia-ia narama.
Egia esateko
astuna da zama,
gogoetak arinduz
hala ere drama.
Astuna da zama,
hala ere drama.
Zerurik baldin bada,
hantxe zaude, ama!

40. ikasturtea ospatzeko “Q” saria (2004)

Doinua: “Aita izena kanta beharrak”

1

Azken mendeko hirurogeita
hirugarren urte hura
ezin da ahaztu, haur bat bezala
etorri zenez mundura:
«Seme-alabak euskaraz hezi...»,
sortzaile haien ardura;
ez baitzieten irakatsi nahi
frankismoaren kultura,
baizik mintzatuz ama-hizkuntzan,
hura zelako tortura.

2

Ez zen txikia guraso haiek
jarri zuten interesa;
egia esan, sorrerarako
hain zen une aldrebesa.
Nahiko arazo bazen orduan,
irakaslegorik eza,
eta garaiko diktadura hark
sortzen zuenez estresa...
Eskerrak hemen elizak behintzat
eskaini zuen babesa.

3

Frankismoaren intentzioak
zirenez oso garbiak,
gure euskara amildegira
zeraman bere gurdiak...
Urte ilunak izanagatik
bazeuden gizon argiak;
egoerari aurre eginez
blai eginda izerdiak,
ikastola bat eratu zuen
gurasoen ausardiak.

4

Hemezortzi bat ikasle eta
andereñoa bakarra;
berau Arantza Idiazabal,
dago aipatu beharra.
Guraso-talde euskaltzalea,
gainera jende azkarra;
gure euskara zegoelako
herrian galdu samarra,
euren ametsak egi bihurtuz
agertu zuten indarra.

5

Urte haietan hemen hizkuntza
zegoen nahiko nahasia;
etorkinekin herria bete,
euskararentzat hesia;
Xenpelar sortu zuen herriak
horrelako desgrazia!
Guraso trebe haietxei esker
badago non ikasia,
gaur Orereta sendo baitago,
errotu eta hazia.

6

Gero herriak erantzun zuen,
ez zen erantzun makala;
bide zuzena huraxe zela
konturatuz berehala.
Diru aldetik miseri latza,
baina ikuspegi zabala;
jo ta ke denak murgildu ziren,
auzolanean bezala.
Zenbat kostata eraikia den
gazteak jakin dezala.

7

Irakasleen aldetik ere
hura zen militantzia!
Lan asko eta gutxi kobratu,
nahiz eta egon jantzia.
Titulurik ez batzuek eta
besteen esperientzia...
Uztarriari lotuta, tira;
horrek zuen garrantzia.
Baina orduko izpiritua
gaur ez al dago ahantzia?

8

Ikaslegoa gora zihoan
eta Añabitarera
igotzerako norbaitek ongi
ikusi zuen aukera.
Baserria ta lurra erosi,
gero eraiki gainera;
horretarako mailegu latzak
egin zituzten atera
eta gainera ongi xahutu
bakoitzak bere kartera.

9

Eta hurrena Batxilergoa;
berriz beste eraikuntza.
Maila ertainen irakaskuntza,
horixe zen bere funtsa.
Euskara indartzen hasia zenez
nola ukatu laguntza?
Ikastolaren baitan egonik
urte haietan hizkuntza,
zorrak ordainduz eskaini zuen
kalitatezko hezkuntza.

10

Kilometroak antolatzea
ere gertatu zen gero;
zortzigarrego edizioa,
pentsatzen jarri ezkerro.
Denok jo ta su aritu behar
urte hartan egunero.
Urriak zazpi, jende-uholdea:
ehun milatik gora edo...
Jendetza hura, baikor izanda,
ez zuen inork espero.



Añabitarteko eremua 2005ean. Geroztik aldatua dago

11

Gela berrien beharra gero,
erdigunean, kalean;
baina Udala oker zebilen
nire uste apalean.
Lurzoruari uko eginez,
ibili zen itzalean:
“Lino”, “Patxiku”, “Esmalteria”...
hauetan gaizki; kale, han.
Horrelakorik ez zen gertatu
Euskal Herri zabalean.

12

Publiko edo pribatu izan,
aitzaki hutsa zen hori;
politikoen azpijokoan,
ez zinen behintzat erori!
Pribatu hitza entzun orduko,
odola jartzen zait gori...
Berrogei urte iraun duenak
badu nahiko kategori;
beste berrogei bete ditzala,
nahiz ta min eman askori!

13

Gaurko guraso gazteek orain
segi dezatela jator
eta Ikastola babestu beti,
gatazkaren bat badator;
hondamendira eramateko
aski baitira lau sator...
Urte askotan jarrai dezala
gaur bezalaxe emankor,
edo bestela zeru goi hortan
haserretuko da Bittor!

14

Berrogei urte pasa ondoren
sendotu zaigu arbola;
landatu zuten zuhaitz huraxe
ez da hazi edonola.
Esango nuke irakaskuntzan
puntaren puntan dagola;
zilarrezko “Q” horren distira
ezin da galdu inola.
Mila zorion, lanean segi,
Orereta Ikastola!

2004ko “XVI. Zapirain anaiak” bertsopaper-lehiaketan (Errenteria-Orereta) aipamen berezia (akzesit) lortutako bertsoak.

Yasser Arafat (2005)

Doinua: "Itsaso hori dago zatarra"

1

Abertzalea, oso tinkoa;
Buruzagia, ez zen ohikoa.
Yasser Arafat Palestinan zen
hil arte ia jainkoa. (bis)
Borrokatu du nahikoa
bihurtzeko mitikoa,
baina ez da logikoa:
bere lurralde okupatuan
zeukaten ia itoa.
Paris aldean oraintsu hila,
bihurtuko da mitoa. (bis)

2

Zisjordania eta Ramala
aurkitzen dira Gaza bezala;
juduen menpe bizi beharra
ezin da izan normala. (bis)
Lehergailu eta bala,
arriskua berehala:
bizitza han da hutsala.
Esango nuke konponbideak
martxa txarra daramala.
Israeldarren harrokeritik
Alak babestu ditzala. (bis)

3

Lurrak kenduta etxeak bota,
dena suntsitu eta tiroka;
indarkeria nagusitu da
krudela baita borroka. (bis)
Han dabilta elkar joka;
amairik gabeko soka,
ezin zaio inori opa.
Israel da gaur jaun eta jabe,
txit babestua dago-ta.
Amerikarrei hango gatazka
ez zaielako inporta. (bis)

4

Hain egoera larrian jada,
umeen gerra da *intifada*.
Hauek harrika tankeen aurka
munduarentzat lotsa da. (bis)
Zakurrak ote dira ba?
Konturatzen ote gara?
Oraindik ez, beharbada.
Egia esan, Europak ere
merezi du harrikada;
sarraski hori onartze hutsak
ematen baitu ikara. (bis)

5

Palestinari emanda hitza,
eskaini zuen bere bizitza.
Berrogei urte luze hauetan
borroka izan da bortitza. (bis)
«Askatasunaren giltza
aurkitu nahian gabiltza»;
hori zen bere egintza.
Ez zuen oso erraz onartzen
aurkariaren plangintza.
Sortzea Estatu palestinarra:
hori zen bere baldintza. (bis)

6

Bere bizitza kausaren alde,
bakea ezin lortu debalde;
artzain-lanean aritu arren,
zaintzen hainbeste artalde: (bis)
Yihad, horri nola galde?
Hamas, beti arma zale;
Al-Fatah, zen begirale.
Al-Aksak eta beste taldeek,
egingo balute kale?
Konponbidea, hemen bezala,
erraza ez den seinale. (bis)

7

Gordea neukan egunkaria:
jaso baitzuen Nobel saria.
Lurralde hura baketu nahian
eginik lan nabaria. (bis)
Bikote bat aurkaria;
hirurentzat oparia:
bakearen ataria!
Hamar bat urte pasa ondoren
korapilatzen haria;
gaur justizian oinarritzen den
bakea da miraria. (bis)

8

Justizia da berez oinarri,
errespetua behar elkarri;
lurralde hortan bakea horrek
beharko luke ekarri. (bis)
Kostata ikaragarri,
hauxe nahi dut iragarri,
alderantziz baita sarri:
Indarkeriak, armaren bidez,
bakerik ezin du jarri.
Palestinarren Estatu hori
bihurtu denez giltzarri. (bis)

9

Orain alargun utzi du Shua,
Parisen jaso zuen mezua:
ospitalean zegoela hil,
piztuz herritarren sua. (bis)
Politikari itsua,
defendatzaile sutsua,
nortasunez indartsua.
Hirurogeita hamabost urte;
gertu du paradisua:
Mukatan bertan ehortzi dute
abertzaleen maisua. (bis)

Hamabost urte (2005)

Doinua: "Betroiarena"

1

Hamabost urteotan
zerbitzari fina,
lanerako izan du
nahikoa grina;
goizetan egunero
zirkuitu berdina,
gero errepikatuz
goizean egina.
Askotan zikina,
da egi gordina
eta imajina,
bere ahalegina:
lanera joatea
zen atsegina.

2

Ehun eta hoge zaldi,
indarrez motorra:
bi litro, gasolina;
a ze altorra!
Ederki hornitua,
aipatzeko horra:
klimatizagailuak
aire hotz lehorra.
Potentziaz sobra,
igotzen bizkorra.
Gidari jatorra,
baina egoskorra:
askotan eman diot
tratu gogorra.

3

Erosi eta laister
Alemaniara;
hamaika ordu eskas
heltzeko hara.
Hango autobidea
gogoan dut jada;
ileak tente eta
lagunen ikara:
«Berrehundik pasa da;
hau da hau pasada!
Alain Prost al zara?
Ez galdu patxara.
Ez ibili pilotu
horren gisara!».

4

Berrehun milatik gora
badira ugari;
sei buelta ematea
da munduari.
Hainbeste kilometro
jo eta ke ari;
ongi portatu dela
ez al da nabari?
Gauerako sari:
garajea kabi.
Ni beti gidari,
bolantean adi;
goizeko agindua:
«mugitu hadi!»

5

Autoarekin beti,
lana izan edo jai;
baztertuta uzteko
ez bainintzen gai:
lau gurpilen gainean,
azkar edo lasai;
errepidean ez dut
horrenbeste etsai.
Gehienez alai,
bertsotan ere bai;
hitz neurtuetan blai,
eta ez nolana!
Emaztea etxean,
noiz iritsi zai.

6

Obra batzuk medio,
garajea itxita.
Kotxea kanpoan gau
batez utzita,
lapurrak egin behar
hain zuzen bisita...
Agurainen azaldu,
motorra hautsita...
Ertzaintzan hasita,
ezin sinetsita,
morala jaitsita;
nengoen etsita.
Mekanikoarekin
hurrengo zita.

7

Logroñora ehun aldiz
eta itzuli hona:
andre, seme-alabak
eta amona.
Asturias, Caceres
eta Bartzelona...
Esteponako hori,
ez zen bidai ona.
Hautsia zegona
zen uraren goma;
arazo sakona.
Hau izan zen broma:
ura galduz iritsi
zen Fiat Croma.

8

Horrenbeste zerbitzu
egin eta gero,
horrela bukatzerik
ezin espero.
Azkenean ajeak
ia egunero;
tripako mina eta
burua hain bero.
Tailarren bezero,
maiz hasi ezkerro:
hiru aldiz edo;
hainbeste endredo.
Desguazera eraman
eta han bego!

9

Beria erosteko,
ia mila duda;
diruak markatu du
ederki muga.
Turbodieselaren
ordua heldu da:
merkeagoa baita
negu eta uda.
Hori nuen gura;
gainera itxura
onenen modura
eta abiadura...
Honda Accord gidatzen
nabil gustura.

Lance Armstrong erregeen errege (2005)

Doinua: "Ikusten duzu goizean"

1

Txirrindulari aparta,
errepidean zeharka,
onenei eginez aurka.
Zazpi Tour lortu ditu jarraian,
joanda apurka-apurka.
Harroa eta ausarta,
nahiz ezin diogun barka,
hautsi du Indurainen marka.

2

Anquetil, Eddy Merckx, aurrez;
Hinault eta Indurain, legez:
bost Tourren jabe direnez;
merezi dute goraiatzea
egindako ekimenez.
Hobeak ziren edo ez,
jakiterik ez dagonez,
Armstrongentzat zorionez.

3

Historian da bakarra,
dago aipatu beharra,
Lance estatubatuarra.
Amerikarren harrotasuna
orain igota aparra.
Nahiz izan harro samarra,
txirrindulari azkarra;
Armstrongentzat da hamarra.

4

Tourrean behintzat onena;
erakutsi du kemena:
zazpigarren garaipena.
Prestakuntza du aparta eta
bizitza oso zuzena.
Hauxe da bere eskema:
erlojupekoan "dena";
mendian sartuz eztena.

5

Zailtasunean hezia:
gainditurik minbizia,
agertu du trebezia.
Perfekzioa du obsesio,
horretan da berezia.
Pedal-erritmo bizia,
aurkarien ahulezia;
garaipena merezia.

6

Courchevelen abisua,
gorantz garra eta sua;
zegoenez indartsua.
Hasieratik arerioei
nonbait sartu nahi izua
eta bidali mezua:
«Ni naiz hemengo maisua;
niretzat paradisua».

7

Mantso Herasen errota.
Beloki berriz lur jota;
Iban Mayoren porrota...
Ivan Basso bai, ongi ibili da,
bigarren postura igota.
Ullrichek lortu du nota;
Vinokouroven borroka...
Armstrongek horiz maillota.

8

Bizikletan konkistara,
Napoleonen gisara,
errege handi bat zara.
Tourra erreinu bihurtu eta
politikoen ikara...
Dena esateko jada,
garbi esango dut hara:
Frantzia gaur zurea da.

9

Zazpi Tour irabazita;
orain aztertzen hasita:
denak ongi merezita.
Hamabost egun pasa ondoren
maillot horia jantzita,
Parisen zen azken zita,
horiz eginik bisita;
marka guztiak hautsita.

Lance Armstrong amerikarrak, zazpi Tour jarraian irabazi ditu: 1999tik 2005era.

Joxe Mari Aranalde gogoratuz (2005)

Doinua: "Ai hori begi ederra"

1

Heldu zaigu udazkena,
errepikatuz eskema;
sartu baitigu eztena.
Bertsozale txit maitagarria,
hogeita lauan hil zena;
Joxe Mari bere izena,
Aranalde abizena,
bertso-epaile zuzena.

2

Goitik heldu zen mezua,
igotzeko abisua:
«Zain dago paradisua».
Apaiz izanda, irakaskuntzan
ikastolako maisua;
aurrez, sortzaile sutsua.
Bertsolaritzan pisua;
hain zen gizon kementsua.

3

Zintzoa eta jatorra,
euskaltzaleon altxorra;
albistea da gogorra.
Gazteluarrak egingakoaz
handia da gure zorra.
Ihartu arren enborra,
sustraietan dago horra:
bere obra iraunkorra.

4

Burua zuen argia
eta euskara garbia;
jakitunen ausardia.
Urte zailetan garraiatzeko
bertsolarien gurdia,
izan zuen energia.
Apaizaren pikardia:
oholtzetan liturgia.

5

Euskal giroan jaioa,
hizketan oso iaioa;
bikaina hitz-jarioa.
Gutxik bezala ulertu zuen
"arlotte-ofizioa".
Bertsolarien saioa,
zen bere afizioa;
maisuaeren lezioa.

6

Euskara paregabera,
idazten oso trebea;
pertsona ezin hobea.
Hirurogeita hamabi urte:
motz samarra edadea.
Jarrita dago legea:
Mantendu badu fedea,
orain zeruko bidea.

7

Irakaskuntzan tutore,
apaizgintzan erretore,
horretan ere dotore;
izugarrizko koherentzia,
ez soilik apaiz-aktore.
Herrigintzaren motore,
bazuen hainbat adore;
bizirik balego hobe.

8

Santo Tomas Lizeoan,
seguraski luzaroan,
izango dute gogoan.
Añorga eta Tolosaldeko
herri txikien giroan,
mila lan eginik doan,
zerura dute eroan...
Xalbador zain baitago han.

9

Orixe eta Xalbador
pozik egongo dira hor;
harrera ona derrigor.
Olerki eta bertsoak landuz
jarrai hemen bezain gogor,
beti bezalaxe jator;
zeruan ere emankor.
Zoriona hortik dator.

Niessen berria (2005)

Doinua: "Iparragirre abila dela"

FABRIKA

1

Historiari errespetua,
beraz ohartu gaitezen;
leku horretan aurkitzen zena
fabrika bat zen hain zuzen.
Elektrikari-tresnak
eraikitzen onenak,
baina herritik joan zen;
orain urruti ez dago baina
hemen sortu zen Niessen.

2

Ekoi izen ziren, besteak beste,
entxufe eta krisketa;
etxe guztiak hornitu behar
eta ez zen berriketa.
Estatu mailan lider,
izana mila bider;
ahultasunean tarteka.
Gero itxi ta Oiartzunera
egin zuten aldaketa.

TXIMINIA

3

Tximini zaharra aurrena bota,
berria egin ondoan;
nahiz eta lerden ikusi hura
hain egoera sendoan.
Langileen nekea
bihurtzen zuen kea;
zer nahi dute oraingoan?
Jatorrizkoa zergatik kendu;
ez al zegoen ondo han?

4

Adreilu zaharrak berrian jarri,
mantendu nahirik itxura;
baina barrutik burdinezkoa,
orain daukan egitura;
eta goian txapela,
erabaki txepela;
sortarazten du tristura:
berria baita kopia hutsa;
jatorrizkoa zen hura.

PILOTALEKUA

5

Kirol anitzen leku izana:
pilota, eskubaloia...
Ezker paretak neurtzen zuela
pilotarien sasoia.
Txikituta uztea,
egin gabe bestea,
ez zen nahiko arrazoia;
errespeturik gabe tratatu
zuten betiko frontoia.

6

Frontoi luzea, sabairik gabe,
hasieran irekia;
gero estali egin zutenez,
jokatzeko egokia.
Hortik kendu beharra,
zegoelako zaharra,
ez ote zen aitzakia?
Erosoago ez da gelditzen
orain dagoen tokia.

BASERRITARRAK

7

Tximiniaren ondoan daude
baserritarrak erreta,
ez daude oso leku onean
jartzen badugu arreta.
Oraingo saltokia
ez bada egokia,
nola ordaindu errenta?
Babestu gabe gelditzen baita
hor erosleen errenka.

PLAZA

9

Nire iritiz gauza ugari
gaizki daude beharbada;
halere gure agintariek
zerbait ona dute laga.
Izendatzea plaza
ez dakit zen erraza;
euskal kutsua du hara:
herri-kulturan murgildu baita
Xabier Olaskoaga.

8

Azak izoztu, letxuak busti,
haserre nekazariak;
hasieratik euren kexuak
izan dira ugariak;
baina laguntza gutxi:
berdin dituzte utzi;
baztertuta eskariak...
Baserritarrak kaltetu eta
besteentzat opariak.

10

Bere bizitzan landuak ditu
kantua eta bertsoa
eta euskara izan da beti
beraren unibertsoa.
Kulturaren maitale,
jantzia den seinale,
jaso arren erasoia;
hau gutxi balitz, umila eta
gozoa bezain zintzoa.

ZINEMAK

11

Urte hauetan zinemarik ez,
orain sei egin berriak;
berandu baina jada aukera
ederra dauka herriak.
Zergatik Donostira,
autobusean bira,
asetzeko egarriak?
Orain Hollywood herrian dugu;
erne begi-belarriak!

12

Reina, Onbide ta Alameda,
garai batean bai hiru;
urte hauetan ikusi denez
ez daukagu nahiko diru;
tristeak ondorenak,
itxi zirenez denak;
guztioak gara testigu.
Orain berriro ez joateak
zer dakarren badakigu.

MERKATARITZA-GUNEA

13

Non erosia badago orain,
anitza baita aukera;
herria beraz gelditu zaigu
hiriburuen antzera.
Ordutegi zabala,
gaur behar den bezala;
gauza ugari batera:
zinera joan, gauzak erosi,
afaldu eta etxera.

14

Kulturgunea elkartu dute
eraikin berriarekin;
uztartu eta denen artean
lortzeko hainbat etekin.
Garai bateko kea
bihurturik trukea,
betiko izenarekin;
urte askotan jarrai dezala
bertan ekin eta ekin.

Bertsolari-txapelketa nagusiak

1935-2005 (2006)

Doinua: "Betroiarena"

1935-01-20

Poxpolin (Kursaal). Donostia

1

Nahikoa lan Poxpolin
horretan hasteak,
kezka, nekea eta
buruhausteak;
bertsolari onenak
bertan ikusteak,
Lehenengo Txapelketan
denak miresteak.
Batzuen usteak,
besteen ospeak;
Txirritak txisteak,
txapela besteak:
Basarrik jantzi zuen,
hango gazteak.

1936-01-19

Victoria Eugenia. Donostia

2

Basarri ez zen joan
txapelaren bila,
itxita zeukalako
han maratila.
Txirrita, Zepai eta
Uztapide umila;
beste zazpik osatuz
gure eskoadrila.
Entzulego pila,
gutxienez mila;
Txirrita abila,
dantzatuz makila:
txapela lortu eta
txapeldun hila.

1960-12-18
Victoria Eugenia. Donostia

3

Eskerrak hori ez den
gertatuko sarri!
Gerrak etenaldia
zuen ekarri.
Bertsolaritza utzi
ziguten elbarri,
frankismoak botata
horrenbeste harri.
Euskera euskarri
bertsoak uztarri.
Uztapide larri;
garaile Basarri:
bere buruan berriz
txapela jarri.

1962-12-30
Astoria. Donostia

4

Uztapide iritsi
zenez gailurrera,
Basarrik joan behar
bere atzera;
hirugarren Xalbador,
poeten antzera;
Lazkao Txiki gero,
laugarren etxera;
Mitxelena bera,
bosgarren, behera;
besteen galera...
Hauxe da galdera:
horko azken postua
txarra ote da?

1965-01-01
Anoeta pilotalekua. Donostia

5

Berriz ere garaile
saiatuta gogor,
nahiz ta Lazkao Txiki
gertu zuen hor;
ostera hirugarren
sailkatuz Xalbador;
Mitxelena ta Mattin
atzetik derrigor.
Uztapide jator,
bertsotan emankor,
harritu gabe inor,
txapela hari zor;
bere buruan jarrai
zezan iraunkor.

1967-06-11
Anoeta pilotalekua. Donostia

6

Hiru aldiz jantzita
buruan txapela,
Uztapidek azaldu
zuen nibela;
ez zituen lortuko
jarraian bestela.
Xalbador oso gaizki
tratatu zutela:
txistuka horrela,
izan zen krudela;
ze jende txepela!
Erantzun epela:
«...maite zaituztet...» hura
bertso itzela.

1980-01-06
Balda pilotalekua. Donostia

7

Aipatuko dudana
da nahikoa grabe:
beste etenaldia
gerrarik gabe;
hamahiru urteotan
zenbat atsekabe!
Txapela Zornotzara,
Amuriza jabe;
maisuu baten pare,
batuaren alde.
Jon Enbeita bare,
bigarren halare.
Berrikuntzan Xabier
dugu zutabe.

1982-12-20
Balda pilotalekua. Donostia

8

Arerio guztiak
utzita atzera,
Amurizak txapela
lortu osteraz;
beste bizkaitar bat da
bigarren gainera:
"Beltza" deitzen dioten
Lopategi bera.
Batuan hizkera:
euskara, euskera,
bikaina joskera;
agur gipuzkera!
Kultura-mailan behintzat
goaz aurrera.

1986-03-23
Belodromoa. Donostia

9

Entzule kopuruak
egin zuen gora,
frontoia utzi eta
belodromora;
txirrindu-eremuan
egin zuten frogaz,
leku ederra zela
ikusiz gerora.
Lizasok ganora,
zorrotza aizkora;
kantatuz gustora,
txapela kaskora;
Jon, Xabier, Enbeita...
bere ondora.

1989-12-17
Belodromoa. Donostia

10

Aurrena fraile eta
gero bertsolari,
txapela oraingoan
jarriz "Beltza"ri;
Jon Lopategik badu
aipamen ugari.
Sebastian, Euzkitze,
Egaña... kantari;
hainbeste aurkari,
nahiz ta ongi ari
edo egon adi;
atzean nabari.
Txapela azkenean
bizkaitarrari.

1993-12-19
Belodromoa. Donostia

11

Andoni Egaña da
txapeldun berria,
gozatzen ariko da
Zarautz herria;
Euzkitzek agortu du
bere iturria...
Sebastiani ongi
hartuta neurria...
Bere etorria
da izugarria;
kultur egarria,
du ezaugarria.
Txapeldun izateko
iragarria.

1997-12-14
Belodromoa. Donostia

12

Andonik berriz ere
egin du azaina,
oraingoan kostata
izan da baina;
arerio guztiei
ongi hartuz gaina,
saiatu diren arren
txapelduna aina.
Dantzatzuz mingaina,
mugituz bekaina;
hizkera bikaina
zergatik engaina?
Berriz onena izan
baita Egaña.

2001-12-16
Belodromoa. Donostia

13

Egun haietan oso
eguraldi hotza,
negua aurreratuz
goizez izotza.
Egañaren txapelak
hornituz oholtza,
Maialenen saioak
taupadaz bihotza;
Aitor hain zorrotza,
Jon Maiak ahotsa;
Sustraiak galdu lotsa,
Unai ta Elortza...
Zortzigarren Irazu
puntutan motza.

2005-12-18
BEC. Barakaldo

14

Ponpoxo samarra du
lekuak izena;
BECera aldatzea
al da zuzena?
Berriz gipuzkoar bat
izan da onena:
Super Andonik sartuz
laugarren eztena.
Unairen kemena,
Maialenen sena...
Amets gazteena,
Igorren kondena.
Sustrai, Aitor eta Jon
zortzigarrena.

Sagarrondotik dator sagardoa (2006)

Doinua: "Habanera"

1

Zuhaitz ondoan neguan
bota ondoren simaurra,
ukuiluko ongarriak
indarberitzen du lurra;
hostorik gabe arbolak
pairatu behar elurra;
udaberria iristean
negu hotzari agurra.
Orduan loratzen hasi,
ez du garapen ziurra;
sagar bihurtzen delako,
gelditzen zaion apurra;
naturaren mirari hau
ulertzen ez da samurra
sagarrondoa bizi da,
ez baita soilik egurra.

2

Errezila, gezamina,
moko, ugarte, txalaka,
urtebia... normalenak,
nahiz eta dauden ehundaka;
kizkiaz sagasti lauan,
berdin badago aldapa;
etengabeko lana da,
biltzen baitira banaka.
Aleei gakoak sartu,
saskian joz aterata;
makilak eta kirtinak,
nolako egur-zarata;
milaka kolpe orduro,
ze ikuskizun aparta;
erritmoa markatzen du,
baina ez da txalaparta.

3

Garbitu, makinaz jota,
erortzen da tolarera;
pilatu, patsolak jarri,
tabloi lodiak gainera;
estutzen hasi orduko,
zukua azkar atera:
jarioa hasten baita
tindiraino goitik behera.
Pertikari eraginda,
jende guztiak batera;
sasoia neurtu nahi bada,
hor izaten da aukera;
bakoitzaren laguntza da,
indarraren arabera;
lan horri gaur hartu arren
asto-lanaren tankera.

4

Teknologia hobetuz,
orain dauka motorea;
mundu moderno honetan,
modernoia tolarea;
betiko ardatza zutik,
berdin ohol kolorea;
muztioaren txorrotak
berdina du zaporea.
Gero upelean sartu
(upel zuri dotorea),
lehen egurrean bezala
gaur altzairuan gordea;
garbiagoa den arren,
nik ez dakit den hobe;
sagardotegi gehienek
ezarri dute, ordea.

5

Sagarraren azukrea
hor bihurtzen da alkohola;
prozesu kimikoa da,
ia ezin da kontrola;
irakin behar du berez,
gainera ez edonola;
kimikaren zailtasunak
ez dio asko axola.
Jakin behar da barrutik
upela garbi dagola,
tejoa hartzen badu hor,
ezin da edan inola;
sagardogilea gero,
horrek ezin du kontsola;
zertarako hainbeste lan,
kizkia eta patsola?

6

Normal antzekoa bada,
sei graduren inguruan;
bostetik zazpira behintzat,
oso modu seguruan;
sagardogileak beti
sagardoa du buruan,
gero ona lortzen badu
sentituko da zeruan.
Lehenbiziko dastaketa
egin ohi da abenduan;
gero txotxeko garaia,
"jakitun" asko orduan:
«mikatzat edo gozoa...»,
beti hitzaren guduan;
bereizten ez bada ere,
enologoen moduan.

7

Ontzi handitik txikira:
hiru txikiko botila;
upel handia denean,
gutxienez hamar mila;
otsail aldera hasita,
martxoan zein apirila;
hogeitatu upel badira,
hori da hori lan pila.
Gogor saiaturik dira
senar, emazte, mutila...
Kortxo ona sartu behar,
hortxe dago maratila;
salmenta urte osoan,
jendea baitoa bila:
furgoneta hartuz edo
gehinetan berebela.

8

Txotxeko denboraldia,
orain bihurtu da festa,
joaten den jende asko
sagardoazalea ez da;
gazte asko mozkortzera
doaz ta sortzen du kezka;
makro-sagardotegiak,
astebururo gainezka.
Gizarte osoa doa:
zahar, gazte, mutil, neska...
Moda bihurtu da eta
ziur dezaket baieztatu:
edonor azaltzen baita,
sagardotegi galdezka;
Txirritaren garai hartan,
hau ez zen horrela, ezta?

2006an Usturbilgo Udalak antolatutako XXX bertso-paper-lehiaketan 2. saria lortutako bertsoak. Ezarritako gaia: "Sagarrondotik dator sagardoa".

Ospitalean (2006)

Doinua: "Iparragirre abila dela"

1

Puska batean ez dut ahaztuko
ekainaren hamaseia,
ostiral goiza ez baitzen izan
niretzat oso lasaia.
Larrialdietara
igo ninduten, hara:
ospitalera bidaia.
Esperientzi honek eman dit
bertso hauentzako gaia.

2

Galtzak jaitsita, bere hatz finak
ipurtzulora luzatu;
medikua zen neska gazte bat,
baina ez nintzen lotsatu.
Laguntzaile, erizain,
denak zeuden nire zain...
nonbait nahi zuten gozatu.
«Sexu-jolasa ez ote da hau?».
Horixe nuen pentsatu.

3

Bigarrengean, beste zulo bat:
zehatz-meatz zen sudurra;
bertatik behera tutua sartu,
mehea, baina ez laburra;
likido bat atera,
gastrikoa gainera;
erabakia samurra:
ospitallean gelditu behar,
areagotuz beldurra.

4

Hurrengoan zen endoskopia:
ahotik kamera sartu;
froga gogorra izan zen hura,
arnasarik ezin hartu.
Medikuak: «Jaisteko,
urdaila ikusteko...».
Oraindik ez dut ulertu
"txorizo" lodi-luzearekin
nola ez ninduten lehertu.

5

Diagnostiko zehatza oso:
duodenoko ultzera;
agindua zen: «Ohean egon»,
beste gaixoen antzera.
Hamabosgarren gela,
zaharra, baina epela;
terraza zeukan atzera...
Doktoareari puntua jarri:
«Noiz joango naiz etxera?».

6

Barau gorria hasi zen gero:
zirudien gose-greba;
aurren egun bat, gero bestea...
eta kontuak atera.
Sueroa, odola;
maiz tentsio-kontrola...
Hirugarren egunera:
«Gero, agian, izango duzu
jaten hasteko aukera».

7

Astehenean, ordubatean,
iritsi zen oparia,
baraualdia amaitu eta
heldu baitzen bazkaria:
zopa, oilasko-izterra,
asetzeko maizterra;
ez zen arren ugaria,
irentsi ahala pentsatu nuen:
«Gero dator afaria!».

8

Bi gelakide, artistak nonbait:
kontzertua ia gauero,
zurrungak entzun behar zirenik
ez nuen behintzat espero.
Ez zen musika fina,
sortzen baitzuen mina;
loak ezin hartu gero.
Gauerdirako nahiago nuen
habaneraren bat edo.

9

Asteartean, goizerdirako,
sendagileak agindu:
«Hobeto zaude, tratamendua
etxean egin, berdin du...».
Agindu aproposa,
a zer nolako poza!
Horrek ez ninduen mindu;
hobe bizpahiru egun lehenago,
handik bidali banindu!

10

Orain etxean eroso nago:
sofan, ohean etzanda...
egoera hau, niretzat behintzat,
oso bitxia izan da.
Irrati, telebista,
liburu, errebista...
orain kulturaren txanda;
bertsoak ere idatzi arren
ultzera nahi nuke senda.

11

Bakterio txar arraio horrek
sortu du hainbat histori;
egia esan, ez diot behintzat
gomendatuko inori.
Barruak jorratuta,
nauka izorratuta.
«Hestea laster hilobi
bihurtuko zaik, ez banauk uzten
Helicobacter pylori».

Landarbason erraustegirik ez (2006)

Doinua: "Ikusten duzu goizean"

Erraustegia Landarbason eraikitzea erabaki zuen Donostiako Udalak, 2006ko ekainaren 22an. Sorta hau uztailaren 10ean amaitu nuen, gaia pil-pilean zegoen garaian.

1

Oraintsu arte akaso,
aipamenik ez du jaso;
egiten zioten paso.
Nekazal gune paregabea,
mendi, erreka zein baso;
ez hondartza, ez itsaso,
ez dago hainbat arazo:
«Donosti da Landarbaso».

2

Eremu txiki berdea
naturak txukun gordea
suntsitzea da grabea.
Politikoen azpijokoak
erabaki du, ordea...
Alkate lotsagabea!
Udala denez jabea,
Kontxan jartzea hobea!

3

Zinegotzi nahiz alkate,
azal ederra daukate:
sortu nahian hainbat kalte.
Donostiarrek zaborra sortu,
erraustegia aparte...
Ondoan daude bi parke:
hiritarrontzat bi ate,
zaborra iritsi arte!

4

Dioxinak, furanoak,
metal astun ez sanoak;
batzuk kantzerigenoak.
Errauskailutik irtengo dira
izorratuz organoak...
Agintarien asmoak
sortzen dizkigu susmoak,
ez baikara tximinoak.

5

Ezjakinen abentura,
momentutik momentura;
erretorika ohitura.
Hitz polit asko: «Ingurugiro,
baserri eta natura»,
mantendu nahian itxura;
kalekumeen kultura...
Berdin zaie kutsadura!

6

Beste aukerak baztertu,
alde hau gaizki aztertu;
ezin diegu eskertu.
Kobazuloak, trikuharriak
eta harrespilak gertu;
keaz parkeak "edertu",
ur garbiak desagertu...
Ez dute ezer ulertu!

7

Agintarien laineza
edo gaitasunik eza;
ezkutuko interesa?
Hain berezia den leku horrek
beharko luke babesa;
erabaki aldrebesa,
sortu baitu hainbat kexa;
norbaitek zuzendu beza!

8

Aspaldidanik itxuran,
beste hiru herri mугan
eta eragina gугan.
Errenteria, Astigarraga,
Hernani, ez egon dudana...
Nola ordua heldu dan,
armarik gabeko gudan,
borroka hasi da udan.

9

Gaude larri eta estu;
ez gaitu asko babestu,
egon arren bere esku.
Diputazio honen jarrera
guk ezin dugu mirestu,
jakin gabe zer antzestu;
ia ezin da sinestu:
berde dagoena belztu.

10

Busti zaituz, Jaurlaritzaz:
entzun herritarren hitza,
bestela oker zabilta.
Alkate ezgai batek ezin du
hondatu gure bizitza;
zure esku dago giltza,
ahalik azkarren mintza,
indargabetuz plangintza.



Listorretako parkea

60 urte eta sasoi onean (2006)

Doinua: "Iparragirre abila dela"

1

Ezaguna da munduan, baina
ez dugu kirolaria;
gaur egun sasoi onean dago,
hain da gauza nabaria.
Mindegiak adina
urte, baina arina;
begientzat oparia...
Beti haragiz inguratuta,
ez den arren haragia.

2

Sexu kontuak, egia esan,
izan du zer ikusia,
neskentzat oso polita baita;
mutilentzat itsusia.
Agian da sexista,
asmatzaile matxista!
Hementxe dago auzia:
neguan inork ez duela nahi
da arazo nagusia.

3

Jubilazio-arazorik ez;
etorkizuna bikaina:
lan handirik ez egite horrek
onura dakar ordaina.
Bere egin beharra
ez da, ez, hain lan txarra,
ez pentsa denik ertzaina;
titiarekin zerikusia,
baina ez dugu artzaina.

4

Errape denek ez dute behar,
baina sortzen badu kezka:
lau hankekoek baztertuz hobe
andrea edota neska.
Dauzkatenek hain tente,
tribuetan dezente...
ez dira hasiko eska;
arrazista den ez dakit, baina
hori ematen du, ezta?

5

Zer demontre den esan beharko,
amaitu baita jokoa;
lau hirukiko prenda txikia:
goikoa eta behekoa.
Bi pieza baitira,
jarriz gero begira;
hondartzarako nahikoa:
oraindik modan dago bikini,
nahiz dugun aspaldikoa.

6

Sei hamarkada bete berriak;
hori da asmakizuna!
Injineru bat, frantsesa bera,
ez pentsa zenik lizuna.
Eta izena bikini
berak zion ipini;
neskatxen edertasuna,
nabarmen jarriz agertzen zuen
orain daukan osasuna.

7

Louis Réard jaunak, egia esan,
nolako ikuspegia!
Hirurogei bat urte pasata,
dirudi handiegia;
mekanikan abila,
gauza berrien bila...
Benetan diot egia:
diseinatzean ez al zen hobe,
laurdena edo erdia?

8

Mikronesian, Pazifikoan,
aurkitzen zen atoloia:
Bikini hartan oinarritua
izenaren arrazoia.
Han proba nuklearrak,
sortzeko ezbeharrak:
amerikarren pozoia...
Emetasuna indartu zuen,
edertuz behe eta goia.

9

Gu gaztaroan zintzoak ginen,
ez edan eta ez erre;
pelikula bat ikustekotan,
ahal zenean 3R.
Westernak baztertuta,
berdeak aztertuta:
aktore bat aurrez aurre,
bikinirekin ikusiz gero,
ez ginen jartzen haserre.

10

Sexuaren zain, sexurik gabe,
baina hark bazeukan xarma;
bi muxu eta bikinirekin
kargatzen zitzaigun arma;
nahiz apaizek kontatu,
dena zela pekatu...
Ze uneak, ene ama!
komedia bat ikusi eta
guretzat bihurtu drama!

11

Raquel Welch eta Ursula Address,
a zer nolako gorputzak!
Silikonarik ez zen garaian,
bikinin ez zeuden hutsak.
Marylin Monroe bera
ez zebilen atzera;
harrotu zaizkigu hautsak:
orain goikorik gabe dabilta
gaurko neska harroputzak.

12

Batzuk goikoa dendan daukate
eta behekoa kendu;
biluzik datoz mundura eta
hori nahi dute mantendu.
Hobe larruazala
jaio ziren bezala;
pena ere ematen du;
tximino ginen era joan zen;
hobe ulertuko bagendu!

Bikini, Ozeano Barean (Pazifikoan) dagoen atoloi bat da, Marshall Uharteetan. Fama-tua egin zen 1946tik 1958ra froga nuklearrak burutu zirelako bertan. Horregatik atoloi hau guztiz hustua dago, nahiz eta dagoen erradioaktibitate-maila ez den berez hain arriskutsua. Bertako herritarrak Rongerik atoloira eramán zituzten.

Atoloi honen izena eman zioten bainu-arropari: Bikini.

Mohamed eta Amadou anaien odisearen kronika (2006)

Doinua: "Itsaso hori dago zatarra"

1

Pateraren zain daukagu, klaro:
Hemen gehiegi ezin da itxaro;
sendia eta lagunak utzi,
ez ikusteko gehiago. (bis)
Sentitzen gara arraro,
baina Europa zain dago
Afrikatik haratago...
Gure bizitza miseria da
eta iluna zeharo:
Larruazala beltza daukagu;
etorkizuna beltzago. (bis)

2

Agur Senegal, adio Dakar,
etorkizunik ezak hau dakar:
Pentsamenturik ez dugu behintzat
hona itzultzeko azkar. (bis)
Amatxo ez egin negar,
ez dugu ikusiko elkar;
baduzunez hainbat behar...
Euroen bila goaz nahiz eta
Europar tratatu zakar;
ez dugulako hemen izan nahi
aita bezala militar. (bis)

3

Gauetz irtenda, zerua urdin
eta itsasoa kolorez berdin;
goiko izarrak lagun ditugu
eginik mila ahalegin: (bis)
Miraririk ezin egin
eta nahi dugu aldegin
gauaren laguntzarekin.
Susmoa dugu, baina benetan
egia den ezin jakin;
Amadou, entzun: Ala jolasten
ari ote da gurekin? (bis)

4

Uzten denean maite den hura,
pentsamentuak datoz burura;
negar-malkoak, beldur-dardarak,
famiariaren haustura... (bis)
Gogorra izan da uda
gu irteteko mundura
iheslarien modura.
Ozeanoa zeharkatzea
bihurtu da abentura;
bost egun eta itsas erdian,
ez jaki eta ez ura. (bis)

5

Aho lehorra eta marranta;
ez gara iristen sekula santa...
Egarriz eta gosez lur jota,
kezka daukagu galanta. (bis)
Ez da ona gure planta,
hotza ezinik agoanta
bizkarrean jarriz manta...
Ura besterik ez dago eta
edateko ura falta;
kalbario hau baino hobe hil,
agur, Europa xarmanta! (bis)

6

Sei egunotan hiru hil dira,
baina bizirik gaudenez, tira;
kapitainaren jarrerak sortuz
horrenbeste tira-bira. (bis)
Erabakitzen du di-da!,
galdetu gabe sikira:
Gorpuak itsas erdira!
Beste guztiok etsipenean
antsika gaude begira,
arrain multzoaz inguraturik
hor baitoaz ur azpira. (bis)

7

Ustekabean: «Han dago lurra!!!».
Urruti baina da lur-muturra.
Entzun orduko, gure barnetik
desagertu da beldurra... (bis)
Teneriferi agurra
egitea da samurra,
bihurtuz gure ikurra.
Bizi berri bat amestu eta
jaso ondoren egurra,
ezin diogu inori opa
hain egoera makurra. (bis)

8

Beste bost egun, gero Madrila;
hegazkin polit bat gure bila...
Gehienak Dakar aldera, berriz,
handia nonbait koadrila. (bis)
Bulegoko lehiatila...
entzuten da iskanbila;
hortxe dago maratila:
Amadouekin ihes eginda,
gaindituz arazo pila,
Donostia da gure jomuga
piztu zaigunez bonbila!!! (bis)

9

Hor Espainia, han da Frantzia,
hauen artean ia ahantzia:
"Pays Basque" edo Euskal Herria
eta badu garrantzia. (bis)
Teknika zein zientzia,
oro har, jende jantzia,
nazio-kontzientzia...
Aitor eta Urko gure lagunek
daukaten pazientzia!
Beti euskaraz ari zaizkigu,
mila urteko herentzia (bis)

10

Jateko, berriz, bada aukera,
ama, harritu egingo zera!
Ohitura oso desberdina da:
Bakoitzak bere platera; (bis)
nahiko babarrun eltzera,
jakiarekin antzera,
gero postrea, gainera,
eta bazkaltzen nahikoa janda,
iluntzean afaltzera;
paradisua dirudi honek;
zertara joan etxera? (bis)

11

Obra batean, adreilu, masa...
poste, teilatu eta terraza;
bidaiarekin konparatuta,
honek dirudi jolasa. (bis)
Pasa ditugunak pasa,
lasaitu arren arnasa,
harremana da eskasa;
gure frantsesak, euren euskarak
horrelako anabasa!
Hitz gutxi baina, hurbiltasuna
sumatzea da erraza. (bis)

12

Soldata ona dugu hilero:
Eurotan dira zortziehun edo...
Paperik gabe lana lortzerik
ezin genuen espero. (bis)
Erdia aurreztuz gero,
ehun euro dira astero;
amak poltsikoa bero!
Erosi arren mobila eta
pare bat galtza bakero...
Pozik geundeke, hilero hori
hara igortzerik balego! (bis)

2006ko azaroan jarritako bertso hauek 2007ko "IX. San Antontxu" bertso paper-lehiaketan (Mungia) 1. saria lortu zuten.



Mungiako "IX. San Antontxu" sariak

Personal Computer, 25 urteko gaztea (2007)

Doinua: "Habanera"

1

Ordenadore pertsonal
hauei jarririk arreta,
hogeita bost urteotan
izan dute aldaketa;
atzera begiratzea
komeni zaigu tarteka;
jada mundua PCaz
dagoelako beteta.
Interesgarria denez
hartu beharko dut beta,
tresna honen historia
ezin da utzi gordeta,
gaur egun etxe denetan
ia aurkitzen da eta:
helduontzan lanabesa,
umeentzat jolasketa.

2

Azken finean kaxa bat,
tekladu, monitorea,
isats gabeko sagua,
ez da berez dotorea;
inprimagailu txikian
guk nahi dugun kolorea:
beltza, marroia, gorria...
urdina edo morea.
Argindarra joatean,
galtzen dugu umorea,
argi ibili behar da
argiarekin, ordea;
voltioek sarri dute
ezusteko bat gordea
eta tximistak hastean
itzaltzea da hobe.

3

Atzo erosia bada,
zaharkitua, *obsoleto*;
bihar modelo berria,
salduko dute hobeto:
"Merkea eta azkarra",
hor erortzeko bi zepo;
azkartasuna eredu,
bi hitzetan esateko.
Txinan ekoizten dituzte,
lan merkeaz daude lepo;
soldata lotsagarriak,
arroz platera jateko;
nagusi amerikarrak,
Asia haien menpeko.
Puntako teknologia
morroiak gosez hiltzeko.

4

Windows, Word, Excel zein Access,
aukeran nahiko programa;
Internet eta Autocad,
zabala da panorama.
Hauek denak ikastea
ez da txantxetako lana;
adinaren eraginez,
informatika da zama;
agian une txarrean
iritsi da guregana,
nahiz eta ikasten saiatu,
zenbat zailtasun, ai ama!
Etsita nagoenean,
hau pentsatzera narama:
Txirritak PCrik gabe
lor্তু zuen bere fama.

5

Batetik RAM memoria,
disco gogorra besteko;
Ehun, berrehun edo hirurehun
gigabyte ia hasteko;
giga bat milioi bat dela
batzuk ez dute usteko;
informatikaz badute
beraz zerbait ikasteko;
baina honek ez du izan nahi
inori irakasteko,
nire ustez badudalako
horrenbeste errespeto.
Webcamak ere badaude
urrutira ikusteko,
munduko beste puntatik
lagunekin jolasteko.

6

Interneten bidez orain
bidaltzen dugu e-maila;
teknologi berriekin
irabazi dugu maila.
Gazteentzat erraza da;
helduontzat, nahiko zaila;
normalki mantso gabiltza,
haiek nolako abaila!
Gazte izatea baita
gehienetan abantaila;
zahartu ahala pertsona
geratzen denez zarpaila:
gogortzen zaizkigu hatzak,
burua eta urdaila...
Udazkenean gaudenez,
joan zitzaigun loraila.

7

Bazter guztietaraino
orain ia zabaldu da;
horren aurrean gabiltza
gehienok negu nahiz uda;
erabilera anitza,
ezezaguna da muga;
hori horrela da eta
baztertu dezagun duda.
Nahiz eta kaltegarria
askotan izan postura,
bere aurrean umeak
egoten dira gustura
eta helduak ere maiz
gabiltza haien modura,
hainbeste informazio
jartzen baitigu eskura.

8

Internet sare hortatik
jaitsi daiteke musika,
harrigarria dirudi,
hau honela ikusita.
Bikotea nahi duenak
eraz prestatzen du zita;
argazki eta izena:
Jessica, Helen, Kontxita...
Sexu merkeaz gozatu,
eginbeharrak utzita.
Diru kontuen kontsulta,
Kutxa badago itxita;
zinemara joan lasai,
sarrerak hor erosita...
Zure web orrira ere
egin nahi nuke bisita.

Neskatxen etorkizun beltza (2007)

Doinua: "Ai hori begi ederra"

Afrikako tortura lotsagarria: ablazioa

1

Horren ekintza zekena,
ez ikustea onena,
bestela nolako pena!
Bi milioi neska dira urtero
Afrika beltzan barrena
eta hau da okerrena,
kultur ezak dakarrena:
injustizi nabarmena.

2

Hankak eta bi belarri
bezala badute jarri,
izan bedi gozagarri!
Klitori txiki hori ez denez
neskatxentzat apaingarri,
baizik sexu-ezaugarri,
emeentzat da ongarri;
zergatik utzi elbarri?

3

Hemen azaltzera noa
hori ez dela "granoa"
baizik sexu-organoa.
Eta kentzea gerorako da
ukatzea orgasmoa;
hango gizonen asmoa,
inposatuz matxismoa,
ez da ohitura sana.

4

Desegokia ohitura,
Afrikar hauen kultura
bihurtzen denez tortura.
Neska txikien ablazioa
ebakuntzaren gradura:
tresna bat sartuz alura;
odol-txorrota barrura,
zikiratuen modura.

5

Utzi amaren magala
eta ia berehala,
lodia edo argala...
Neskatxa hauen alua ez da
gero izango normala.
Gozamenari itzala,
gelditzen baita hutsala,
gaztain morkotsa bezala.

6

Ebakiz jaio orduko,
sexua ez du gustuko:
beraz, plazerrari uko.
Gizon beltzaran eta matxistak
dira horretxan lekuko.
Ez dudan arren gertuko,
ez dut atsedean hartuko;
inoiz ez dut onartuko.

7

Berez da leku minbera;
adin horretan gainera,
umetatik sufritzera!
Neska gaixoen mutilazio
horrek dakarren galera...
Gaurkoz Afrika aldera
zuzentzen dut eskaera:
eman honi bukaera!

8

Etxeko lanak korrika,
jo eta su aztarrika;
ezin ezer aldarrika.
Emakumea ez denez soilik
haurrak sortzeko fabrika;
jartzean sexu-irrika,
gozamenari harrika;
krudela baita Afrika.

9

Ixa umetxo maitea,
tristea da esatea:
krudela da gizartea!
Zure errua ez izan arren
hor jaioa izatea,
ekarri dizu kaltea.
Haurralde-n borondatea,
ireki zaizun atea.

Haurralderi buruz egunkarian irakurritako artikuluan oinarritutako bertsoak.

Realaren porrota (2007)

Doinua: "Betroiarena"

1

Puertollanon jarri
nahi dut begirada,
geroztik joan arren
lau hamarkada.
Bizitza azkar doa,
hau da abiada!
Erdal egunkariak
hauxe zion, hara:
«Lehenengo mailara
berriz igo gara;
poz eta algara
gaur Donostiara;
ospatzen ari dena
Gipuzkoa da».

2

Laurogeita bat hura
datorkit gogora,
orain kantsolatzeko
ona izango da;
bertako mutil haiek
soberan ganora
Liga irabazteko
herritik kanpora:
Gijonen denbora
azken segundora;
emozioz gora...
titulua nora?
Heroi berria Jesus
Mari Zamora.

3

Bi Liga irabazi
gehi Errege Kopa
eta gaur jaitsiera
digute "opa",
aspaldi eten baitzen
tituluen soka,
ezina bihurturik
aurtengo borroka.
Hauxe nahi dut bota,
ahotsa igota:
«Eskasa da nota;
zaleok lur jota...
Gaizki kudeatzeak
dakar porrota».

4

Etsipenean ezin
besterik espero,
hain justu ibilita
ia urtero.
Kanpotar kaskar asko,
onak hiru edo;
profesionaltasun
apur bat balego!
Mistertzat Bakero:
galtzeko astero,
ta Lotinak gero
hainbeste endredo;
maila galduta ere
patrika bero.

5

Bigarren mailaraino
jaitsi du Reala;
historiko batentzat
ez da normala.
Arrastaka zebilen
nola edo hala,
baina Lotinak zion:
salbatuko zala.
Bizkaitar apala,
lanean makala,
taldea bezala;
hori da azala!
Hurrena Athletic-ek
fitxa dezala!

6

Hutsala izan baita
lanerako grina,
gaizki gidatuz talde
txuri-urdina.
Espanyolen aurka han
nolako imajina!
Getafen eta Iruñan
ia-ia berdina.
Hainbat huts egina
ez zen atsegina;
gero eragina:
zaleontzat mina.
Lotsagarria izan da,
egi gordina!

7

Oraingo atezaina
da kolonbiarra:
Bravo gaztea dugu
mutil azkarra
eta, oro har, ongi
zaindu arren marra,
iristen zitzaizkion
golak barra-barra.
Defentsa kaskarra
ta motel samarra,
galduta iparra,
arrazoi bakarra:
ez dute ikasi eure
eginbearra.

8

Baloia gaizki pasa
taldekideari;
hainbeste astakirten
hor jokalaria!
Aurrelariak galduz
aukera ugari,
sarri ezin ulertu
zertan ziren ari:
Kovacevick nag;,
bikaina zen hari
ezina nabari;
dirutza lan-sari,
gol sartzea bihurtuz
ia mirari.

9

Diruak hondatu du
egungo futbola
eta ezin onartu
hori inola.
Uste dut arazoa
gaur hortxe dagola:
finantza bihurtzea
berez den kirola.
Diru-deskontrola;
garestia gola,
sartuz edonola.
Egungo eskola:
kolore kontu horrek
ez du axola.

10

Abuztuan hasten da
berriro karrera
errekuperatzeko
azken aukera.
Aurten derbia doa:
Ipurua aldera,
Eibarrek igo baitu
azkar eskailera.
Reala behera;
biek maila bera.
Kontuak atera:
jokatzeko era
txiroek aberatsei
irakastera!

Gure ohe zaharra (2008)

Doinua: "Ikusten duzu goizean"

1

Etxeko obrak medio
agindu zein gomendio
emazteak txit serio:
«Zaharkituak dauden guztiak:
ohe, gau-mahai, armario...
bota». Zer erremedio!
Berak horrela badio
laister guztiei adio.

2

«Gelako ohe herrena
kenduko dugu aurrena;
gero beste hau hurrena...».
Zerrenda bere kabuz egina
horixe da okerrena;
erabaki azkarrena:
kontsumoa dakarrena
tristetu arren barrena.

3

Oheak zahar itxura
baina sendo egitura
lo egiteko gustura.
Hogeita hamar urtetik gora;
horretaz ez dago duda,
udan baitzen urtemuga.
Mudantzaren abentura
gure etxera heldu da.

4

Gure gaueroko zita
atsegina zen bisita
ez daukagu ahantzita.
Sei-zazpi ordu hogeita lautik
maindireei itsatsita
pijama aurrez jantzita.
Hasiz gero erantzita...
doinurik gabe musika.

5

Etzanda atsedean bila
horko istorio pila;
oheak entzunak mila:
amodioan gozotasuna
eta harreman hurbila...
Hau da egi biribila:
beti lekuko isila
San Martinerako hila.

6

Ohean une gozoak,
egoera inozoak,
fikziozko arazoak...
loak hartzean eskaintzen ditu
ametsen unibertsoak.
Esnatu eta bertsoak
osatuz sorta osoak
gero idatziz jasoak.

7

Eskaini digun babes
ez da izan aldrebesa;
gu ezin gintezke kexa.
Ohe horretan gustura geunden
ulertzea da erreza:
nekea eta estresa
gainditzeko beti presa;
jaikitzeoan pereza.

8

Kaoba egurrarekin
dotore zutena egin
bihurtuko da errekin;
gure bizitzen zati eder bat
erreko dute horrekin.
Altzari berriarekin
zahartzaroari ekin;
hobea den ezin jakin.

9

Logikari atakea:
tristea da esatea
guretzat dela kaltea.
Zerbitzu ona eskaini arren
nolako errematea!
Irekitzean atea:
gure habia maitea
laister errauts eta kea.

10

Hain erabaki kaskarrak
bihurtu gaitu baldarrak
ez garelako azkarrak.
Ihesi doaz ilusioak,
ametsak eta negarrak;
entzun gabe deiadarrak.
Kontsumoaren adarrak
daude kimatu beharrak.

Morfotipoak (2008)

Doinua: "Esne saltzailearena"

1

Hiru zenbakirekin
arropen bataila:
emakumeen taila;
nire ustez hartu dute
horrekin lan zaila.
Lehenengo sailkatuz
alturaren maila,
gero bular kontuak
dauka abantaila,
hirugarren aldaka
fin edo zarpaila. (bis)

2

Diabolo figura
berez magikoa:
bular handikoa;
aldaka ere neurritz
daukana nahikoa;
gerri mehea eta
gorputz konikoa,
emakumearentzat
kategorikoa;
nire ustez egokia
den morfotipoa. (bis)

3

Ederki jorratu dut
aurten urtarrila
zilindroen bila:
ez titi, ez ipurdi;
txakolin botila
edo bolatokian
ipintzeko brila;
mehea baldin bada
dirudi makila;
horrelakoa dena
kontura dadila! (bis)

4

Jakiteko nork daukan
kanpaien itxura
edo egitura:
aurrena begiratu
behar da petxura;
gerriaren antzeko
baldin bada hura
eta hortik behera
zabala figura..
Kanpai bat dela hori
ez daukagu duda. (bis)

5

Geometria bada
modaren helburu,
tailen iturburu,
asmatuko dutenik
ez nago seguru.
Emakume askotxok
hainbeste apuru:
bular-perimetrotik
at bi titiburu;
80a nahi eta
behar 100 inguru. (bis)

6

Neurriz 100-60-
100 diaboloa,
ez txorimaloa;
100-100-100 zilindroa
nahiko potoloa,
seguru argaltzeko
daukala gogoa.
80-80-100
kanpaitara doa;
desegokiak ere
badauka morboa! (bis)

7

Diaboloen bila
gaur buru-belarri
estu eta larri:
Ana Obregón hortxe
nahiko nuke jarri;
bere kurbak luzitzen
dabilena sarri
probatu eta gero
hainbeste uztarri;
agian gastatua
baina tentagarri. (bis)

8

Orain txanda heldu da
zilindro biribil
eta dago hurbil;
bertsio argalean
da Maria San Gil.
Arrabol harroputz hau
gu zanpatzen dabil;
miztoa agerian,
ikusten da zurbil;
minbizia gaintitu
eta PPK du "hil". (bis)

9

Kanpai itxurakoa
galduz boterea
dabil anderea;
agian ez du oso
gorputz dotorea:
behe karga handia,
baina umorea;
ile kizkurra eta
hori kolorea...
Politika utzi du;
ez al da hobea? (bis)

Egunkarian irakurritako artikuluko batean oinarritutako bertsoak.

Uztapideri erantzunez (2008)

Doinua: "Esne saltzailearena"

Aurtengo ekainaren 8an, 25 urte bete dira Manuel Olaizola, "Uztapide" (1909-1983) txapeldun handiak utzi gintuela. Egunotan bere gutun bat jaso dugu galdera hauekin:

- Zer berri Oiartzunen eta Euskal Herrian?
- Bizimodua asko aldatu al da?
- Bertsolaririk ba al da orain?

Erantzuna bertsotan:

1

Oiartzun nire ustez
hazi da gehiegi,
nahiz izan zilegi;
etxebizitza asko
ta garestiegi;
prezioak igotzen
ezin dute segi,
gazteak ez baitira
aberats ageri;
zorpean dagoena
erne ibil bedi! (bis)

2

Bisigurik ez dugu
jaten lehen bezala;
hau ez da normala!
Atamitek galdu du
aspaldiko itzala;
afaltzeko badakit
leku ona zala.
Mixelena bertsotan
ez zenez makala
neurri amaigabeen
esplika dezala. (bis)

3

Larre ederra zuen
Audeleko gainak;
gaur berriz ertzainak
koartel erraldoian
dabiltza apainak.
Demokrazian lortu
ditugun azainak:
larrea galdu eta
haserre artzainak;
nonahi kontrolak eta
isunak bikainak. (bis)

4

Luxuzko auto ugari
ondo luzitzeko,
gaizki bizitzeko:
mailegu ona behar
dirua biltzeko.
Askotan komeriak
dituzte zaintzeko;
jende asko burutik
jota dago seko:
potentzia gehiegi
mantso ibiltzeko. (bis)

5

Agintariek eman
zutenez ordena
(hau jende kirtena!):
Kotxeak mantso eta
azkarregi trenan.
Txikituko digute
berdegune dena
eta Euskal Herriak
emango du pena.
Aurrerapena orde
da atzerapena. (bis)

6

Donibanetik gertu
itsasoko kaia,
horixe da nahia;
eztabaida ugari
sortutako gaia.
Jaizkibel zulatuta
trenan bidaia:
AHTn sartuta
Moncloan arraia
txit freskoa jateko
omen da garaia. (bis)

7

Segapotoen antza
harririk gabea,
nahi den kolorea;
ez dago zorrozteko
egina, ordea.
Sakelean daukagu
askotan gordea
telefono mugikor
txiki dotorea;
modernoenentzako
“3G” hobea. (bis)

8

Asko ibili eta
edateko ura,
oraingo ohitura;
sendagileek sartu
diguten kultura.
Nonahi bidegorria
edozein lekura
eta kiroldegiak
dauzkagu eskura.
Ezberdina zen zuen
bizimodu hura! (bis)

9

Hainbeste atzerritar
ez nuen ikusi,
txinatar da guzi;
euren herrietatik
egin dute jauzi;
laguntza ematea
ez dago itsusi
sortzen ez badituzte
hemen mila auzi,
goseak ekarrita
jartzean nagusi. (bis)

10

Sasoian onean dago
gaur bertsolaritza;
ematen dut hitza.
Oiartzunen badago
kristoren plangintza
eta gazteontzako
da euren bizitza:
Jon, Xamoa, Alaia...
nolako eskaintza!
Txapelketetan lehiatzen
ederki dabilta. (bis)

11

Gipuzkoan badira
ehun bat bertsolari;
gazteak ugari.
Gorakada eman du,
ez al da nabari?
Mutilak eta neskak
bertsotan kantari
giro ezin hobean
herri-mezulari;
berdintasuna ardatz:
ez matxismoari! (bis)

12

Duela hogeita bost
urte zen gaztea;
gaur dauka ospea...
Zaila zen zure marka
bikaina haustea,
baina lau aldiz lortu
txapela janzteia;
bosgarrena gertu du,
da nire ustea.
Andoni Egañak nahi
du irabaztea. (bis)

13

Lehengo oroitzapenak
zugana dakarte,
nahiz zauden aparte.
Bertsoa zuei esker
bihurtu zen arte;
baditu kontatzeko
hainbeste pasarte...
Bere ustez gertu dagon
egun handira arte
eskuminak bidaltzen
ari da Lasarte. (bis)

14

Agurtu itzazu goian
Basarri, Xalbador,
Zepai, Egilegor...
Lazkao-Txiki, Mattin
eta Txirrita hor
txanda elkarri kenduz
bertsotan derrigor.
Aranalde gai jartzen
astintzeko gogor...
Hemen ez entzutea
bada nahiko zigor! (bis)

Beijing (2008)

Doinua: "Aizak, hi mutil mainontzi"

SARRERA

1

Txirrindan eta korrika,
gimnasia estetika
eta piszina ikuskizuna
izan da polita.
Abuztuan zenez zita,
Txina aldera bisita:
Beijing ikusiz... Errioxako
sofan eserita.

2

Asia, Afrika, Europa...
elkartu dituen soka
kirola izan da, ongi uztartuz
hainbat jende mota.
Olinpiadan borroka
inork ezin du gorrota
beste guztiok ibili arren
beti mutur joka.

TXIRRINDULARITZA

3

Euskalteleko mutila,
txirrindulari abila:
beste bostekin helmugaraino
urrearen bila.
Azken sprint biribila:
denek atzean gurpila...
Samuel Sanchez garaile dugu!
Horko txalo pila!

5

Olaberriaren txanda:
Leire brontzea izan da,
pedalei hango belodromoan
gogotik emanda.
Ez da lo egon etzanda;
altu utzia du langa,
espero ez zen domina lortuz,
egia esanda.

4

Merezi du aipamena:
Joan Llaneras onena,
puntuazio-proba horretan
azalduz kemena.
Madison-en bigarrena;
kasu bitxia honena:
dominak lortuz pista uzten du;
hori da lorpena!

ATLETISMOA

6

Ehun metroetan onena,
berrehungoan garaipena,
Usain Bolt gazte jamaikar honek
badauka kemena.
Guztietan azkarrena,
marka berrien lorpena:
urte askotxo luzatuko da
hauen iraupena.

7

Keniak jo zuen goia;
indartsua da lehoia:
Sammy Wanjiru-k hautsi ondoren
proba erraldoia.
Tableroko maratokia:
errege, zaldi, peoia...
Xakean beltzek irabazteko
zein da arrazoia?

IGERIKETA

8

Gorputz handi, dotorea;
indartsua motorea:
Michael Phelps gazte amerikar hau
da ezin hobea.
Piszinako erregea;
hor jarri baitu legea:
zortzi probatan, zortzi dominek
urre kolorea.

9

Mark Spitzen marka hautsi,
zazpi nonbait ziren gutxi;
historiako onena dela
garbi erakutsi.
Besteak atzean utzi,
gero aldeari eutsi...
Gure planetan jaiola denik
ezin da sinetsi.

TENISA

10

Rafa Nadalen kasua:
tenisean da maisua,
Manakorreko mutilak baitu
raketa ahaltsua.
Gorputza du gihartsua
eta ezker indartsua...
bera garaile izan da, ez da
albiste faltsua.

11

Batek atera sakea,
besteak errematea:
Serena eta Venus Williams:
a ze bikotea!
Espainolentzat kaltea
finalean egotea:
beltzaran ahizpek merezi zuten
urrezko dotea.

BELA

12

Epaille-talde ergela,
erabakia ustela:
Iker Martinez/Xabi Fernandez
garaile bestela.
Luzatuz epai nobela
galtzen atera da bela;
esango nuke hauen zilarra
urrezkoa dela.

AMAIERA

13

Agur Beijing, aio Pekin;
nola deitu ezin jakin,
baina gozatu dut aurten Joko
Olinpikoeekin.
Eman duten mailarekin
lorturik hainbat etekin,
erne ibili beharko dugu
txingurri hauekin.

14

Asiatik Europara:
London gertu dago, hara!
Bi mila eta hamabirako
joango al gara?
Hegazkinak ze ikara!
Tunela luzeegia da!
Barkuan baino autoan hobe
da... Errioxara.

Krisialdia (2008)

Doinua: "Habanera"

Egitura berezia: 8A/8B

1

Adituek diotenez
omen zeukan merezia:
subprime hipoteka denez
sortu duena krisia.
Amerikak su emanez
erre Europa, Asia...
heldu da globaltasunez
ekonomi-minbizia.
Aipatu nahi dut esanez
dela krisi berezia:
Banketxeak ahul kemenez
eta diru-eskasia;
gaur murriztu, baina lehen ez
beraien irabazia
eta pattal osasunez
indartuz langabezia.

2

Etxe gehitxo azkenean,
halere garestiegi;
bizitza bat ordainean
ez izan arren zilegi.
Aginte-ekimenean
gertatzen da sarriegi:
ustelkeria lanean,
halere agintzen segi.
Euriborra igo denean
sortu du hainbat miseri;
ez gaude sasoi onean,
ez zait iruditzen neri;
injustizia unean
ezin gintezke eseri
ustelak dabiltzanean
milioi eurotan igeri.

3

Krisiaren eraginez
Burtsa joan da gainbehera;
lau sos zeuzkatenak minez:
merke salduta, galera.
Putreak hor, diot zinez,
baliatzeko aukera:
akzioak, usain finez,
saltzeko lau-bost urtera.
Trikimailuak jakinez
etekin ona atera:
salmenta ona eginez
beteko dute kartera.
Euskaraz edo latinez
orain noa esatera:
espekulazio-grinez
garamatzate atzera.

4

Prezio denak goraka,
soldatak berriz murriztu;
gogortzen doan aldapa,
guk ez genuen amestu;
krisia sakona data
dakartza hainbat arrisku;
agintarien zarata,
konponketa euren esku...
Jan beharko da patata,
bizi larri eta estu;
albiste beltzen sonata,
telebista ezin piztu;
saiatu arren kostata,
ezin dirurik aurreztu...
A ze gobernu pirata:
Banketxe denak babestu.

5

Ustez lasai bizi, baina
sarri irudi faltsua,
gastatze alde kanpaina
izaten da indartsua.
Jantzi-arropa apaina,
marka ere ospetsua;
BMWa bikaina
erosten jende itsua.
Zorrak hartuz gero gaina
pizten da barruan sua,
banketxeak, alajaina!,
azkar kentzen du pisua;
dantzatu arren mingaina
alferrikako kexua...
Ezin da inor engaina
zoritxarreko luxua!

6

Oraintxe bada parada
harritzeko egunero,
krisia horrela da ba:
sortzen du hainbat endredo;
arazo ugari jada
eta gehiago espero;
orain datorren bolada
hobe pasea balego!
Enpresak jotzen aldaba,
eske bulegoz bulego;
langilegoak ikara,
lanpostua galduz gero:
negua edo udara,
dirurik eza hilero;
zerbait aurreztu ez bada
odola jartzen da bero.

7

Etxe Zuria, zabala,
egingo zaizu arrotza,
zuriek agindu ahala
beltzena baitzen morrontza;
larrua ez hain normala
baina arrunta ahotsa:
hitzez esan zu zerala
zuri bat bezain zorrotza.
Izanik gizon kabala
eta taupadaz bihotza,
zuri askok ez bezala
senti dezakezu lotsa;
jendeak uler dezala
aro baten heriotza:
Bush denez gizon petrala
amaitu zaio pagotxa.

8

Hastear da lasterketa,
badaukazu nahiko lana:
krisiaren azterketa
eta gainditzeko plana.
Herentzian hipoteka:
Bushek utzitako zama,
baina ilusioz beteta
nahiz beltza den panorama.
Ez da nahikoa tarteka
gizon zintzoaren fama,
beltza baituzu kopeta,
larruazal beltzarana...
Etxe Zurian gordeta
lanean hasi Obama
yanki-en kudeaketa
bihurtu delako drama.

Joxan Arbelaitz gogoratuz (2009)

Doinua: "Ai hori begi ederra"

1

Otsaila berez da hotza,
aurten gainera mingotsa
da Joxanen heriotza.
Zamalbideko Auzolan ez zen
harentzat leku arrotza;
bizitza hain da zorrotza:
frontoian bertan hilotza;
minbera daukat bihotza.

2

Heldu denean ekaitza
erasoaldi bortitza
bat-batean kenduz hitza.
Gertatu dena ezin ulertuz
guztiok hemen gabilta:
sendo zegoen haritza
ihartzea ulergaitza.
Zein gogorra den bizitza!

3

Bere lagunen laguna
eta oso ezaguna,
mila lanetan jarduna.
Otsailak hamar, beltza izan da
herri honentzat eguna:
hil zaio seme kuttuna,
bizitza baita zurruna;
pena da daramaguna.

4

Ikasturte gogorretan
ikastolan (Oreretan)
jardun zuen heziketan.
Joan aurretik ezagutzeko
aukera ona benetan:
guraso-talde lanetan,
laguntza beti horretan...
Geroztik nago zorretan.

5

Santo Tomas Lizeoan
izango dute gogoan,
ziur nago, luzaroen:
irakasle nahiz zuzendaritzan
murgildu zen zeharo han.
Berdin kultura-arloan,
beti euskara-giroan
jarduera oparoan.

6

Beste kargu bat bizitzan,
goreneko kulturgintzan:
Zuzendari Jaurларitzan.
Gregorianoko taldekidea:
kantu ederrak elizan.
Urte zaharretan Ereintzan,
herritar xumeen gisan...
Joxan horrela bizi zan.

7

Andra Marin abeslari:
presidentea kantari.
Musikasten zerbitzari...
Eta Oarso aldizkariko
batzordean zen gidari.
Bizitzan hainbat opari
maite zuen herriari
egin dizkio ugari.

8

Kulturgintzan zutabea,
hezkuntzan paregabea:
iaioa eta trebea.
Harremanetan gizon aparta:
harrokeririk gabea;
pertsona ezin hobea.
Amaitu zaio bidea,
arrastoa utziz, ordea.

9

Zintzoa bezain apala,
umila eta leiala;
enbor oneko ezpala.
Benetan tratu errazekoa,
ez da izan gizon makala.
Herrian zuen itzala
luzea bezain zabala
herritar jator bezala.

10

Pertsona oso argia,
euskara berriz garbia;
kulturan abangoardia.
Burua ongi jantzia eta
jakitunen ausardia.
Lanerako energia:
garraiatu du gurdia
bere bizitza erdia.

11

Hark eskainitako hura
iturri garbiko ura
funtsean denez kultura:
herri honentzat opari bat da
sortu izana mundura.
Orain datorkit burura:
gizon handien modura
merezi du eskultura.

12

Izar berriak distira
egiten du urrutira:
guztiok gaude begira.
Seguruenik haren keinuak
herrirantz zuzendu dira,
beraren Erreterira:
hark maite zuen tokira,
senitarteko kabira.

Bertso-sorta hau 2010eko *Oarso* aldizkarian argitaratu zen.

Edurne Pasabanen 12 gailurrak

Himalaian (2009)

Doinua: "Leiho ertzetik entzun dezaket"

2001ean hasi eta 2009ko ekaina arte, zortzi mila metro baino gehiago dituzten 12 gailur lortu zituen ("zortzimilakoak"). Bertso hauek, hamabigarrena igo ondoren, 2009ko ekainean osatuak dira.

1. EVEREST, 8848 m (2001/05/23)

Milurte berri bat ongi hasi,
lortuz gailur erraldoia:
Everest mendi altuenari
zapaldu zionez goia;
emakumea, baina zaildua;
izugarrizko sasoi!
Piolet eta kranpoia,
zeharkatu espoloia... (bis)
Tontor hortatik ulertuko zen
Hillary-ren arrazoa.
Eskerrak behintzat ez zuen lagun
hain gaiztoa den montzoia. (bis)

2. MAKALU, 8465 m (2002/05/16)

Hurrengo urtean lana bikoiztu,
bi gailur berriren bila;
Makalun hasi, gailurra lortuz,
zein alpinista abila!
Bikain prestatu, ongi hornitu:
hortxe dago maratila.
Arazoak ziren mila,
baina eskarmentu pila... (bis)
Igo ondoren Tolosaldea
ez zen gelditu isila
eta buruan biraka hasi
Himalaiaren gurpila. (bis)

3. CHO OYU, 8201 m (2002/10/05)

Bost hilabete beranduago
Cho Oyun neurtu indarra;
azkar sentitu zuen Edurnek
Himalaiaren beharra:
maiatza edo urria izan,
aukeraketa bakarra.
Galdera da zail samarra:
non dago mugaren marra? (bis)
Ezezaguna da bere muga,
hau da erantzun azkarra.
Paregabea da emakume
mendizale tolosarra. (bis)

4. LHOTSE, 8516 m (2003/05/26)

Bi mila eta hiruan hasi
maiatzean abentura:
lotsarik gabe Lhotsera igo;
gailur berri bat zakura.
"Hegoaldeko mendia" bera,
aipatuz hango kultura.
Handia zenez altura,
handik begira gustura, (bis)
Karakorumen iritsi eta
amesturiko lekura;
hurrengorako zain zonaldean
Gasherbrum biak eskura. (bis)

5. GASHERBRUM II, 8035 m
(2003/07/19)

Gero bosgarren gailurreraino ez zen erraza bidaia, baina Gasherbrum (G II) igota zeinen momentu alaia; paregabeko lekua baita Karakorungo talaia. Gero jaisteko garaia: Felix han agurtu nahia... (bis) Irrist eginda hor erori zen agurtu gabe anaia, bere atsedeen-leku bihurtuz elurtutako paisaia. (bis)

6. GASHERBRUM I, 8068 m
(2003/07/26) (edo Hidden Peak)

G II gaiztotik ongi irtenda hala ere ez zen aski, ondoan daukan G I bikia ez zenez portatu gaizki, gailurra jota atera behar bertan pila bat argazki. Horko elur nahiz eguzki, izotz, serak eta guzti... (bis) Santio eguna han ospatzeko ez zeukanez nahiko asti biharamunaz gailurra lortu aipatzekotan zehazki. (bis)

7. K2, 8611 m
(2004/07/26)

K2a deitzen dioten hau da izoztutako kabia. "Mendi handia" gainditzea zen abentura zailegia: izugarritzko sufrimendua esatekotan egia; batetik amildegia, bestetik eguraldia... (bis) Hor izozketak pairatu behar, ez ote da gehiegia? Gorriak pasa eta jaitsi zen lortu ondoren K2a. (bis)

8. NANGA PARBAT, 8125 m
(2005/07/20)

Urtero ia plan berdintsua: udaran Himalaiara, iaz hainbeste sufritu eta berriz joan behar hara. Zer sentsazio sentitzen da hor? Askatasuna?... Ikara? Maiz elurra mara-mara, izugarritzko pasada... (bis) Nanga Parbat hau gainditu eta zortzigarrena da jada. Lan neketsua, baina gustura istripu txarrik ez bada. (bis)

9. BROAD PEAK, 8047 m (2007/07/12)

Iaz gailurrik ez lortu arren
ez zen urte aldrebesa,
oraingo honek bederatzira
gizendu du palmaresa:
zazpi urtetan bederatzioak
lortzea ez da erreza.
Gailurrak lortzeko presa;
jaitsitakoan babesa. (bis)
Zortzi milako mendi zorrotzak
sortu behar du estresa;
Erniok mila inguru ditu...
edonork konpara beza! (bis)

10. DHAULAGIRI, 8167 m
(2008/05/01)

Oraingo hau da hamargarrena,
ia ezin da sinetsi;
bertakoentzat "Mendi zuria"
igo gabe ezin etsi;
Himalaiako mendikateak
orain igo, gero jaitsi.
Markak ondu edo hautsi!
Gaitasuna erakutsi! (bis)
Arrisku handiz inguraturik,
baina arriskatuz gutxi.
Sasoian zaude Edurne, baina
zure hezurrik ez utzi. (bis)

11. MANASLU, 8156 m (2008/10/05)

Dhaulagiri utzi eta Manaslu
zen iazko bigarrena,
ikusi zenez Edurnek zeukan
indarra eta kemena,
bestela ezin baitzen burutu
horrelako ekimena.
Bera sartuta barrena,
ez denez neska herrena: (bis)
Pasaban, Meroi ta Kaltenbrunner
hirukote ederrena;
hamaikan daude, hamalauraino
Edurne baietz aurrena! (bis)

12. KANGCHENJUNGA, 8598 m
(2009/05/18)

Hamalau gailur osatu nahian
aspalditik hortxe dabil;
hamabi lortu ditu honekin,
beste biak daude hurbil;
mundu guztian neska bakarra;
orain dozena biribil!
Jaitsieran ez zen trankil:
bihotza ari zen pil-pil. (bis)
Gauetz izoztu, inadarrak ahitu,
Edurne zegoen zurbil.
Juanito, Alex, Asier, Ferran...
lagunei esker ez zen hil. (bis)

Beste biak, Annapurna, 8091 m (2010/04/17) eta Shisha Pangma, 8027 m (2010/05/17)
2010ean igo zituen, bertso hauek jarri eta gero.

Edurne Pasaban Lizarribar (Tolosa, 1973) alpinista gipuzkoarra da, munduko 14 zor-
tzimilakoak igo dituen lehen emakumea. Hasiera batean Oh Eun-Sun korearra izen-
datu bazuten ere, Kangchenjunga ez zuela igo esan zuen Hego Koreako federazioak.
Hori dela-eta, Edurne Pasaban izendatu zuten, 2010eko udan, 14 zortzimilakoak igo-
tzen lehenengo emakumea.

Euskaltzaindiak 90 urte bete ditu (2009)

Doinua: "Habanera"

1

Laurogeita hamar urte,
Oñatin sortuz mundura;
zoriontzeko ordua,
beraz, oraintxe heldu da.
Geroztik, gerra tarteko,
lana negu eta uda,
indarberritzeko asmoz
hizkuntza eta kultura.
Sustraietatik araudi
berritzearen ardura;
ez zen erraza izango
horrelako abentura:
Idazle bakanentzako
arauak jarri eskura,
bakoitzak jarrai ez zezan
idazten bere modura.

2

Resurreccion Maria
Azkuek zuen helburu,
Arturo Kanpionekin
saiatuta buruz buru;
Luis Eleizalde eta Julio
Urkixo ere seguru:
«Hizkuntza arautu nahian
urrats bat emango dugu».
Euskeraren mundu hartan
bihurtu ziren lau guru;
jende xehea zegoen
erabakien aiduru.
Oztopatzeko zeudenez
horrenbeste artaburu,
orain uste dut zirela
orduko lau dinosaurusu.

3

Sorreran lau aulki ziren,
igotzeko hamabira;
gero kopurua hazten
joan, beharren harira.
Gaur egun, aipatzearren,
hogeita hamar badira.
Bat hiltzen denean beste
berri bat doa aulkira;
horrela ematen zaio
etengabeko segida,
Bilboko egoitzaraino
eginez hainbeste bira,
gure hizkuntza hobetzen
saiatzen diren tokira.
Jarrai dezatela zintzo,
hori da nire desira.

4

Gero zoritxarrez piztu
ondoren Gerra Zibila;
Francoren balentria zen,
ez baikinen joan bila.
Euskaltzaindia zatitu,
ia-ia utzirik hila.
Diktadurapean gero
Arantzazun maratila:
Fraideek egin zutenez
lan bikain eta isila;
hirurogeita zortzian
piztu arren iskanbila,
"euskara batua" sortu
gaindituz arazo mila.
Berrogei urte pasata,
onerako izan dadila!

5

Arantzazuko bilkuran
bide berriari ekin;
orduz geroztik idazten
aldaketak “h”-rekin.
Gramatika jorratuta,
borrokan hiztegiekin;
euskal alfabetatzea,
idazten nahi bazen jakin.
Lehen urratsak emanaz
EGA agiri harekin.
Literatur lehiaketak
lortzeko hainbat etekin;
joskera, aditza, forma...
dena bihurtuz eraikin,
baserrietan aitonak
sentiaraziz etorkin.

6

Euskaltzainburu-zerrenda
egiten hasten bagara:
Azkue, Etxaide, Lojendio,
hirukote polita da.
Lekuona, Villasante,
Haritzelhar, ze pasada!
Urrutiak berriz orain
tenplea eta patxada.
Nafarroan izango du
erakusteko parada,
politikari ezgaiak
poltronan daudenez jada:
arrisku handia dago,
hau gerta liteke, hara:
Euskal Herriaren amak
ez jakitea euskara.

7

Euskaltzain osoak ere
atera behar kalera:
Altube, Lhande, Etxegarai...
garaikideen aukera.
Krutwig, Lafon, Oleaga...
eta Orixen antzera.
Mitxelenak bildu zuen
“batuan” lehengo euskera.
Goenaga, Oihartzabal...
Salabururen papera;
Zabaleta, Azkarate...
Irazu Atxaga bera;
Sarasola, Torrealdei,
Zalbiderekin batera...
Guztiak aipatu gabe
orain noa bukatzera.

8

Urgazle-talde handian
biltzen diren euskaltzainak,
boturik ez duten arren
hitzez azalpen bikainak;
kulturgintzako jendea,
sarri idazle apainak:
Amatiño, Bijueska,
Mintegi, Laka... Egañak
ahozkotasun ederra,
ongi dantzatzuz ezpainak
diskurtso ezin hobean
jario ona mingainak,
hizkuntza txukun tratatuz
kendu ondoren orbainak.
Hobe horrela egingo
balu auzoko ertzainak.

9

Ohorezko euskaltzainen
taldea da berezia:
Onaindiak zein Garatek
euskaraz bizi guzia.
Caro Baroja agian
ez zen euskaraz hezia;
euskalduna izan arren
erdaraz abilezia.
Basarri bertsolariak
zeukan ongi merezia,
nahiz hark ez zuen erein nahi
batuan bere hazia;
Arantzazuko bidea
hartzea zen desgrazia.
Adinaren arabera,
handiegia jauzia.

10

Euskaltzainen Batzordeek
daukate maila gorena:
Ahoskera, Gramatika,
Batua, Argitalpena;
Corpusa, Hiztegi gintza
Atlasgintza, Sustapena;
Onomastika eta abar...
Ez dut azaldu nahi dena!
Behar da jakinduria,
gauzatzeko ekimena:
zaindu, aztertu, hobetu,
batu... txertatuz kemena
hurrengo beleunaldiei
erakutsiz dakitena.
Horixe da euskaltzainek
egun egiten dutena.

2009an jarritako bertso hauek 2010eko "XII. San Antontxu" bertsopaper-lehiaketan (Mungia) 3. saria lortu zuten.



Mungiako "XII. San Antontxu" sariak



Martigny-Bourg Saint Maurice (2009/07/21)

Mikel Astarlozaren Alpeetako garaipena (2009)

Doinua: "Habanera"

1

Bi mila ta bederatzi,
uztailaren hogeita bi;
Alpeetako etapan
atzo telebistan adi;
laukote bat ihesean,
begira haien lanari:
Pellizotti, Van den Broeck,
Moinard ta Astarlozari.
Orain ere aurrean da:
«Aupa Mikel, saia hadi!
Etapa irabazteko
dituk aukera ugari».
Ez zuen entzuten baina
animatuz mutilari,
Xenpelar Bertso Eskolan
ibili den lagunari.

2

Tropeletik aldeginde
egurrean laukotea,
pedaleei eragiteko
zeukaten borondatea.
Elkarlanean guztiok,
laurok nahi irabaztea:
bat aurretikan tiraka,
gero txandaturuz bestea.
Pozgarria zen benetan
Astarloza ikustea
beste askotan bezala
sasioez bete-betea:
bi kilometro faltan jo
zuen azken atakea
eta ireki zitzaion
garaipenaren atea.

3

Gero erakustaldia
han garaipenaren bila,
helmuga gertu zegoen
eta indartsu mutila;
azken kilometro hartan
txirrindulari umila
pedalak gogor astinduz
izan zen nahiko abila.
Telebistari begira
urduri, nerbio pila;
besteak atzetik gertu...
«Lehenbailehen irits dadila!».
Sei segundoko tartea:
hor zegoen maratila;
helmugan besoak altxa,
gora eskuin ukabila.

4

Neska laguna urduri,
hunkituta gurasoak,
emoziozko malkoak
isuriz ama gaixoak;
aitak berriz ezin eutsi
bustita begi jasoak;
Astarloza taldekoak
aztoratu erasoak...
Pasai osoak ospatu
zituen une gozoak.
Oreretan jarraipena
Madalen txupinazoak:
motibo bikoitzarekin
xanpainaz bete basoak.
Bihotzez maitea baitu
Mikel Euskadi osoak.

5

Besteek irabazteko
sarri jasan du "marroia",
gaur nagusi bihurtu da
askotan zena morroia.
Taldeko buruzagiak
erakutsi du sasoi:
hortzak ongi estututa...
indarraren arrazoa.
Mikelek eta Euskaltel
Euskadik jo dute goia,
Gonzalez de Galdeanok
idatzi gabe gidoia.
Bigarren garaipena du,
hau, ordea, erraldoia:
Martigny-Bourg Saint Mauricen
Mikel izan da lehoia.

6

Tourra amaitu ta laister
heldu da berri zikina,
txirringarritan kalte
egiten duen dopina.
Susmopean jartze hutsak
sortarazi zion mina;
Mikelen sufrimendua
ezin dugu imajina.
Bigarren analisisian
emaitza izanik berdina,
Astarlozarentzat jada
kaltea dago egina.
Kirolari trebea da,
jator, zintzo, atsegina...
Garaipena ez zen izan
dopinaren eragina.

7

Garaipen gozoa zena
bihurtu da gazi-geza,
baina bere jokaera
ez da izan aldrebesa;
kontrol guztietan garbi
agertuta, ze sorpresa!
Hargatik eskaini dio
jendeak bere babes.
Errugabea da Mikel,
ulertzea da erreza:
ukabilaz mahaia jota
aitortuz kulparik eza.
Errurik ez baldin badu,
norena da interesa?
Bere akatsa ez bada,
gogotsu defenda beza!

Bizimodu latza datorkigu (2009)

Doinua: "Lagundurikan denoi"

1

Ekonomiak nonbait
zeukan minbizia:
Amerikak kutsatuz
Europa, Asia...
Finantzak porrot eta
diru-eskasia;
ez genuen nahi, baina
heldu da krisia:
lanak galduz indartu
da langabezia.

2

Hainbeste urte etxe
gehiegi egiten,
banketxeek jo ta su
dirua ematen...
Leporaino zorretan;
orain nola irten?
Lehertuko zela noizbait
denek bazekiten...
Agintari dauzkagu
hainbat astakirten.

3

Denak saltzen zituzten
nahiz garesti egin:
bi ordaintzen baitziren
salmenta batekin;
dozena bat urtean
hainbeste etekin...
Jolasten ari ziren
gizarajoekin,
poltsikoak beteta
politikoeekin.

4

Batetik zergak jarri
ta bestetik igo,
alperrak mantentzeko,
behin eta berriro.
Lantokietan berriz
hainbeste despido
edo bestela ERE,
hemen ez da giro;
irtenbidea gero
eta urrutigo.

5

Oso urte ederrak
pasa eta gero,
gehienak poltsikoak
diruz bero-bero.
Enpresariak hauxe
ez zuten espero;
negarrez ari dira
ia egunero.
Irabazi nahi dute
berdintsu urtero.

6

Etorkinez betetzen
ari da herria,
nahiz jakin badakidan
ez dela berria.
Multikulturala da
gaurko oinarria;
pentsatzen jarri eta
da harrigarria:
etxeko teilatura
botatzen harria.

7

«Ondo bizi gabela»,
irudi ustela;
hori zen agintari
askoren nobela;
egoera benetan
da oso krudela.
Tarta espero eta
hau da hau pastela!
Euren kulpa izan da:
konpon dezatela!

8

Enpresa txikiak hil,
handiak babestu;
Administrazioak
dena bere esku.
Erretiro txukuna
ezin da amestu
eta lehen ez duenak
zertxobait aurreztu
bizi beharra dauka
larri eta estu.

Sultan Kosen erraldoia naiz (2009)

Doinua: "Juana Bixenta Olabe"

1

Sultan Kosen naiz, mutil gaztea;
nola sinetsi hola trakestea?
Oraindik hogeï ta zazpi urte;
sorlekutik at, hona nakarte.
Turkian jaio
eta esango dut, ze arraio!,
altua, baina ez nago iaio!

2

Ondo neurtuta, dira zehazki:
bi metro eta berrogeita zazpi;
beraz, benetan tipo altua,
argala, baina hain baldartua...
Handiegia!
Aipatzen dudan hau da egia:
niretzat dena da zailegia!

3

Gaixotasun bat daukat buruan;
horrek eraginda bere inguruan:
txikitatikan hazi ta hazi...
Metrotan banaiz bi t'erdi kasi.
Arrano-pola!
Usteko dute ondo nagola,
bi bastoiekin lagunduz hola!

4

Oinetakoei jarriz begira:
txalupa baten antzekoak dira;
hirurogeia da nire taila,
erosteko ez da abantaila;
NBAko,
jokalaritxo horientzako
eginak txiki dauzkadalako.

5

Eta trajea egitekotan
hauxe gertatzen zait sarri askotan:
pozik jostuna edo sastrea;
ekonomian ze desastrea!
Dirurik gabe!
Nahiz altueraz jaun eta jabe,
beti arlote ta miserable!

6

Altueran nahiz hanka ta esku,
Guinness errekorrak, neurritz hain justu;
modelo ere izan nahi nuke,
nire ustez badut hainbat bertute...
Aurrez jakinik,
ez dagola inon berdinik,
nahiz baldar egon, ibili ezinik.



Sultan Kosen erraldoia

7

Saskibaloia, kirol polita
izan zitekeen ondo ikasita;
baina ezin dut kirolik egin,
beraz, ezin kontatu nirekin;
bestela mate,
nik oso erraz egin nezake.
Gasol inbidiz omen daukate!

8

Hotel batera sartu orduko,
bertan loari egin behar uko;
ohe gainean ezin etzanda,
ez naiz ausartzen, garbi esanda...
Bestela hankak,
gau guztian han zintzilik dauzkat.
Lurrean hobe koltxoi ta mantak.

9

Nonahi kalea zeharkatzeko:
hiru-lau pauso ondo ibiltzeko,
baina ezin naiz hasi korrika,
nahiz jendea zain egon irrika,
niri begira;
autoak azkar gelditzen dira.
Ni ikustera datoz herrira.

10

Etxe askotan ezin kabitu:
nire gorputzak komeriak ditu!
Eta atetik pasatzekotan,
makurtu behar sarri askotan.
Hau da hau zama,
nik bizkarrean daramadana;
oso garesti ordainduz fama!

11

Komuneraino iristen banaiz,
zailtasun gehiegi izaten dut maiz;
zakilak lanak ematen ditu:
eseri eta ezin kabitu;
ama, ze mina!
probatu gabe pentsa ezina;
bigun badago da desberdina!

12

Altxatze hutsa ez denez broma,
ipurdiarekin jotzen dut horma;
erne ez banago, bestela goia,
aurrez ikasi behar gidioia;
ez da aitzakia:
tabernetako kaka-tokia.
Petril gainetik da egokia.

13

Gipuzkoar bat handiegia:
aspaldi hila, Altzoko Handia;
ni baino puska bat txikiago...
Bertaratzeko asmotan nago.
Internetetik...
Hara iristen jakin badakit:
pasa ondoren Donostiatik.

14

AHTa bukatzean maiz,
Astigarragaraino joango naiz:
sagardotegi bat probatzeko,
hamar bat pitxar han dastatzeko,
janez txuleta,
parrilan aurrez, erdi erreta,
bizpahiru jan nahi ditut eta!



Mara, aitarekin



Mara, amarekin

Mara bilobatxoari (2010)

Doinua: "Habanera"

1

Pozez gainezka gaude gu
jaio delako haurtxoa:
aita-amaren arteko
maitasunaren mintzoa;
berdintsu zen azaroa
edo hurrengo martxo;
gure udazken bizitzan
heldu da oparitxoa.
Bi mila ta bederatzi
urtearen kapritxoa:
azaroaren hogeian
sortu da bilobatxoa.
Aitona zain babesteko;
amonak prestu altzoa...
Sorta bat idatziko dut:
hauxe da lehen bertsoa.

2

Data esanguratsuan:
Franco hil zen egun bera;
hogeita hamalau urte,
jada batetik bestera.
Gerran epaitu eta hil
zuten Primo de Rivera.
Santi Brouard erail zuten,
pistoleroen legera...
Baina pasatako dena
utzi dezagun atzera,
biloba ez dadin bizi
gu bizi ginen antzera:
diktadurapean gogor
heziak izanak gera...
Bizitzan askatasunez
egin dezala aurrera.

3

Zutaz pozik bezain harro
daude aita eta ama;
bularretik elikatuz
jasoz amaren lastana,
bizkar gainean hartuta
hezketak dakarren zama;
horren eragina gero
helduko da zuregana.
Titia hartu eta lo,
horixe da zure plana;
arropa polit artean
sehaskatxoan etzana;
zazpi otordu eginez
handitzen ari zerana...
Aitona zu kozkortu zain
kontatzeko iragana.

4

«Askatasunean hezi»:
gurasoentzat helburu,
zaila dirudien arren
lortuko dute seguru.
Aitonek eta amonek
emanez hainbat aburu,
zeure bidea egiten
laguntzeko prest lau buru.
Herria eta kultura
maitatzea zor badugu
herriaren kulturgintzan
guk murgilduko zaitugu:
ikastolan eta dantzan
ez pasa hainbat apuru;
geroxeago bertsotan
irakatsiko dizugu.

5

Haurreskolan hasi lehen
ta gero ikastolara,
aiton-amonak txoratzen
eskutik helduta hara;
jolas ta kantuz ikasi,
bazterreratuz ikara;
lagunak errespetatuz
beste guztien gisara.
Andereñoak hobetu
nahiko du zure euskara.
Amak bidaliko zaitu
arratsean goiz lotara,
panpinaz, animaliaz...
hornitutako gelara.
Jada gure familian
printzesa bihurtu zara.

6

Tximeleta bat bezala
dotore jantzita dantzan,
dantzari txiki egunez
ikusteko esperantzan.
Izan liteke Hernanin,
Zarautzen edo Arantzan;
gero argazki politik
agertuko dira prentsan.
Neskatxa gaztearentzat
ilusioa bizitzan
beharrezkoa izaten da
saiatzeko kulturgintzan.
Amatxok esango dizu:
«Ni horrela ibili nintzan,
herriaren kulturari blai
eta dantzatzen Ereintzan».

7

Aitatxorekin kopletan,
gero zortziko txikian;
handira pasa hurrena
neurriaren aitzakian,
errimak eta hitz denak
jarrita bere tokian,
esaldiak moldatzeko
oso modu egokian.
Hamarrekoan ikasi,
seiko motzean, zazpian...
Naufragoarena gero,
hobeto da idazkian.
Azkenean habanerak
politik ahots eztian...
Betroiarena zaila da:
utzi pilaren azpian.

8

Ia konturatzerako
hogeitatu urteko neska:
gorputz lirain dotorea
eta ilusioz gainezka.
Mutilak ariko dira:
«Nor da polit hau?» galdezka;
sarri gertatuko da bai,
baina ez da nire kezka.
Bertsotan ariko gara:
zu ondo, ni aldrebeska...
Aitona zaharra izango naiz;
zu niri irribarrezka;
gure arteko saioa
izango da nahiko festa
zoriontsu bizitzeko
asperralditik iheska.

Maialen txapeldun berriari (2010)

Doinua: "Iduzki denean"

1

Maialen maitea
hernaniar laguna,
izugarria da
BECen egin duzuna:
gaur zure jarduna
bertsotan txukuna...
Hori ikuskizuna!
Herritar kuttuna:
gozatu eguna
zarenez txapelduna.

2

Zaletasun hori
umetatik jaso,
gazte izatea
ez baitzen arazoa.
Bertsoz eraso...
gero hitz goxoa
ta beti eroso.
Hau da hau pausoa:
zorion osoa
Barakaldon jazoa!

3

Plazetan hasita
hamabost urterekin,
atera diozu
horrenbeste etekin:
Sebastianekin
ta Andonirekin
gogoz zenion ekin.
Ezin zena jakin,
ordu behinipin:
zaude txapelarekin.

4

Zazpi gizonentzat
emakume bat txarra,
zeuk sortu baituzu
txinparta eta garra...
Gainditzea arra
nahiz zen zail samarra:
zure egin beharra.
Hain zara azkarra:
gaurdaino bakarra
gure hernaniarra.

5

Maisua gaindituz
ez da izan itsusia;
apal kantatzeak
badu zer ikusia.
Eginda jauzia:
Sari Nagusia;
ta non dago auzia?
Hark erakutsia,
zure astuzia...
gaur behar zen guzia.

6

Finaletan hau zen
zuretzat laugarrena:
zortzigarren hasi;
ez, ordea, herrena...
Gero bigarrena,
baina ia aurrena;
hirugarren hurrena...
Horrek dakarrena
astinduz barrena:
gaur saio ederrena.

7

Aspaldi zenbiltzan
txapel beltzaren eske:
goi mailako saio
asko konta litezke.
Hainbat buruhauste,
baina buruz gazte
txarra denik ez uste:
ikusi zaituzte
fresko bezain aske
plazetan astez aste.

8

Zortzikote hortan
bazegoen nibela.
Maialenek egin
behar saio itzela:
Binaka, kartzela...
ezin zen bestela
Andoni zegoela.
Txapeldun zarela
hornitzeko gela:
bistan jarri txapela.



Joxe Agirre veteranoa, Maialen Lujanbiori txapela jartzen

73 urte Lujanbiotik Lujanbiora (2010)

Doinua: "Habanera"

1

Bertsoa da herriaren
ahozko literatura,
txapelketek eraginda
sendotzen doan kultura.
Mila bederatzirehun ta
hogeita hamabost hura
hartu beharko genuke
erreferentzi modura:
Poxpolinen Txapelketa
Nagusien abentura,
Kursaaleko areto
hartan azalduz mundura.
Basarrik lehen txapela
eraman zuen burura
hogeita bat urterekin
Zarauzko Azkenportura.

2

Hirurogeita hamabost
urte sasoiari jarrita,
urtebete geroago
garaile izan zen Txirrita;
Uztapide eta Zepai:
ze hirukote polita!
Ekainez txapelduna hil;
gero gerraren bisita...
Urte oso latzak Francok
diktadura ezarrita,
jeneral gaizto alu hark
aginduz hala utzita:
erderaz hitz egin behar
euskerez galerazita.
Eskerrak bertsolariak
ez zeuden behintzat etsita.

3

Frankismoak sortu zuen
horrenbeste atsekabe:
hogeita lau urte luzez
etenda, lehiatu gabe,
bertsolaritza zegoen
hil zorian oso grabe;
hirurogeian berriro
ekin zioten xuabe...
Euskaltzaindia izan zen
antolakuntzan zutabe;
mende laurdena pasata
ez zen hainbat nobedade:
Uztapideren ondoan
lehiatuta parez pare
bigarren aldiz Basarri
izan zen jaun eta jabe.

4

Aipatu beharra dago
hirurogeita bikoia,
aldaketa sortu zuen
ez baitzen izan ohikoa:
Uztapidek irabazi,
ta Basarri mitikoa
txapeldunorde izateak
umildu zuen nahikoa.
Oartzungo zestoarra
Uztapide zen jainkoa,
halere harrotu gabe
umila baitzen tipoa;
bertsolari bikainaren
hamarkada magikoa:
hiru txapel lortzen bera
izan zen lehenbizikoa.



Basarri
(1935, 1960)



Txirrita
(1936)



Uztapide
(1962, 1965, 1967)



Xabier Amuriza
(1980, 1982)



Sebastian Lizaso
(1986)



Jon Lopategi
(1989)



Andoni Egaña
(1993, 1997, 2001,
2005)



Maialen Lujanbio
(2009)

5

Amurizaren kasua
dugu oso berezia:
Etxeanon jaiotakoa,
gero apaiz ikasia.
Sotana utzi aurretik
hain egoera nahasia:
zazpi urteko kartzela;
Zamoran ze desgrazia!
«Españian behera...» han
bertsoari itsatsia:
bertan preso zegoela
bertsoa lantzen hasia...
Gero bertso-eskoletan
erein zuena hazia.
Gainera txapela Baldan
bi aldiz irabazia.

6

Sebastian Lizaso da
jaiotzez azpeitiarra,
gizon handia, bertsoan
tximista bezain azkarra;
laurogeita seiko hura
da bere txapel bakarra
Belodromoan jantzia,
artean gazte samarra.
Hogeita zortzi urtekin
dastatu zuen aparra,
geroztik goi mailan dabil
gainditu baitzuen marra;
jario ezin hobe
ahotsean du indarra,
txapelketak utzi arren
badugu bere beharra.

7

Jon Lopategi jaiotzez
bizkaitar bertsolaria;
Muxikan jaio zen "beltzak"
ederra du emaria.
Laurogeita bederatz
hartan jaso saria:
Euskal Herriko txapela,
Bizkaian ez da ugaria...
Diktaturaren garaian
entzutea oparia:
Azpillaga-Lopategi
a zer nolako paria!
Garai hartan egin zuten
ekarpena nabaria:
Franco gogor kritikatu
baztertuz zurikeria.

8

Hamasei urtez txapeldun,
aspaldi jo zuen gaina;
lau txapel jantzitakoa,
hori lanaren ordaina;
bertsokera borobila:
txukun dantzatzu mingaina,
esaldi ezin hobeak,
joskera berriz bikaina;
diskurtsoa egokitzen
bada beste inor aina;
azkeneko txapelketan
apal samar alabaina!
Azkenean Maialenek
txapela jantzi du baina
txapeldun denen artean
txapeldun dugu Egaña.

Ederki kostata baina
 iritsi zaio eguna
 txapeldunorde izana
 bihurtzeko txapelduna;
 gainera emakumea
 dugu Maialen kuttuna,
 hamabost urtez geroztik
 plaza denetan jarduna.
 Maisuekin trebatuta
 jantzia dauka garuna,
 hizketan abilezia
 arrazoituz erantzuna,
 bertsolaritza-munduan
 sendotu du nortasuna;
 Hernanin ez da ahaztuko
 txapelaren ohiartzuna.

Gure sustraiak galduta
 ez goazenez inora,
 Ereñotzu ingurua
 orain datorkit gogora;
 Txirritaz gogoratzea,
 beraz, ona izango da;
 hark utzitako kultura
 zaindu dezagun gerora.
 Hernaniko bertsogintzak
 nabarmen egin du gora;
 erreginak eraman du
 txapela bere txokora.
 Hirurogeita hamahiru
 urte, pasa den denbora:
 Lujanbio Txirritatik
 Maialen Lujanbiora.

2009ko Txapelketa Nagusia abenduan jokatu bazen ere, bertso hauek 2010eko otsai-lean jarriak dira.

HISTORIAN ZEHAR JOKATUTAKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIAK

	URTEA	TXAPELDUNA	ADINA	HIRIA	LEKUA	DATA
I.	1935	Basarri	21	Donostia	Kursaal	1935-01-20
II.	1936	Txirrita	75	Donostia	Victoria Eugenia	1936-01-19
III.	1960	Basarri	47	Donostia	Victoria Eugenia	1960-12-18
IV.	1962	Uztapide	53	Donostia	Astoria	1962-12-30
V.	1965	Uztapide	55	Donostia	Anoeta pilotalekua	1965-01-01
VI.	1967	Uztapide	58	Donostia	Anoeta pilotalekua	1967-06-11
VII.	1980	Xabier Amuriza	38	Donostia	Balda pilotalekua	1980-01-06
VIII.	1982	Xabier Amuriza	41	Donostia	Balda pilotalekua	1982-12-20
IX.	1986	Sebastian Lizaso	28	Donostia	Belodromoa	1986-03-23
X.	1989	Jon Lopategi	55	Donostia	Belodromoa	1989-12-17
XI.	1993	Andoni Egaña	32	Donostia	Belodromoa	1993-12-19
XII.	1997	Andoni Egaña	36	Donostia	Belodromoa	1997-12-14
XIII.	2001	Andoni Egaña	40	Donostia	Belodromoa	2001-12-16
XIV.	2005	Andoni Egaña	44	Barakaldo	BEC	2005-12-18
XV.	2009	Maialen Lujanbio	33	Barakaldo	BEC	2009-12-13

Altza Donostiari anexionatu zioteneko 70. urteurrena (2010)

Doinua: "Iduzki denean"

1

Gerraren ondoren
Francoren diktadura:
hau gaiztoa eta
zitala berriz hura.
Garaile modura
azalduz mundura:
zapalkuntza, tristura...
Legeak eskura:
ezarriz gustura
espainiar kultura.

2

Berdegune, zelai,
baserri ta baratza:
herritik auzora,
aldaketa garratza.
Donostiak, antza,
tranpako balantza:
aurka ezin zen altxa.
Ekintza zehatza
altxatuz behatza:
«Guretzako da Altza».

3

Herria kentzea
ekintza mingarria;
Donostiarentzat
zen bateragarria.
Handi-egarria
asetuz, herria:
auzo multzo berria.
Goitik ezarria,
zen osagarria
Altza maitagarria.

4

Larratxo, Intxaurreondo,
Herrera, Sarrueta...
Buenavista gertu,
ondoan Bidebieta...
Altzan zeuden eta
ezin errespetatzen:
legezko lapurreta!
Amorruz beteta,
zimurtuz kopeta,
asko zeuden erreta.

5

Silva-Paguaga,
alkate-elkartea,
Kerejetak ere
han bazuen partea;
nolako artea!
Doan ematea,
Silvak borondatea:
irekiz atea,
hiri izatea,
galduz herri maitea!

6

Negozorako
ez zen jende makala,
logelak sortzeko
trikimailu legala.
Etxez berehala,
artoak bezala:
hazkunde bertikala.
Bidebieta hala,
Larratxo magala...
Agur, zelai zabala!

7

Atzera begira:
ja zazpi hamarkada.
Zigorra jasanda
demokrazirik bada,
garaia da jada,
begiratu hara:
baita Astigarraga.
Galduta ikara
gainditzeko traba:
herri izango zara.

8

Horrenbeste urtez
anexio auzia
sufritu dutenei
itxi parentesia.
Euren gabezia
ez zen merezia,
baizik txit berezia.
Ereinda hazia
lortzen da grazia:
Gora demokrazia!

Krisia gainditzeko alproja gehiegi (2010)

Doinua: "Itsasoa laino dago"

1

Banketxeen
ahulezia
Amerikan
berezia.
Hantxe erein
zen hazia;
uzta izan
da krisia.
Europarantz
pobrezia:
adibide
da Grezia...
Europarantz
pobrezia:
harroputzei
gabezia.

2

Hango zabor
hipoteka
hona heldu
da tarteka.
Ekonomi
apainketa:
ezinezko
konponketa.
Zergak igo,
lapurreta;
soldatari
murrizketa.
Zergak igo,
lapurreta;
denak gaude
ja erreta.

3

Ekonomi
euforia...
ondorioz
loteria:
aberatsei
oparia,
pobreentzat
miseria.
Askotxoen
eskaria:
lana edo
lansaria.
Askotxoen
eskaria:
ezinezko
miraria.

4

Krisi luze
hau indarrez
iritsi zen
zoritxarrez.
Poltsikoak
ustez urrez,
baina hustu
dira errez.
Abisatu
zuten aurrez,
hala ere
sosak errez.
Abisatu
zuten aurrez,
ondorioz
gaur negarrez.

5

Bankoentzat
bai nahikoa
denon diru
publikoa...
Jarrera dut
kritikoa
ez delako
logikoa.
Jokaera
tipikoa:
diruduna
da jainkoa.
Jokaera
tipikoa:
izorratu
betikoa.

6

Gure mundu
erreal
betidanik
da zabala;
gaur, gainera,
da globala
plaza bakar
bat bezala.
Krisi hau ez
da normala,
ikusten da
berehala.
Krisi hau ez
da normala,
erruduna
kapitala.

7

Krisialdi
dixosoa
sortu duzu
arazoa:
jasan dudan
erasoa,
niretzat ez
da gozoa.
Enpresaren
frakaso:
ez da une
erosoa.
Enpresaren
frakaso:
ERE jada
dut jasoa.

8

Errromesen
gaurko moda:
INEMeko
bulegora.
Badarama
bai denbora
kopurua
igoz gora.
Aldegin nahi
dut kanpora,
ERERik ez
den txokora.
Aldegin nahi
dut kanpora,
ziur jakin
gabe nora.

9

Ordaintzeko
hainbat zerga
egin behar
lan eskerga.
Txiroari
beti karga;
injustizi
hori zer da?
Agintari
hauen jerga,
gezurretan
beti berba.
Agintari
hauen jerga,
amaitzen ez
den juerga.

10

Politikan
lapur pila,
ez dira bost
baizik mila,
dabiltzanak
diru bila;
ondo janzten
den koadrila.
Martxoa nahiz
apirila...
aukera da
borobila.
Martxoa nahiz
apirila...
alproja hain
da abila.

Kontxako bandera (2010)

Doinua: "Itsaso hori dago zatarra"

1

Sailkatu asmoz zuten egina,
bakarka neurtuz ahalegina
eta emaitza handi hauentzat
ez zen izan atsegina: (bis)
Castro kanpora, jakina,
San Pedrorentzat berdina;
saiatu arren, ezina.
Beste urte bat itxaron behar;
ezin zuten imajina:
ametsek ihes egindakoan
sortzen dutelako mina. (bis)

2

Gero irailak 5, igandea,
Kontxa inguruan bazen jendea,
estropadaren lehen eguna,
beraz, giza uholdea. (bis)
Handia zen artaldea,
baina anitza ordea
kamiseten kolorea:
urdin, arrosa, hori, berde... nahiz
falta gorri ta morea.
Giro bikaina, egun alaia
ta soberan umorea. (bis)

3

Hurrengo igandez ze jende pila:
nire ustetan, ia ehun mila;
segundo t´erdi huskeri hortan
baitzegoen maratila. (bis)
Kaiku, ustez, hain abila,
Urdaibai garaipen bila;
bi patroien iskanbila:
oihuka bertan animatu nahi,
bakoitzak bere koadrila;
hauek arraunak gogor astinduz,
larri tostak eta gila. (bis)

4

Txanda irabazi eta bigarren
orokorrean, ez dago herren:
Oriok nonbait irabazteko
pentsamendua zekarren. (bis)
Ziabogan zen laugarren,
txandako azken zen arren,
gero itzultzen azkarren:
arraun eginda Santa Klarako
parean jarrita aurren,
txanpan atzetik: Urdaibai, Kaiku,
San Juan, hurrenez hurren. (bis)

5

Bermeotarrak daude pozez blai,
Bou Bizkaiako denak ere bai:
bigarren helduz, bi aldiz, baina
Kontxan irabazteko gai. (bis)
Aspaldidanik horren zai,
bandera zutelako nahi;
ustez Kaiku euren etsai...
Zale artean, itsasotik at
apustuan mila ezbai.
Urteko egun handiengan:
mila zorion, Urdaibai! (bis)

6

Hasi aurretik denek beldurra
ta gero berak jaso egurra:
Kaikuren gaurko kaikukeria
ez da ulertzen samurra. (bis)
Kontxakoari agurra,
gero inbidia apurra:
adierazpen makurra.
Itzulerako luzea luze...
ustez zutena laburra.
Beti bezala, Korta haserre:
zaunkalari den zakurra. (bis)

7

Hirugarrena zen ziabogan,
gero saiatu den arren bogan,
ohorezkoan onen taldean
laugarren heldu helmugan. (bis)
Azkenera arte dudan,
gogor borrokatuz gudan,
ezinezkoaren mugan...
San Juan ondo aritu denez,
bere betiko ohituran,
laugarren hori ez dago gaizki
badiako abenturan. (bis)

8

Hondarriak badu kemena:
kontsolazio-txandan lehena;
ohorezkoan nahi zuen arren
ez da posturik txarrena. (bis)
Nahiz garaipen nabarmena
izan bere ekarpena,
hala ere duten pena:
orokorrean ehunenekoan
arabera seigarrena.
Astillero da sailkapenean
bosgarren gelditu dena. (bis)

9

Gero Pedreña kantabriarra,
azken etxeko Donostiarra;
honen emaitza, ikusi denez,
ez al da pobre samarra? (bis)
Erabaki bat azkarra
daukate hartu beharra:
hiriko talde bakarra
ezin da sartu zortziko lehian
bada traineru kaskarra.
Zortzi onenek boga dezaten
aldatu araudi zaharra! (bis)

Txileko San Jose meategian (2010)

Doinua: "Ai hori begi ederra"

1

Abuztuaren bostean
meategira jaistean
istripua ezustean:
lur-jausi batek bidea itxi
beheraino iristean.
Hilobian ikustean
denok laguntza eskean;
berririk ez bi astean.

2

Argitikan ilunpera
jaitsi ondoren lanera
meategiko legera:
lurrazaletik seirehun ta hoge
metro inguru behera.
Blokeatu du irteera:
ez aurrera, ez atzera;
ezin gintezke atera.

3

Esatekotan egia
San Jose meategia
ez da seguruegia.
Nagusi jaunen diru-goseak
ekidin du legedia;
betiko maltzurkeria:
ondorioz miseria
eta gertu tragedia.

4

Janarien almazena
hustu dugunez aurrena,
gero gose nabarmena.
Sondan jartzea «Gu ondo gaude»
izan da gure lorpena,
une hunkigarriena
berpiztuz itxaropena
sahiesteko etsipena.

5

Berri emanez horrela
behean ondo geundela,
ez zen jakingo bestela;
solidaritzak idatzi du hor
historirako nobela:
jaitsiz edari, okela...
gero zulatu "tunela"...
Itxaronaldi krudela!

6

Ez zen behar berebilik,
are gutxigo gurpilik:
kable batetik zintzilik
Fenix 2 gure salbatzailea
heldu zitzaigun isilik.
Ez horrelako irailik!
Ez itzalpeko lan zailik!!
Argiko bizitza soilik!!!

7

Gure zain presidentea:
jarrera elegantea
azalduz borondatea,
polita baita denon aurrean
besarkadak ematea.
Piñeraren aldartea
jarraituz erreskatea:
a ze publizitatea!

8

Ilunpetikan argira
gauetz izarrei begira
ikusiz haien distira.
Ni ez naiz behintzat berriz jaitsiko
San Jose meategira,
arriskutsuko tokira.
Joan nahi dut urrutira:
menditik hiri erdira.

9

Oker dabilen munduan
orain aktore moduan
telebista inguruan.
Noiznahi eskaintzak eta dolarrak
milakako kopuruan:
gaur idoloen zeruan
lana modu seguruan
kaskorik gabe buruan.

Olaran misiolariari urrezko domina (2010)

Doinua: "Ai hori begi ederra"

1

Eskuak ezin igurtzi,
kontzientziak imurtxi:
banketxeko lana utzi.
Hernani laga, Afrikarantz jo,
ohikeria nahirik hautsi:
han sinesmenari eutsi,
adorea erakutsi;
ez zuen balio gutxi.

2

Utzita herriko plaza
urrun hogeit urte pasa
ez zen arren lan erraza.
Tanzaniako lurraldea zen
baliabidez eskasa,
latza hango anabasa!
Altua jaiotze-tasa...
Gosetearen jolasa.

3

Ekidinez aitzakia
hurrengo erabakia
babestea gizakia.
Wukro hiria infernua zen:
miseri denen tokia;
zirudien utopia,
baina asmo egokia:
duindu Etiopia.

4

Landu ondoren sorkuntza
ikasiz hango hizkuntza
helburua zen laguntza.
Zuk eraginda asko hobetu
da hango irakaskuntza,
heziketa, medikuntza,
ikastetxe-eraikuntza...
Misio-lanaren funtsa.

5

Baztertu eta utzia:
munduko injustizia
han dago bizi-bizia.
Behartsu jaio, miserian hil;
bizitzaren pobrezia:
gorputzen ahulezia
izan gabe merezia
dena baita gabezia.

6

Sendotuta harremanak
helburu du zure lanak
arintzea hango dramak.
Miseriatik salbatzen ditu
zure laneko afanak
ume gaixo beltzaranak;
osa litezke andanak
gosez hilda aita-amak.

7

Gau eta egunez ekin
bizirik dirautenekin,
baina nahi duenak jakin:
zurikeria agertzen dute
urrezko dominarekin.
Zuk egindakoarekin...
ez dute nahikoa egin!
Erne agintariekin!

8

Hango beharren harira
domina horren distira
hutsala da, baina tira.
Agintariok beti daudenez
euren zilborrei begira,
itzul zaitetz urrutira:
berriro Wukro hirira
maite zaituzten tokira.

9

Han baduzu zeregina:
miserian lan zikina
ez den arren atsegina.
Sortu zintuen lurak eskaini
arren urrezko domina
poltsikoz zoaz arina.
Konturatuko bagina
hura dela ezberdina!

10

Erakutsiz gaitasuna
han duzun eginkizuna
zabaltzea maitasuna.
Urte askoan segi ezazu
egiten hain lan txukuna
gogorra bezain astuna
zainduz zure osasuna,
Angel Olanan laguna!

Bizirik hilobiratuak (2010)

Doinua: "Habanera"

1

Txileko iparraldean
abuztuaren bostean
istripu harrigarria
gertatu zen ezustean:
meategian barnean
lur-jausia ikustean.
Inor ez zuen zapaldu;
hor nonbait, horrenbestean!
Hogeita hamahiru gizon
harrapatuak, triste han;
ez genuenez espero
lantokira iristean:
hamazazpi egun luzez
jardun laguntza eskean...
mundutik isolatuta,
berririk ez bi astean.

2

Atacama basamortu
hontan gure egoera,
sarreratik seirehun eta
hogeita bi metro behera;
egunero bezalaxe
jaietsiak ginen lanera,
meategiko bizitzak
agintzen duen legera.
Sartu betiko moduan:
argitik at, ilunpera;
soldataren truk urrea
eta kobre atera...
Beldurrez gelditu ginen
ez aurrera, ez atzera;
pasabidea moztuta
itxi zitzaigun irteera.

3

San Esteban da enpresa,
San Jose meategia;
ustez ondo babestua
geneukan guk lantegia:
santu bat aski, beraz bi,
aukera zabalegia;
halere errezatu dut,
ezin ukatu egia.
Jabeen diru-gosea:
axolagabekeria.
Agintarien aldetik
betiko utzikeria:
betearazi beharko
luketenez legedia.
Segurtasun-faltagatik
gertu baitzen tragedia.

4

Iluna izan da beti:
goizez eta arratsean,
deseroso sentiturik
amorfoa den etxean.
Gela umela, zikina,
aurrean eta atzean;
beti aukera urria
bazkaltzera hurbiltzean.
Goserik ezin zen ase:
potajerik ez eltzean...
Guztiok sentitu dugu
eztenkada bihotzean;
halere batzuk baikorrak
hain panorama beltzean:
«Dutxatuta gero goxo...»
berriz etxera heltzean.

5

Oso egun berezia
zen hamazazpigarrena:
goitik gidatuta sonda
heldu zitzaigun barrena.
Hari nota bat itsatsi,
gure poza nabarmena:
«Hemen denak ondo gaude...»
gero sortuz eromena.
Gure erakustaldia
ez dakit zen sinesmena,
bizi-nahia edo soilik
sahiestea etsipena.
Adostu genuen plana:
baraualdia aurrena...
zerbait edanez, gutxi jan...
hustu gabe almazena.

6

Goian konturatu ziren,
beraz, bizirik geundela;
eskerrak gure notari,
han hilko ginen bestela;
erreskate-plana egin,
dirudiena nobela.
Elikagaiak heltzeko
zulo estu bat itzela:
handik jaisten zizkiguten
egunkaria, okela...
Baina gu ateratzeko
makina bat behar zela:
hirurogei zentimetro
diametroko “tunela”
mantso zulatuz bederen
egin omen zezakeela.

7

Oso gogorra izan da
zuloan jasan duguna;
luzaro zain egon arren
iritsi zaigu eguna,
kable batetik zintzilik
Fenix 2 heldu zaiguna;
mirari bat bihurtu du
guretzat azken jarduna.
Orain oso ondo dakit,
Ana, emazte kuttuna,
berriro jaio naizenez
ez zarela alarguna.
Honek balio izan du
sendotzeko maitasuna
eta biok gozatzeko
nahiko nuke osasuna.

8

Banan-banan agurtzeko
zain gure presidentea,
telebistaren aurrean
itxaropenez betea.
Benetan eskertu dugu
bihotzez borondatea;
ondo dago langileoi
besarkada ematea.
Argazki eta kamera
dena publizitatea;
bere irudia hobetuz
agertu da txit tentea,
baina ez langile jantziz:
dotore, elegantea.
Boterean jarraitzeko
nolako errematea!

Orain tratatzen gaituzte
 aktore onen moduan:
 kazetari, zuzendari...
 telebista inguruan.
 Guztiok albiste bila
 eta gu gaude zeruan;
 eztabaidarik ez dago
 hemen diru-kopuruan.
 Guztia onartzen dute
 jarritako hitzorduan,
 kaskorik ez dugu behar
 lehen bezala buruan;
 gauza xelege ugari
 gerta ohi denez munduan
 dolarrak milaka datoz
 oso modu seguruan.

Beraz, ni ez naiz jaitsiko
 berriro meategira,
 betiko lana den arren
 etengo diot segida.
 Hori ekidin nahi nuke
 joan gabe urrutira.
 Bizitza ezin dut galdu
 ilunpeari begira.
 Nahiago dut egokitu
 eguneroko argira,
 soldata laukoiztu eta
 jornada jaitsi erdira;
 hori egiten dutenak
 telebistan asko dira;
 beraiek bezala bizi
 eta nahi dut erretira.

Xabier Lete gogoratu (2010)

Doinua: "Habanera"

1

Udazkenaren hondarrak
ekarri du giro hotza;
abendua lau beltzak,
gainera, berri mingotsa:
Telebistan entzun dugu
Xabierren heriotza,
urtero guztien legez
bizitza baita zorrotza.
Hainbeste aldiz entzuna
genuen bere ahotsa;
isildu zaigu poeta,
eten musikaren hotsa.
Orain hilkutxan sartuta
abeslaria hilotza;
ez denez harritzekoa,
minbera daukat bihotza.

2

Oiartzunen jaio, hezi...
Urnietan hartu bero,
bere herritarrek hori
ez zuten arren espero.
Lurdesekin ezkondu zen,
berarekin biziz gero;
sortzaile aparta zenez,
kantatzen, idazten edo...
Olerki bikainak lantzen
aritzen zen egunero.
Kulturgintza maite zuen,
landuz hainbeste genero;
bertsozale asko ginen
bere CDen bezero:
Xabierren lan bikainaz
gozatu nahian gauero.

3

Ez Dok Amairu taldeak
kultura zuenez xede,
herri hau berpiztu nahian
herrigintzari mesede.
Diktadura-garai hartan
Francok hainbeste botere,
guztioz zapaldu nahian
mila arau eta lege...
Baina kantari-taldeak
kikildu gabe batere,
sistema astintzen zuen
azalduz hainbeste fede:
gitarraz eta abestiz
kontzertuetan errege,
entzundako mezu haiek
bakoitzak eginaz bere.

4

Abestiak gogoratzen
oraintxe hasten bagara,
sehaska-kanta ederra
ere egin zuen, hara:
«Amaren bularra...» hori
lokartzeko aukera da.
Umetan entzundakoak
guraso ditugu jada.
Kantuz, bertsoz, zein olerkiz
osa daiteke ilara:
milaka zinta nahiz disko
atera ditu plazara.
Euskaldunok gozatzeko
izan dugunez parada,
oroitzapenean bego
artista onen gisara!

5

«Berriro itzuliko balitz...»
Xabierren habanera;
hor deskribatzen du Kuba
eta bizitzeko era...
«abaniko dun mulatak...»
euren ohituren legera,
han desberdin bizi dira,
ez hemengoen antzera.
Bertsolaritzak darabil
egunetik egunera:
zortzi errimak hamasei
lerrotan jarritz, gainera.
Doinu polit eder horrek
eskaintzen digu aukera:
hitzak ondo tolestuta
mezua doa barnera.

6

Xalbadorri jarritako
abesti ezin hobea:
«Adiskide bat bazen...» da
oso kantu dotorea.
Urepeleko artzaina
zintzoa bezain noblea
hizketan nahiz bertsotan zen
ia akatsik gabea.
Hiru hamarkada eta
gehiagoko ibilbidea:
ezaguna bihurtu da
hau ez da nobedadea!
Fernando Airek merezi
bezalako ohorea,
bikaina izan delako
utzitako ondarea.

7

Txirritaren bertso onak
ezagutzen dira mila,
jakina baita bertsotan
izan zela txit abila;
aipatu beharra dago
Norteko Ferrokarrilla:
«goizian irten Irundik...
illuntzerako Madrilla».
Askoz azkarragoa da
gaur egungo berebela.
Mende bat igaro denez,
txapeldun handia hila;
Xabierren ahotsak hor
egin du meritu pila.
Zaleon oroimenean
iraunkor bihur dadila!

8

Bizitza bizi izan du
ulertzen zuen modura:
idatziz nahiz kantuz beti
herriarekin lotura.
Ibilbide oparoan
dena jarri du eskura,
kulturgintzan erakutsiz
izugarrizko ardura.
Gazteegi amaitu du
bizitzako abentura,
baina gogoan daukagu
momentutik momentura.
Bere ildotik jarraitu
behar genuke gustura,
bidegile handi batek
zurtz utzi baitu kultura.

2010eko abenduan Xabier hil ondoren jarritako bertso hauek 2011ko urta-
rrilean "XIII. San Antontxu" bertsopaper-lehiaketan (Mungia) 1. saria lortu
zuten.

Bertso bereziak

Txiki eta Otaegi fusilatua (1975)

Doinua: "Loreak udan ihintza bezela"

1

Mila beatzirehun hirurogeita
hamabostean izan zen,
irailaren hogeita zazpi,
larunbat goizez, hain zuzen;
Bartzelonatik eta Burgostik
albiste txarrak zetozen:
Francoren azken astakeriaz
denok ohartu gintezen.

2

ETAko Juan Paredes "Txiki"
eta Anjel Otaegi:
bion zigorra heriotza zen
epaitu gabe gehiegi.
Fusilatua goiz ilunean:
frankismoan zen "zilegi".
Geroxeago Franco hil denez,
infernura joan bedi!

3

FRAPeko beste hiru kideok
zuten sententzi berdina:
Sánchez, García eta Baena
hirukote desegina.
Protesta ugari Euskal Herrian;
ez zen giro atsegina.
Diktaturak ze kalte dakartzan
konturatuko bagina!

Bertso hauek 1975eko abenduan jarriak dira, Franco hil eta hurrengo hilean.

Arkaitza tabernaren 25. urteurrena (2002)

Doinua: "Aita izena kanta beharrak"



GR-ko bertso-saioak Arkaitza tabernan

Gaur, hogeita bost urte pasata,
bistan daukagu emaitza:
ongi sendotu dira erroak,
egin ondoren lan gaitza;
euskal giroko txoko bihurtu,
indartuz bertsolaritza.
Xenpelar Bertso Eskolak ez du
ahaztuko zure eskaintza.
Eskerrik asko bihotzez eta
mila zorion, Arkaitza!

Okillegin (2003)

Doinua: "Maitasuna da bizi izateko"



Egoitz Gurrutxaga
(1974-07-30 / 2002-09-23)

Askatasuna zenuen amets
eta ametsak eragin,
kontzientziak agintzen baitu
geure bizitzan zer egin
eta zuk, Egoitz, zintzo jokatu
zenuen zeurearekin.
Familiar hainbeste min,
baina nahi duenak jakin: (bis)
herriak maite zintuen Egoitz
eta zuk herria berdin.
Orain errautsek jarrai bezate
ametsetan Okillegin. (bis)

Fagollagako eskola (2003)

Doinua: "Itsaso hori dago zatarra"

1

Berrogeita sei urtetik gora,
azkar pasatzen baita denbora;
sei-zazpi urte nitueneko
gauzak datozkit gogora. (bis)
Begirada haurtzarora,
azalduz nire ganora
eta ona izango da
gogoratzea joan ginela
gu Fagollaga ondora.
Jasandakoa adierazita
sentituko naiz gustora. (bis)

2

Garai hartako gure eskola
ez pentsa zenik gaurko ikastola;
agintariek ez zutelako
hori onartzen inola. (bis)
Heziketa espainola
gainera ez edonola,
pozoindu nahirik odola...
Gu baserritar petoak ginen;
horrek ez zuen axola
eta "Cara al sol" kantatu behar,
ez Gernikako arbola. (bis)

3

Eskola zaharrak gela bakarra,
neska-mutilak han barra-barra;
hirurogei bat elkartzen ginen;
nonbait hor zegoen marra. (bis)
Maistra genuen zakarra,
ez dakit zen neska zaharra;
baina soberan indarra.
Arrazoi gabe maiz jartzen zuen
masailean atzaparra;
diktaduraren pedagogia:
umeek ere negarra. (bis)

4

Errepidean hainbat zipriztin
eta zangoak askotan zikin;
joan-etorria oinez genuen,
sarritan uztaiarekin. (bis)
Gelan gogoz ezin ekin;
gaztelera ez genekin!
Ez zen erraza gurekin...
Asmatu zuten pedagogia
lortzeko nahiko etekin:
bizkarra ongi berotzen zigun
maistrak makil motzarekin. (bis)

5

Oso txikiak ginen adinez
baina aipatzen dut atseginez:
Don Joanekin gu dotrinan ongi
beti euskeraz eginez. (bis)
Erderaren eraginez,
sarritan buruko minez;
hitzak ulertu ezinez.
Errosario santua berriz
gero elizan latinez;
hiru hizkuntza erabili ta
bat ere ongi jakin ez! (bis)

6

Baina ez gendun galdu euskera,
beraz oraindik euskaldun gera;
nahiz heziketan ama-hizkuntzak
ez zuen izan aukera. (bis)
Eskola hartan bandera,
gorri-horia gainera
eta kontuak atera:
gela barruko argazki hartan
zegoen Franco berbera...
Gu diktaduran hezi gintuzten
legearen arabera. (bis)

7

Nahiz frankismoan naizen hezia,
amesten beti demokrazia;
bizitza hontan probatu ditut
nik geza eta gazia. (bis)
Diktaduraren hazia,
berriz indartzen hasia;
horra gure desgrazia!
Agintarien azpijokotik
badugu zerikasía:
zapalkuntzaren aurkako gerra
ez dago irabazia. (bis)

Hernaniko Udalak liburuxka batean argitaratuak, beste sorta batzuekin batera eta Ereñotzuko auzoko jaietan San Antonio elizan kantatuak, 2003ko ekainean, bertso musikatuaren ekitaldian.

Ereintza 50 urtez lanean gogotsu (2008)

Doinua: "Habanera"

1

Laguntzaile gaiztoa zen
sorrerako diktadura.
Zapalkuntza ekidinik
sortu ondoren mundura
bost hamarkadaz mantendu
etengabeko ardura.
Gaur pentsatzen jarriz gero
sortzen duen harridura:
herrian txertatu baitu
lan-jardunaren ohitura
eta paregabe zaindu
Euskal Herriko kultura.
Nahiz eta aspaldikoa
den jaiotze-data hura
lanean gogotsu segi
eten gabe abentura.

2

Landuz euskal antzerkia,
baita ere euskal dantza.
Eskulangintza-azoka
urtero doa gorantza.
Txistularien taldea,
txistuaren esperantza.
Xenpelar sariketa da
bertso-mailaren balantza.
Poesia zein ipuinak
landu nahi bada hizkuntza.
Kultur esparru ugari
jorratuak ditu, antza.
Eskubailoian trebeak...
Nolako kirol-eskaintza!
Uzta bikaina bihurtuz
garai hartako ereintza.

3

Gabonetan gabon-kantak
zein abesti-lehiaketa;
urte zaharreko koplak,
pentsa, ez da berriketa:
jendeak kalean zehar
jartzen du nahiko arreta.
Santa Ageda bezperan
koplen errepikaketa.
Usadio zahar hauek
mantendu nahi dira eta
Ereintza ahalegintzen da
itxaropenez beteta.
Euskal kutsua hartzen du
gure herriak tarteka
Xenpelarrek goza dezan
zimurte gabe kopeta.

4

Txukun banandu ondoren
lastoa eta garia,
egindako lana izan da
ona bezain ugaria;
hainbeste arlo jorratuz,
askotan aitzindaria.
Herri osoarentzako
benetako oparia;
agian mereziko du
domina edo saria,
urteotan erakutsi
duenez kategoria,
baina ez diot egin nahi
Udalari eskaria.
Alkate jaunak badaki:
zain dago Errenteria!

5

Euskal giroko jendea:
jator bezain atsegina;
kultura ardatz nagusi
eta lanerako grina;
txalogarria izan da
egindako ahalegina;
eskertzekoa da beraz
lan eskerga hau egina.
Gerora ere kulturari
izango du eragina,
esparru horretatik at
ezin baitut imajina
eta aitortu beharra,
delako egi gordina:
Ereintza gabe herri hau
litzateke ezberdina.

6

Berrogeita hamar urte,
hastear beste aroa;
gaurdaino jasotakoa
benetan da oparoa.
Ospakizun-urtea da
beraz zorian beroa;
ez uko egin lanari
ziurtatzeko geroa.
Ereintza ereiten jarrai
Errenteriko soroa;
eremua goldetzeko
badago jende "zoroa":
zahar, gazte, neska, mutil;
bikoitza da generoa
eta gidari lanean
sasoian dago Naroa.



Ereintza Elkarteko lehendakariak (1958-2008)

Amaiera

Jarraitu nahiko nuke
bertso-sortak jarritz,
tajuzko testuekin
eta zuzen neurritz;
irakurle, itxaron
bazaude egarritz,
segi nahi dut idazten
gehiago irakurriz,
baina ezin agindu
hogeita sei berriz.

Eranskinak

Bertso-sorten eta doinuen zerrenda

ZB.	URT.	IZENBURUA	DOINUA	BERTSO KOPU.
IBILBIDEAN JARRIAK				
1	1984	Kilometroak 84	Maritxu nora zoaz	12
2	1989	Hamabi izarrez osaturiko Europako...	Aizak, hi mutil mainontzi	14
3	1990	Eusakaldun gazte bat Pertsiar...	Betroiarena	10
4	1991	Tourrak errege euskalduna du...	Aizak, hi mutil mainontzi	12
5	1991	Hiesari ihes	Betroiarena	9
6	1992	Aupa, Indurain!	Aizak, hi mutil mainontzi	12
7	1992	Marino gure enbaxadorea	Iparragirre abila dela	10
8	1992	Kilometroak gogoratuz	Esne saltzailearena	12
9	1992	Zorionak, Hautzaro!	Betroiarena	9
10	1992	San Simon eguneko amesgaiztoa	Maitasuna da bizi izateko	11
11	1993	Gurasoen urrezko ezteiak	Maitasuna da bizi izateko	9
12	1993	1993a oso urte gogorra	Maitasuna da bizi izateko	11
13	1993	Ez nago ados, Udala	Maitasuna da bizi izateko	9
14	1994	Pertsona Fisikoen Errentaren...	Betroiarena	9
15	1994	Nazka ematen du!	Maitasuna da bizi izateko	8
16	1994	Zatiketak	Maitasuna da bizi izateko	8
17	1995	Nire alaba bezala maite zintudan...	Maitasuna da bizi izateko	12
18	1995	Pedagogia zaharra	Aizak, hi mutil mainontzi	10
19	1995	Hiroshima eta Nagasaki 1945...	Maitasuna da bizi izateko	8
20	1996	Krisiaren amaiera	Iparragirre abila dela	6
21	1996	Motelgailuz josiak	Betroiarena	8
22	1997	Euskeraz bizi eta gazteleraz hezi...	Aizak, hi mutil mainontzi	12
23	1997	Bizitzak aurrera darrai	Aizak, hi mutil mainontzi	12
24	1997	Agur, aita!	Aizak, hi mutil mainontzi	12
25	1997	Afrikako nesken tortura lotsagarria	Aizak, hi mutil mainontzi	10
26	1997	Lehen hobeto bizi nintzen	Betroiarena	9
27	1998	Gure astoa gogoratuz	Aizak, hi mutil mainontzi	8
28	1999	Agur don Joan!	Maitasuna da bizi izateko	8
29	1999	Agur, Basarri!	Ai hori begi ederra	14
30	2000	Felix eta Albertoren 12 gailurrak...	Maitasuna da bizi izateko	12

31	2000	Felix gogoratzuz	Ai hori begi ederra	10
32	2000	Badator 166,386 pezetako euroa	Aizak, hi mutil mainontzi	13
33	2000	Bizimodua aldatzen ari da	Ikusten duzu goizean	11
34	2001	Santo Tomas eguna Asturiasen	Aizak, hi mutil mainontzi	11
35	2001	Urte zahar eguneko gogoeta	Ikusten duzu goizean	10
36	2001	Suitza	Aizak, hi mutil mainontzi	12
37	2001	Euroarekin jolasean	Aizak, hi mutil mainontzi	18
38	2001	Dorre bikien amaiera	Ai hori begi ederra	12
39	2002	XIII. bertsolari-txapelketa...	Betroiarena	9
40	2002	Lapur alua	Iparragirre abila dela	11
41	2002	Txapela	Iparragirre abila dela	12
42	2003	Lazkao Txiki gogoratzuz	Itsaso hori dago zatarra	9
43	2003	Prestige	Itsaso hori dago zatarra	10
44	2003	Xabier Oleagari ongietorria	Itsaso hori dago zatarra	11
45	2003	Xamalbide	Ai hori begi ederra	12
46	2004	Gipuzkoako bertsolari-txapelketa..	Ikusten duzu goizean	10
47	2004	Marco Pantani gogoratzuz	Itsaso hori dago zatarra	10
48	2004	Hamaika sufritzeko jaioa	Itziarren semea	18
49	2004	40. ikasturtea ospatzeko "Q" saria	Aita izena kanta beharrak	14
50	2005	Yasser Arafat	Itsaso hori dago zatarra	9
51	2005	Hamabost urte	Betroiarena	9
52	2005	Lance Armstrong erregeen errege	Ikusten duzu goizean	9
53	2005	Joxe Mari Aranalde gogoratzuz	Ai hori begi ederra	9
54	2005	Niessen berria	Iparragirre abila dela	14
55	2006	Bertsolari Txapelketa Nagusiak...	Betroiarena	14
56	2006	Sagarrondotik dator sagardoa	Habanera	8
57	2006	Ospitalean	Iparragirre abila dela	11
58	2006	Landarbasoan erraustegirik ez	Ikusten duzu goizean	10
59	2006	60 urte eta sasoi onean	Iparragirre abila dela	12
60	2006	Mohamed eta Amadou anaien...	Itsaso hori dago zatarra	12
61	2007	Personal Computer, 25 urteko...	Habanera	8
62	2007	Neskatxen etorkizun beltza	Ai hori begi ederra	9
63	2007	Realaren porrota	Betroiarena	10
64	2008	Gure ohe zaharra	Ikusten duzu goizean	10
65	2008	Morfotipoak	Esne saltzailearena	9
66	2008	Uztapideri erantzunez	Esne saltzailearena	14
67	2008	Beijing 2008	Aizak, hi mutil mainontzi	14

68	2008	Krisialdia	Habanera	8
69	2009	Joxan Arbelaitz gogoratuz	Ai hori begi ederra	12
70	2009	Edurne Pasabanen 12 gailurrak...	Leiho ertzetik entzun...	12
71	2009	Euskaltzaindiak 90 urte bete ditu	Habanera	10
72	2009	Mikel Astarlozaren Alpeetako...	Habanera	7
73	2009	Bizimodu latza datorkigu	Lagundurik denoi	8
74	2009	Sultan Kosen erraldoia naiz	Juana Bixente Olabe	14
75	2010	Mara bilobatxoari	Habanera	8
76	2010	Maialen txapeldun berriari	Iduzki denean	8
77	2010	73 urte Lujanbiotik Lujanbiora	Habanera	10
78	2010	Altza Donostiari anexionatu...	Iduzki denean	8
79	2010	Krisia gaintzeko alproja gehiegi	Itsasoa laino dago	10
80	2010	Kontxako bandera 2010	Itsaso hori dago zatarra	9
81	2010	Txileko San Jose meategian	Ai hori begi ederra	9
82	2010	Olaran misiolariari urrezko domina	Ai hori begi ederra	10
83	2010	Bizirik hilobiratuak	Habanera	10
84	2010	Xabier Lete gogoratuz	Habanera	8

BERTSO BEREZIAK

1975	Txiki eta Otaegi fusilatuak	Loreak udan ihintza...	3
2002	Arkaitza tabernaren 25. urteurrena	Aita izena kanta beharrak	1
2003	Okillegin	Maitasuna da bizi izateko	1
2003	Fagollagako eskola	Itsaso hori dago zatarra	7
2008	Ereintza 50 urtez lanean gogotsu	Habanera	6

Bertso-sorten sailkapen teknikoa

	DOINUAK	SORTAK	SAILKAPENA
1D	Maritxu nora zoaz	1	1. TAULA
2D	Aizak, hi mutil mainontzi	14	
3D	Betroiarena	10	
4D	Iparragirre abila dela	7	
5D	Esne saltzailearena	3	
6D	Maitasuna da bizi izateko	10	2. TAULA
7D	Ai hori begi ederra	9	
8D	Ikusten duzu goizean	6	
9D	Itsaso hori dago zatarra	7	
10D	Itziarren semea	1	
11D	Aita izena kanta beharrak	1	3. TAULA
12D	Habanera	9	
13D	Leiho ertzetik entzun dezaket	1	
14D	Lagundurikan denoi	1	
15D	Joana Bixenta Olabe	1	
16D	Iduzki denean	2	4. TAULA
17D	Itsaso laino dago	1	
18D	Loreak udan ihintza bezela	1	

(Berezietan)

Guztira hemezortzi doinu desberdin (1D...18D izendatuak) erabili ditut bertso-sorta hauetan. Hurrengo lau tauletan sailkatuta daude, bakoitzari dagozkion xehetasunak deskribatuz: doinuaren, bertsolari sortzailearen eta neurria/estrofaren izenak; nolakoa den, bertsoaren egitura: lerro eta silaba kopuruak, eta errimen kokapena zein kopurua.

Ezker-eskuineko zutabeetako zenbakiak bertso-lerro kopuruak adierazten dituzte. Adibidez: 1. taula: (1D=8...5D=10), 2. taula: (6D=12...10D=12), 3. taula: (11D=10...15D=7) eta 4. taula: (16D=10...18D=8). Taula hauen barneko zenbakiak, berriz, bertsoen silaba kopurua lerroka. Hizkiek (A, B eta C) bertsoen errimak adierazten dituzte. Gehientsuenak errima mota bakarrekoak (A) edo monorrimo deiturikoak izan arren, bada biko bat (4D=A, B) eta hirukoia ere (15D=A, B, C). Azken bi hauek, plurirrimo deiturikoak.

Taulaotan ikusita korapilotsua badirudi ere, doinuak ezagutzean errazagoa egiten da. Sailkapena Joanito Dorronsorearen doinutegian oinarritua dago.

Bertso-estrofak izendatzeko, Bertsozale Elkarteko Iker taldearen 2009ko ekaineko irizpideetan oinarritu naiz eta Hegoaldeko sistema aukeratu dut.

1. taula

	1D	2D	3D	4D	5D		
	Maritxu nora zoaz	Aizak, hi mutil mainontzi	Betroiarena	Iparragirre abila dela	Esne saltzailearena		
		Xenpelar	Xenpelar	Xenpelar	J. K. Zapirain		
	Zortziko txikia	Zortzikoa, berdina, moldekoa, 6 puntuz	Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz	Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz	Hamarreko txikia		
	Sentimenduzkoa	Dantzakoa	Kontakizunezkoa	Kontakizunezkoa	Irrizkoa		
1	7	8A	7	10	7	1	
2	6A	8A	6A	8A	6A (bis)	2	
3	7	10	7	10	7	3	
4	6A	6A	5A	8A	6A	4	
5	7	8A	7	7A	7	5	
6	6A	8A	6A	7A	6A	6	
7	7	10	7	8B	7	7	
8	6A	6A	6A	10	6A	8	
9			6A	8B	7	9	
10			6A			6A	10
11			6A			11	
12			6A			12	
13			7			13	
14			5A	14			

4D: Plurirrimo. A eta B errima motak.

2. taula

	6D	7D	8D	9D	10D	
	Maitasuna da bizi izateko	Ai hori begi ederra	Ikusten duzu goizean	Itsaso hori dago zatarra	Itziarren semea	
	Peñagarikano		Elizanburu	X. Amuriza	T. Monzon	
	Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz	Zortzikoa, berdin. moldekoa, 7 puntuz	Zortzikoa, berdin. moldekoa, 7 puntuz	Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz	Hamarreko txikia (aldaera)	
	Kontakizunezkoa	Amodiozkoa	Sentimenduzkoa	Sentimenduzkoa	Tragikoa	
1	10	8A	8A	10A	7	1
2	8A	8A	8A	10A	6A	2
3	10	8A	8A	10	7	3
4	8A	10	10	8A (bis)	6A	4
5	10	8A	8A	8A	7	5
6	8A	8A	8A	8A	6A*	6
7	8A	8A	8A	8A	7	7
8	8A (bis)	8A	8A	10	6A**	8
9	10			8A	6A*	9
10	8A			10	6A**	10
11	10			8A (bis)	7	11
12	8A (bis)				6A	12

10D: Bi hermistikio-lerro (6A* eta 6A**) errepikatzen direnez, hamabikoa bezala gelditzen da.

3. taula

	11D	12D	13D	14D	15D	
	Aita izena kanta beharrak	Habanera	Leiho ertzetik entzun dezaket	Lagundurikan denoi	Juana Bixenta Olabe	
	X. Amuriza	X. Lete	A. Egaña	P. M. Otaño	Bilintx	
	Hamarreko handia	Hamaseiko berdina, 8 puntuz, 8 silabaz	Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz	Hamarreko txikia	Zazpi puntuko berezia	
	Kontakizunezkoa	Sentimenduzkoa	Kontakizunezkoa	Sentimenduzkoa	Kontakizunezkoa	
1	10	8	10	7	10A	1
2	8A	8A	8A	6A	11A	2
3	10	8	10	7	10B	3
4	8A	8A	8A	6A	10B	4
5	10	8	10	7	5C	5
6	8A	8A	8A	6A	10C	6
7	10	8	8A	7	10C	7
8	8A	8A	8A (bis)	6A		8
9	10	8	10	7		9
10	8A	8A	8A	6A		10
11		8	10			11
12		8A	8A (bis)			12
13		8				13
14		8A				14
15		8				15
16		8A				16

15D: Plurirrimo. A, B eta C errima motak.

4. taula

	16D	17D	18D	
	Iduzki denean	Itsasoa laino dago	Loreak udan ihintza bezela	
		A. Mendiluze	Bilintx	
	Hamarrekoa, txikiaren moldekoa, 8 puntuz (aldaera)	Hamalauko berdina, 7 puntuz, 4 silabaz	Zortziko handia	
	Amodiozkoa	Amodiozkoa	Amodiozkoa	
1	6	4	10	1
2	7A	4A	8A	2
3	6	4	10	3
4	7A	4A	8A	4
5	6A	4	10	5
6	6A	4A	8A	6
7	7A	4	10	7
8	6A	4A	8A	8
9	6A	4*		9
10	7A	4A*		10
11		4		11
12		4A		12
13		4*		13
14		4A*		14
15		4		15
16		4A	16	

17D: Bi hermistikio-lerro (4, 4A*) errepikatzen direnez, hamaseikoa bezala gelditzen da.

Maritxu nora zoaz II (G)

The image shows a musical score for a piece titled "Maritxu nora zoaz II (G)". The score is written on ten staves in a single system. The key signature is one sharp (F#) and the time signature is 2/4. The melody is written on a treble clef. The lyrics are in Basque and are placed below the notes on each staff. The lyrics are: Ma-ri-txu no-ra zo-az, e-der ga-lant ho-ri, i-tu-rri-ra Bar-to-lo, nai ba-de-zu e-to-rri, i-tu-rri-an zer da-go, ar-do-txo txu-ri-a, bi-ok e-dan-go de-gu, nai de-gun gu-zi-a.

Ma-ri-txu no-ra zo-az
e-der ga-lant ho-ri
i-tu-rri-ra Bar-to-lo
nai ba-de-zu e-to-rri
i-tu-rri-an zer da-go
ar-do-txo txu-ri-a
bi-ok e-dan-go de-gu
nai de-gun gu-zi-a.

Aresoaren bandera (G)

Aizak hi mutil manontzi

The image shows a musical score for the song 'Aresoaren bandera'. It consists of ten staves of music, each with a line of lyrics underneath. The music is written in a treble clef with a key signature of one flat (B-flat) and a 2/4 time signature. The lyrics are in Basque and describe the flag of the Basque Country.

A- re- so- a- rren ban- de- ra
ai no- la- ko- a o- te da
e- ra- kus- te- ra e- ra- mandu- te
e- rre- ka al- de- ra
ge- ro Lei- tza- rrak bi- de- ra
zo- ri- o- nak e- ma- te- ra
al zu- e- nak a- rin jo- an zi- ran
i- ge- ri e- gi- te- ra.

Betroiarena (G)

Ber- tso be- rri- ak jar- tzen
o- rain nalz a- bi- an
pre- di- ka- tze- ra no- a
Eus- ka- le- rri- an
be- troi bat har- tu nu- en
Her- na- nin fe- ri- an
ga- lan- tzi- a e- gin- go
zu- e- la a- gi- an
tris- tu- ra be- gi- an
be- ti au- le- ri- an
ez ha- ren pre- mi- an
ne- re fa- me- li- an
Sen- pe- la- rrek da- kiz- ki
E- rren- te- ri- an.

Iparragirre abila dela (G)

The image shows a musical score for a hymn. It consists of ten staves of music, each with a line of lyrics underneath. The music is written in a treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. The lyrics are in Basque. The melody is simple and repetitive, with a clear rhythmic pattern. The lyrics are: l- pa- rra- gi- rre a- bi- la de- la, as- ko- ri di- ot a- di- tzen, es- ko- la o- na e- ta mu- si- ka, ho- ri ho- i- e- kin ser- bi- tzen, ni ez na- zu i- bil- tzen, kan- tuz di- ru- a bil- tzen, ko- me- ri- an- te mo- du- an, de- bai- de fes- ta pre- pa- ra- tzen det, go- gu- a de- dan or- du- an.

l- pa- rra- gi- rre a- bi- la de- la
as- ko- ri di- ot a- di- tzen
es- ko- la o- na e- ta mu- si- ka
ho- ri ho- i- e- kin ser- bi- tzen
ni ez na- zu i- bil- tzen
kan- tuz di- ru- a bil- tzen
ko- me- ri- an- te mo- du- an
de- bai- de fes- ta pre- pa- ra- tzen det
go- gu- a de- dan or- du- an,

Ai gure antzinako

Esne saltzailearena
saratarra naizela

Ai gu - re an - tzi - na - ko
gu - ra - so no - bli - ak
zi - tuz - ten le - gi - ak
guk hain - bat tra - be - ju ta
fe - txa - rik ga - bi - ak
a - de - lan - tu - a de - la
us - te du jen - di - ak
tre - na ta tran - bi - ak
on - do - ren da - to - ze - nak
ez di - ra ho - bi - ak
on - do - ren da - to - ze - nak
ez di - ra ho - bi - ak.

Maitasuna da bizi izateko (G)

Mai- ta- su- na da bi- zi i- za- te- ko
ar- datz e- ta oi- na- rri- a
ja- kin de- da- nez hark ba o- men du
o- rain mai- ta- le be- rri- a
nik ez ne- ki- en ja- ki- nengai- nen
o- menze- go- en he- rri- a
ga- rai ba- te- an i- rri- a
o- rainmal-ko i- tu- rri- a
ez- kon- du e- ta a- se nai nu- en
mai- ta- su- nan e- ga- rri- a
- - - - - e- non ha- ha- rra
bai da- la pe- na- ga- rri- a
bai da- la pe- na- ga- rri- a.

Ai hori begi ederra I (G)

Nere aberri laztana

Ai ho- ri be- gi e- de- rra
i- ru- di- tzen zait e- pe- rra
gau- za ho- be- ri- kan zer da
oin-txo po- li- ta za- pa- ta e- der
txor-ka- ti- la guz- tiz fi- na
jan- tzi e- der- ki e- gi- na
te- li- a mo- da- ko fi- na
ai ne- re- tza- ko ba- zi- na.

The musical score is written on ten staves. The first staff is a treble clef with a 3/4 time signature. The melody is simple and folk-like. The lyrics are in Basque. There are several key signatures and time signature changes throughout the piece, indicated by double bar lines with a key signature change (from G major to D major) and a time signature change (from 3/4 to 2/4).

Doinu hau AFRIKAKO GERRARENAK bezala ere ezagutzen da.

Ikusten duzu goizean (G)

Horran nun dan Urnieta
Ai hau penaren haundia

The musical score is written on a single treble clef staff in G major (one sharp) and 2/4 time. It consists of ten measures of music, each with a corresponding line of lyrics underneath. The lyrics are in Basque. The score begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The melody is simple and rhythmic, with lyrics placed below the notes. The lyrics are: l- kus-ten du- zu goi- ze- an; ar- gi- a has- ten de- ne- an; men- di- tto ba- ten gai- ne- an; e-txe tti- pi- tto aintzin xu- ri bat; lau hai-tzon- do- ren er- di- an; xa- kur xu- ri bat a- te- an; i- tu- rri- ño bat al- de- án; han bi- zi naiz ni ba- ke- an.

l- kus-ten du- zu goi- ze- an
ar- gi- a has- ten de- ne- an
men- di- tto ba- ten gai- ne- an
e-txe tti- pi- tto aintzin xu- ri bat
lau hai-tzon- do- ren er- di- an
xa- kur xu- ri bat a- te- an
i- tu- rri- ño bat al- de- án
han bi- zi naiz ni ba- ke- an.

Itsaso hori dago zatarra (B)

Naufragoarena

The image shows a musical score for a song. It consists of 14 staves of music. The first staff is a treble clef with a key signature of one flat (B-flat) and a common time signature (C). The melody is written on a single staff, and the lyrics are written below it. The lyrics are in Basque and describe a shipwreck. The music is in a simple, folk-like style with a steady rhythm. The lyrics are: l- tse- so ho- ri da- go ze- ta- rra
ni- re oi- hu- a e- ta ne- ga- rra
un-tzi bat ho- rra nun a- zal- tzen den
nik be- har nu- en i- za- rra
o- rain- txe sar- tu zait a- rra
be- rriz piz- tu- tze- ko ga- rra
bai- na hau da zo- ri- txe- rra
i- ku- si nau- te au- rre- an e- ta
ai hau des- ti- no bai- da- rra
la- gu- na on- do- tik pa- sa- tu e- ta
nik he- men i- to be- ha- rra
nik he- men i- to be- ha- rra.

Itziarren semea (L)

The image shows a musical score for the song 'Itziarren semea (L)'. It consists of 12 staves of music, each with a line of lyrics underneath. The music is written in a treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 4/4 time signature. The lyrics are in Basque and describe a father's love for his children.

l- tzi a- rren se- me- a
ho- ri duk mu- ti- la
ni- hor sa- la- tu bai- no
nai- a- go du hi- la
ha- rro e- gon li- ta- ke
Ma- ddi nes- ka- ti- la
es- pe- txe- tik ja- li- ta
joa- nen zai- o bi- la
Ma- ddi nes- ka- ti- la
ho- ri dun mu- ti- la
ni- hor sa- la- tu bai- no
nai- a- go du hi- la.

Aita izena kanta beharrak (B)

A musical score for a hymn. It features a single melodic line on a treble clef staff with a key signature of one sharp (F#) and a 2/4 time signature. The lyrics are written below the staff, aligned with the notes. The text is in Basque and describes the Father's name and the Holy Spirit's role.

Ai- ta i- ze- na kan- ta be- ha- rrak
ja- rri dit bi- ho- tza be- ro
au- ke- ra e- der hau i- zan- go za- nik
ez nu- en he- men es- pe- ro;
pre- so nen- go- en Za- mo- ran e- ta
han gel- di- tu i- a e- ro,
jo- an nin- tzen ta ber- tan nen- go- la
ai- ta hil zi- tzai- dan ge- ro,
nai- a- go nu- ke e- do- zer bai- no
he- men bi- zi- rik ba- le- go
he- men bi- zi- rik ba- le- go.

Berrito itzuliko balitz

Habanera

Be - rri - roi - tzu - li - ko ba - litz
i - ra - gan den - bo - raa - rro - tza
ber - din kon - tsu - mi ne - za - ke
bai - ni - la go - zo ar - te - an
i - tsa - so u - rrun ba - te - tan
i - ru - di - me - na gal - du - rik
u - da - be - rri - ko eu - ri - tan
la - rro - sak piz - ten i - ku - siz
i - tsa - so u - rrun ba - te - tan
i - ru - di - me - na gal - du - rik
u - da - be - rri - ko eu - ri - tan
la - rro - sak piz - ten i - ku - siz
u - da - bu - rri - ko eu - ri - tan
la - rro - sak piz - ten i - ku - siz

Leiho ertzetik entzun dezaket (G)

Le-i ho er-tze tik en-tzun de-za-ket
i-tsa-so-a-ren in-da-rra
o-la-tu pi-la no-la ler-tzen dan
braust e-ta braust ba-rra ba-rra
pen-tsa-tze hu-tsak be-gi-e-ta-ra
e-kar-tzen di-dan ne-ga-rra
mo-men-tu tris-te xa-ma-rra
es-ke-gi-nu-en txä-ma-rra
ni-be-ze-la-ko gi-zon be-ten-tzat
ez o-te da zo-ri-txa-rra
i-tsa-so-a hain hur-bil e-gon-da
o-he-an e-gon be-he-rra
o-he-an e-gon be-he-rra.

Lagundurikan danoi I (G)

The image shows a musical score for a song. It consists of ten staves of music. The first staff is a vocal line in G major (one flat) and 3/4 time. The lyrics are written below the notes. The remaining nine staves are accompaniment, likely for a guitar, with chords and some melodic lines. The lyrics are: La- gun- du- ri- kan da- noi, gu- ga- tik hil za- nak, se- me ha- zi zai- tu- gu, ai- tak e- ta a- mak, be- ti zu- re gi- da ri, i- zan- du ge- ra- nak, o- rain gu- ru- tze ho- nen, oi- ne- tan e- sa- nak, on- do go- go- an har- tu, be- hai- tu- zun da- nak.

La- gun- du- ri- kan da- noi
gu- ga- tik hil za- nak
se- me ha- zi zai- tu- gu
ai- tak e- ta a- mak
be- ti zu- re gi- da ri
i- zan- du ge- ra- nak
o- rain gu- ru- tze ho- nen
oi- ne- tan e- sa- nak
on- do go- go- an har- tu
be- hai- tu- zun da- nak,

Nagusi jauna hauxe da lana I (G)

Joana Bixenta Olabe I

Hurra Papito I

Na-gu- si jau-na hau-xe da la-na
a-mak bi-dal- tzenau be-ro- rrenga- na
ai bi- dal-du-ko ba-zin- du-ke maiz
zu i- ku-si- ta kon-so- la- tzen naiz
si- nis- ta za- zu
o- so zo- ra- tu- ri- kan nau-ka- zu
ho-rren po-li-ta no-la ze-ra zu.

Iduzki denean (N)

Zarautz herriari

I- duz- ki de- ne- an
zoin den e- der i- tza- la
mai- tia min- tzo zi- ra
pla- zer du- zun be- za- la
e- gi- ten du- zu- la
mi- la di- si- mu- la
i- flo- rant zi- re- la
e- rrai- ten du- zu- la
ber- tze- taik nai- ze- la
fal- tsu- ki min- tzo zi- ra.

Itsasoa laino dago (G)

The image shows a musical score for the song 'Itsasoa laino dago (G)'. It consists of four staves of music in G major and 4/4 time. The lyrics are written below the notes. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 4/4 time signature. The melody is simple and consists of quarter and eighth notes.

i- tsa- so- a lai- no da- go
Bai- o- na- ko ba- rra- rai- no
nik zu zai- tut mai- te- a- go
txo- ri- ak be- ren u- me- ak bai- no.

Loreak udan intza bezela I (G)

Lo- re- ak u- dan in- tza be- ze- la
mai- te det da- ma gaz- te bat;
ha- ri hain- bes- te nai di- o- te- nik
ez da mun- du- an bes- te bat.
I- noiz e- dobein pa- sa- tzen ba- det
i- ku- si ga- be as- te bat
bi- hotz guz- ti- ra- ba- ha- tu- tzen zait
ha- la- ko gau- za tris- te bat.

AURKIBIDEA

Eskaintza	7
Eskerrak emanez.....	9
Hitzaurrea	11
Sarrera	19
IBILBIDEAN JARRIAK	
- Kilometroak 84	23
- Hamabi izarrez osaturiko Europako Ekonomi Elkartea	25
- Eusakaldun gazte bat Pertsiar Golkoko gerrara.....	27
- Tourrak errege euskalduna du: Migel Indurain	30
- HIESari ihes	32
- Aupa, Indurain!	35
- Marino gure enbaxadorea	37
- Kilometroak gogoratuz	39
- Zorionak, Hautzaro!	41
- San Simon eguneko amesgaiztoa	44
- Gurasoen urrezko ezteiak	47
- 1993a oso urte gogorra	51
- Ez nago ados, Udala	54
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	57
- Nazka ematen du!	60
- Zatiketak	62
- Nire alaba bezala maite zintudan Garazi	64
- Pedagogia zaharra	67
- Hiroshima eta Nagasaki 1945. Mururoa 1995	70
- Krisiaren amaiera	72
- Motelgailuz josiak	73
- Euskeraz bizi eta gaztelera ez hezi. Tortura hura ez genuen merezi.	75
- Bizitzak aurrera darrai	78
- Agur, aita!	80
- Afrikako nesken tortura lotsagarria.....	82
- Lehen hobeto bizi nintzen	84
- Gure astoa gogoratuz	87
- Agur, don Joan!	89
- Agur, Basarri!	91
- Felix eta Albertoren 12 gailurrak Himalaian	94
- Felix gogoratuz	97
- Badator 166,386 pezetako euroa.....	99
- Bizimodua aldatzen ari da.....	102
- Santo Tomas eguna Asturiasen.....	104
- Urte zahar eguneko gogoeta	106

- Suitza	108
- Euroarekin jolasean	110
- Dorre bikien amaiera	114
- XIII. bertsolari-txapelketa nagusia 2001	116
- Lapur alua	119
- Txapela	121
- Lazkao Txiki gogoratuz	123
- Prestige.....	125
- Xabier Oleagari ongietorria	127
- Xamalbide	130
- Gipuzkoako bertolari-txapelketa 2003.....	133
- Marco Pantani gogoratuz	135
- Hamaika sufritzeko jaioa.....	137
- 40. ikasturtea ospatzeko "G" saria	142
- Yasser Arafat	146
- Hamabost urte	149
- Lance Armstrong erregeen errege	152
- Joxe Mari Aranalde gogoratuz	154
- Niessen berria.....	156
- Bertsolari-txapelketa nagusiak 1935-2005	159
- Sagarrondotik dator sagardoa	163
- Ospitalean	165
- Landarbason erraustegirik ez	167
- 60 urte eta sasoi onean.....	169
- Mohamed eta Amadou anaien odisearen kronika	171
- Personal Computer. 25 urteko gaztea	174
- Neskatzken etorkizun beltza	176
- Realaren porrota.....	178
- Gure ohe zaharra	181
- Morfotipoak	183
- Uztapideri erantzunez	185
- Beijing 2008	188
- Krisialdia	191
- Joxan Arbelaiz gogoraratuz	194
- Edurne Pasabanen 12 gailurrak Himalaian.....	196
- Euskaltzaindiak 90 urte bete ditu	199
- Mikel Astarlozaren Alpeetako garaipena	203
- Bizimodu latza datorkigu	205
- Sultan Kosen erraldoia naiz	207
- Mara bilobatxoari	211
- Maialen txapeldun berriari	213
- 73 urte Lujanbiotik Lujanbora	215
- Altza Donostiari anexionatu zioten 70. urteurrena	219
- Krisia gainditzeko alproja gehiegi	221

- Kontxako bandera 2010	224
- Txileko San Jose meategian	226
- Olanan misiolariari urrezko domina.....	228
- Bizirik hilobiratuak	230
- Xabier Lete gogoratuz	233
BERTSO BEREZIAK	
- Txiki eta Otaegi fusilatuak	237
- Arkaitza tabernaren 25. urteurrena	238
- Okillegin	239
- Fagollagako eskola	240
- Ereintza 50 urtez lanean gogotsu	242
Amaiera	245
ERANSKINAK	
Bertso-sorten eta doinuen zerrenda	249
Bertso-sorten sailkapen teknikoa	252
Doinutegia	256

